ttipi-ttapa

TOKIKOM

2016ko azaroaren 24a | XXXVI. urtea | **675**. zenbakia

erran.eus



Azaroak 25

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

**BORTZIRIAK ➜ 17**
Euskaltegiko matrikulazioa %57,8 igo da

**LESAKA ➜ 12**
Hondakin organikoentzat edukiontzi marroiak

**KULTURA ➜ 15/20**
Kultur Egunak Igantzin eta Iturenen

**LEITZA ➜ 52**
'Lau Aro' argazki liburua kaleratu dute

**KIROLAK ➜ 65**
Fernando Etxegarai EHko txapeldun koxkor biltzen

**Isabel ELIZALDE ARRETXEA | Nafarroako Gobernuko kontseilaria**



# «Ez gara ohartzen nolako garrantzia duen bertan sortu eta kontsumitzeak»

ERREPORTAJEA ➜ 3-5

2015eko uztailean hartu zuen Isabel Elizalde Arretxeak Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Toki Administrazio eta Ingurumen kontseilariaren ardura. Sortzez beratarra da, Donezteben bizitutakoa, eta gaur egun Zubietan bizi da. Urte «zaila» izan dela onartu digu, baina gisa berean, «positiboa» izan dela dio, «gauza aunitz egiten ari garelako». UPNren aitzineko gobernuak utzitako ondareaz eta bere departamentuaren lehentasun eta kezkez solastu da TTIPI-TTAPArekin. Horrez gain, Lekarozen egin nahi duten Aroztegiko proiektuaren inguruan ere aritu da.



## Ehunka gazte baloiaren gibeletik

Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea eta Malerrekako ehunka gaztek hasi dute denboraldia taldekako kiroletan. Guztira, mila kirolari baino gehiago dira sasoi honetan futbolean, eskubaloian, saskibaloian, errugbian eta areto-futbolean ari direnak. Urtero bezala, TTIPI-TTAPAk taldekako kiroletan dabiltzanen izen-abizenak bildu ditu kirolari eskainitako gehigarri berezian.

➜ 23-50

ZOZKETAK ➜ 72




Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzi **info@ttipi.eus** helbidera.



**Caser Residencial Betharram**
Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA
Tel.: 943 647 169

Caser RESIDENCIAL

www.caseresidencial.es



**Caser Residencial Anaka**
Anaka kalea 8 - IRUN
Tel.: 943 667 780

# «Zure ondoan, gehien behar duzunean»

Zoriontsu izateko zer behar dugun galdetuz gero, gehienon erantzuna izaten da «maite ditugunak zoriontsu izatea». Horretarako gure ingurukoek eta baita guk ere bizi-kalitate ona izatea ezinbertzekoa da. Gure eskuetan dagoen guztia egin ohi dugu helburu horretara iristeko eta zenbaitetan profesionalen laguntza beharrezkoa izaten da.





Zahar egoitza eta eguneko zentroa urteko 365 egunetan irekita eta bisitak ordutegirik gabe

## ANAKA

Irungo erdigunean kokatua dago. 14 urte baino gehiagoko esperientzia dute adinekoak zaintzen. Familia giroko zentroa da, goxoa, eta gune komun zabalak dituena, tartean terraza handi bat.

## BETHARRAM

Irun eta Hondarribia arteko mugan, Irungo hirigunetik bost minutura dagoen eraikin berri eta argitsua da. Arreta-modulu txikietan egituratuta dago eta berdegunez inguratua.





## Egonaldi motak

Adineko eta familia guztien beharrak ez dira berdinak. Horregatik, egonaldi mota desberdinak eskaintzen dituzte.

- Egonaldiak **iraunkorrak** edo **aldi baterakoak** izan litezke. Urte-sasoi jakin batzuetan (oporrak, lan karga handiko garaiak....), zaintzaileek atseden hartzeko... baliatu litekeen zerbitzua da.
- Operazio edo gaixoaldi baten ondotik, **atseden hartu** eta **osatzeko programa** bereziak ere eskaintzen dituzte **fisioterapia eta errehabilitazio zerbitzu zabala** baitute.
- **Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten gaixoentzako** egonaldiak ere eskaintzen dituzte. Gaixotasunaren etapa desberdinak kontuan hartuz, erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzen dute zaintza trebatutako profesionalek.

## Bertatik bertara

Bidasoa eskualdean, **Bortzirietatik 15 minutura** daude. Menpekotasun egoeran dauden adinekoei behar dituzten zainketak eskaintzea da egoitza hauen helburua eta familiartekoen eta zaintzaileen beharrizanei erantzutea. Hori lortzeko zaharren egoitza, eguneko zentroa eta babespeko apartamentuak jartzen dituzte erabiltzaileen eskura.

## Adinekoen behar guztiak asetzeko lan-taldea

Arreta sozio- sanitario osoa eskaintzen dute.

- **Aisialdi programa zabala:** gimnasia, tailerrak, eskulanak, musikaterapia, jokoak, festak...
- **Zerbitzu profesionalak erabiltzaileen eskura:** medikua, farmazia, erizaina, psikologoa, gizarte langilea, okupazio terapia, fisioterapia eta errehabilitazioa, nutrizioa, podologia, odontologia eta dentista eta logopedia.
- **Sukaldea bertan.** Sasoiko produktuekin otordu osasuntsuak prestatzen dituzte.
- **Bestelako zerbitzu batzuk** ere aukeran: ile-apainketa, jostuna, meza, laguntza teknikoen kudeaketa, kanpora laguntzea eta ordenagailu gela.



**ISABEL ELIZALDE ➜** KONTSEILARIA

# «Gustura hartu dut aldaketan parte hartzeko erronka»

## Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilari izendatu zutenetik urtebete pasatu da

Ibilbide profesional luzea du Zubietan bizi den kontseilariak. Nafarroako Gobernuko kontseilari izatea ardura «haundia» dela onartu digu, baina pozik dago egin dutenarekin, eta gehiago egiteko gogoz.



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN

Isabel Elizalde kontseilaria Lesakako komentuaren aitzinean.

**G. PIKABEA**

«Gauza aunitz egin dugu, oraindik aunitz dugu egiteko, baina hori da erronka». Egindakoarekin pozik, eta aitzinera begira egiteko ilusioz. Halaxe mintzatu zaigu Isabel Elizalde Arretxea kontseilaria (1964). Jaiotzez beratarra da, Donezteben bizitutakoa eta gaur egun, Zubieta du bizileku. Cederna Garalur Elkarteko kudeatzaile izan zen 2015eko urte hasiera arte, eta urte hartako uztailaz geroztik bera da Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko kontseilaria. Ardura hori hartu zuenetik urtebete pasatu denean, orain arteko ibilbideaz «hagitz balorazio ona» egin dio TTIPI-TTAPAri: «halako departamentu zabal batean sartu, lantalde on bat osatu, gauzak egiten hasi eta lortzea niretako hagitz garrantzitsua da». Onartu digu urte «zaila» izan dela, baina gisa berean, «positiboa» izan dela dio: «mahai gainean gauzak egin direla ikusten dugu, eta egiteko zer dugun ere badakigu».

Kontseilari izateko eskaintza «sobera pentsatu» gabe onartu omen zuen: «niretako aldaketak lehentasuna zuen, nahitaezkoa zen. Aldaketa horretan parte hartzeko eskaintzea sorpresa izan zen, baina aldi berean, erronka arrunt gustura hartu nuen». Aldaketa bere egunerokoan ere nabaritu du: «beti ibili naiz lanean buru-belarri, hainbertze gauzetan, ordutegi aldetik ez dut alderik nabaritu. Hori bai, lana desberdina da, ardura haundia da, baina desberdintasunik haundiena orain aunitzez ere publikoagoa naizela da. Lehen aunitzez ere anonimoagoa nintzen, lanean ari nintzen baina gibelean, eta orain aitzinean nago. Horrek bere zailtasuna edo koxka badu».

### DEPARTAMENTU ZABALA

Landa Garapena, Nekazaritza eta Abeltzaintza, Ingurumena eta Lurralde Antolamendua eta Toki Administrazioa dira Elizalderen sailari dagozkionak: «gure departamentua hagitz zabala da», aipatu digu: «baina zabaltasun horretan sareak eta sinergiak lortzeko bideak daude, barruko zein kanpoko eragileekin».

BALORAZIOA

> «Urte zaila izan da, baina aldi berean, positiboa, gauza aunitz egin dugulako»
>
> **Isabel ELIZALDE**
> Nafarroako Gobernuko Kontseilaria

Kargua hartutakoan, departamentu «estanko bat» aurkitu zuela adierazi digu: «arrunt lan ohitura bertikalak zituzten, langileen arteko harremanak eskasak ziren eta horrek eragina zuen emaitzetan». Eta hori beretako «zaila» izan omen da: «bertze lan kultura batetik heldu gara, eta lantaldeko kultura hori administrazioan barneratzea ez da erraza izan. Halere, poliki-poliki ari gara». Horren seinale, aurten departamentuko hiru zuzendariekin 200 bilera inguru egin omen ditu.

Departamentura ailegatu zenean «hainbertze eta hainbertze», egitekorekin topo egin zuela ere gaineratu digu, aitzineko Gobernuak utzitakoak: «Landa Garapeneko Programa oraindik onartu gabea, Toki Azpiegituren Plana antolatu gabea eta kudeaketa eskasarekin, Natura 2000ren inguruko plangintzak bukatu gabeak, hondakinen plana alde batera utzia...». Baina baikor mintzo da: «bidea egiten hasi gara, gauza aunitz egiten ari gara, eta honetan jarraitu behar dugu, animo guztiekin. Kritika onak eta txarrak, denak, onartuz».

## Motzean

**• Bideragarria da laborariaren lanbidea?**
Bideragarria izaten ahal da, baina ohiko ereduen ordez, bertze adibideetan pentsatu behar dugu. Nekazari batek bere lanetik bakarrik bizitza ateratzea zaila da, diru-laguntzen menpe dago. Baina eredu batzuek, dibertsifikatuta, emaitza onak lortzen dituzte, diru-laguntzekiko hainbetzeko menpekotasunik gabe. Ongi pentsatuta eta laguntzarekin, laborantzatik ongi bizitzea posible da.

**• Nola ikusten duzu gure eskualdea?**
Bertzeekin konparatuta, ez gaude gaizki, baina gauza aunitz egiten ahal dira. Gazteek zonaldearekiko lotura badute, kanpora joanagatik, hein haundi batean bueltatzen dira eta hori positiboa da. Bi aukera ditugu hemen lanpostuak sortzeko: kanpotik datozen enpresetan edo norberak enpresa sortuta. Kasu honetan, ez gara ohartzen nolako garrantzia duen bertan eta hurbil kontsumitu eta sortzeak. Batzuetan kanpoko soluzioen esperoan egoten gara, eta guk ere hausnarketa egin behar dugu. Gazte eta helduok badugu gauzak ateratzeko gaitasuna eta hori landu behar dugu.



## Departamentuaren kezka eta lehentasun nagusiak

### INGURUMENA



**1. Hondakinen Plangintza:** Helburu nagusia «prebentzioa» dela nabarmendu du Elizaldek: «zaborrik hoberena sortzen ez dena dela ongi ulertzea nahi dugu. Ongi bereizi eta gero birziklatu egin behar da». Batez ere hondakin organikoarekin egin behar omen da lanik haundiena: «organikoaren %70a bereiztea nahi genuke». Eta «zabortegira doan guztia lehenbiziko tratatua izatea» nahi dute. Plangintzaren lanketan zabalik duten parte-hartze prozesuan 2.000 bat ekarpen jaso omen dituzte. Hori «hagitz garrantzitsutzat» jo du kontseilariak: «alegazioak aztertu eta plana nola finkatu ikusiko dugu. Behin onartuta, lege bat idazten hasi nahi dugu». Ez dute erraustegirik nahi Nafarroarako.

**2. Mendiak:** Diru-laguntzak «egokitu» dituztela dio: «espero dugu mendiko lanak bultzatu eta animatzea».

**3. Lursarea:** Nasuvinsa enpresa publikoaren baitan, Lursarea izeneko agentzia sortu dute, Nafarroako landa lurraldeak dinamizatzeko: «udalek eta garapen agentziek elkarrekin Nafarroako baliabideen garapen iraunkorra zabaltzeko». «Bertiz, Urbasa, Bardeak... hainbertze eremu natural ditugu eta horien inguruan sare bat antolatu nahi dugu, batez ere eskaintza denon artean koordinatzeko».

### TOKI ADMINISTRAZIOA



**1. Tokiko Maparen Erreforma:** Udal eta kontzejuek, Nafarroako Gobernuak eta eskualdeek zein eskumen eduki behar dituzten eztabaidatzen ari dira, baita bakoitzaren zerbitzuak nola finantzatu behar dituzten ere. Horrekin batera, eskualdeak definitu nahi dituzte. Argi du «udalak eta kontzejuak mantendu behar direla», baina «eskualdea landu behar dela» uste du. Malerreka, Baztan eta Bortzirietako kasua jarri du mahai gainean: «hasierako planteamendua eskualde bakarra antolatzea da. Eskualdeak eta zerbitzuak hobeki antolatu nahi ditugu, ditugun baliabideak denen artean hobeki kudeatzeko». Erreforma hau lantzeko parte-hartze prozesua abiatua dute, zonaldeka eztabaidatu nahi dutelako. «Udaberri edo uda aldera dokumentu bat edukitzea gustatuko litzaiguke, talde politikoekin eztabaidan hasi eta lege proposamena egiteko».

**2. Tokiko Azpiegitura Plana:** Tamaina ttiki eta sakabanaketa geografiko handiagoko toki-erakundeen inbertsioak lehenetsi nahi dituzte. Plan honetan, 23 milioi euro aurreikusi dituzte erabakitze libreko inbertsioak egiteko, eta kontseilariaren hitzetan, «3.000 biztanle baino guttiago dituzten herrien alde diskriminazio positiboa eginen dugu». Azken urteetan laguntzak herri haundietara bideratu direla uste du, eta bere irudiko, «ttikietan bizitzeko zerbitzuak jarri behar dira, eta horretarako udalek baliabideak behar dituzte».

### LANDA GARAPENA

**1. Landa Garapeneko Programa:** 2014-2020rako Nekazaritza Politika Bateratuan Landa Garapeneko diru-laguntzak kudeatzen dituena da. Departamentuan sartu zenean, «onartu gabe» aurkitu zuen. «Aitzineko Gobernuak 2014an aurkeztu zuen, eta Europatik 300 moldaketa baino gehiago eskatu zizkieten. Gu horretan sartu ginen. Aldaketa gehiago eskatu zizkiguten, baina onartzea lortu genuen, guretzat hori zelako hasieran garrantzitsuena. Orain aldatzen ari gara eta hainbat partidetarako diru gehiago emanen dugu». Arlo batzuk gehiago landu nahi dituzte: «agro-giro eta klima neurriak, ekoizpen ekologikoa... Hain zuzen, ekologikoa bultzatzeko lantaldea osatu da INTIA enpresa publikoan (Nekazaritzako Elikagaien Teknologiak eta Azpiegiturak) eta aldi berean, hurbileko salmenta bultzatzeko urratsak ematen ari gara».

## Lekarozko Aroztegiko proiektua hizpide

# «Batzuk proiektuaren aurka agertu dira, bertzeak alde, baina aunitzek ez dute deus ere erran»



Promotoreak Lekarozko eremu honetan garatu nahi du proiektua.

Eztabaida haundia sortua du Baztanen Lekarozko Aroztegia aldean egin nahi duten proiektuak. Palacio de Aroztegia S.L. enpresak 45 hektareako eremuan landu nahi duen egitasmoak hiru zati ditu. Batetik, golf-zelaia eta golf eta lorazaintzako eskolak aurreikusi dituzte. Bertzetik, hotela, bainuetxea eta spa izanen litzatekeena, 135 logela bitarte eta 4 izarrekin. Hirugarren eremuan, 228 etxebizitza aurreikusi dituzte. Nafarroako Gobernuak afera hau Udalez Gaindiko Plan Sektorial (UGPS) bezala tramitatzea erabaki zuen eta zehazki, UGPS-ren kudeaketa Isabel Elizalderen departamentuari dagokio.

**Zein onura eta zein kalte ikusten dizkiozu Lekarozen egin nahi duten proiektuari?**
Beti erran izan dut Aroztegiko proiektuak gauza onak eta sobera gustatzen ez zaizkidan gauzak badituela. Garapen turistikoa [hotela, golf-zelaia, spa...] ona izaten ahal dela uste dut. Baztanen eta zonaldean turismoak garrantzi haundia du eta turismo on bat garatzeko horrelako proiektuak interesgarriak izaten ahal dira. Baina proiektua ez da hori bakarrik, garapen urbanistiko bat ere bada. Garapen urbanistiko hori, beharbada, sobera haundia da zonalde horretarako, baina ikusiko dugu garapen hori nola egiten duten. Faseka planteatua dago eta promotoreak erabakiko du egiten duen ala ez.

«Aroztegiko proiektuak gauza onak eta sobera gustatzen ez zaizkidan gauzak baditu»

«Legalki, proiektuak baldintza guztiak betetzen ditu»

«Gaia mahai gainean jarri eta berriz eztabaidatzeko aukerak beti hor daude»

**Nafarroako Gobernuak ezin du deus ere egin?**
Legalki, proiektuak baldintza guztiak betetzen ditu. Beraz, baldintzak betetzen baditu eta promotoreak bere proiektuarekin jarraitu nahi badu, egin dezake. Hala ere, horrelako gauzak mahai gainean jarri eta berriz eztabaidatzeko aukerak hor daude, beti ere, inplikatutako aldeak ados badaude.

**Herritarrak proiektuaren kontra agertu izan dira...**
Herritar batzuk kontra agertu dira, bertze batzuk alde, eta bertze aunitzek ez dute deus ere erran. Hori da benetan ikusten dudana, hori da errealitatea, eta adierazgarria da.

**Aroztegia eta gero zer plataformaren datuen arabera, Baztanen 800 etxebizitza baino gehiago daude hutsik. Hori horrela izanda, bateragarria iruditzen zaizu proiektu honek aurreikusia duen etxebizitza kopurua?**
Hori da mahai gainean jartzen ahal den kontua. Baina aldi berean, hainbertze etxebizitza hutsik egoteak bere garaian Baztanen bertze garapen urbanistiko garrantzitsuak izandu direla erran nahi du. Eta horren inguruko hausnarketa ere egin beharko litzateke. Baina kasu honetan, promotoreak proiektu bat egin du eta horrekin jarraitu nahi badu, aukera badu.



**Nire txanda**
Zuriñe ZUBILLAGA

# Hitza

Hitza ez da hitz soila. Hitza ez da objektuak izendatzeko sortu soilik. Ez da horretarako jaio. Hitza gizakiari zentzua emateko jaio da. Edo beharbada gizakia ez litzateke gizaki izango hitzik gabe. Elkar elikatzen dira biak, elkar zentzua emanez. Eta hitzak ez dira debalde. Eta hitzak ez dira inorenak. Ez dira jabe bakar batenak ere ez. Ahoa ireki bezain pronto egiten dute ihesi, baina ez ordainik gabe. Ahoa ireki bezain pronto bihurtzen da arduradun solasduna. Ez delako kasualitatea, ez delako aipamen hutsala egiteko jaio hitza. Hitza giltza da. Gure barnean dagoen ate pisutsua irekitzen duen giltza. Batzuetan atearen beste aldea ilun dago, batzuetan hautsez beterik. Eta hitzek ez dute beti solasten, batzuetan garrasi ere egiten dute. Eta zenbaitetan negar. Negar, inork ez dituelako ikusten, inork ez duelako atea irekitzen duen giltza erabili nahi.

«Ahoa ireki bezain pronto egiten dute ihesi, baina ez ordainik gabe»

**Ezpala**
Aitor AROTZENA

# Guatsap talderik gabeko aroa

Aitonak gerra garaiko pasadizoak kontatzen zizkigun, aitak soldaduska denborakoak… eta guk, zer kontatuko diegu gure seme-alaba eta bilobei? Gazte denboran guatsap talderik ez genuela! *Bai zera, brometan ariko zara!* erantzunen digute, begiak zabal-zabal eginik, solfeo, futbol, ikasgela, lehengusu, koadrilla eta pintxopote taldetako mezuak *ping-ping-ping!* ari diren bitartean.

## Nabarmentzekoak



**Joxelu IRATZOKI**
Igantziko kopilotoa

Urdazubiko Kontrabandisten I. Rallysprintean nagusitu zen, Joseba Beola etxalartarra gidari zuen autoarekin. Kopilotoen sailkapen orokorrean, halere, Nafarroako onena izan da.



**Alex MUGIKA**
Leitzako sukaldaria

Leitzarrak aurkeztutako 'Oilarrak madrildar erara' pintxoa azpitxapeldun izan da azaroaren 8an eta 9an Valladoliden jokatutako Espainiako tapa txapelketaren hamabigarren edizioan.



**Fernando ETXEGARAI**
Berako kirolaria

Joan den urtean bezala, Nafarroako txapeldun orde izanik parte hartu du Euskadiko koxkor biltze txapelketan eta iaz bezala, txapela lortu du. Euskadiko hamargarrena du.

**Atzera begira** ➜ **2006-XI-30** TTIPI-TTAPA 435 zk.



## Goizuetako Gaztetxea 15. urteurrena ospatzen

Duela hamar urte, 15. urteurreneko ospakizunetan zebiltzan Goizuetako Gaztetxean, *15 urtez herriari bizia emanez* izenburupean. Urte osoan hilabetero ekitaldiren bat antolatu zuten eta azaroaren lehen larunbatean egin zuten ospakizunik handiena. Ibai Zubiri Goizuetako gaztetxeko dinamizatzaileak TTIPI-TTAPAri aipatu zionez, «herriko koadrila guztiak gaztetxetik pasatzen dira eta elkarren arteko harremana asko hobetu da Gaztetxeko lanari esker». Udalarekin zuten harreman ona ere azpimarratu zuen: «Udalak lokala uzten digu eta gero dena autogestioaren bidez eramaten dugu, tabernan ateratzen dugunarekin».

ttipi-ttapa

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • **info@ttipi.eus**

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

CC BY SA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

**2016ko harpidetza sariak**

| | |
|---|---|
| Baztan, Urdazubi eta Malerreka | 34€ |
| Leitza | 20€ |
| Hego Euskal Herria | 40€ |
| Ipar Euskal Herria , Europa | 74€ |
| Amerika eta Australia | 124€ |

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

mecna

Kolaborazioak

# Kultur ondarea

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Urriaren 20an jakin genuen, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuela, Kataluniak 2010ean zezenketak debekatzeko hartutako erabakia. Azalpena zera izan zen, Kataluniak baduela bai, Kataluniako aferei buruz erabakitzeko eskumena, baina, zezenketen gaiaren inguruan ez, gai horretan soil-soilik Espainiak omen du eskuduntza debekatzeko edo baimentzeko zezenketak, eta argudioa honako hauxe izan zen, alegia, zezenketak Espainiako Ondare Kulturala direla, hau da, Jai Nazionala.

Gaur egun, munduko edozein herrialde zibilizatu eta demokratikotan jende gehienak onartzen du pertsonak animaliak ere bagarela, nahiz eta adimendunak izan, omen. Beste alde batetik, ea nor ausartzen den esatera animaliek -handienek behinik behin- ez dutela sentitzen. Guztiz nabarmena da, guk ezagutzen ditugun animaliak noiz dauden pozik, alai, triste, gaixorik, estresatuta, oinazez, lasai, gozamenez, urduri, eta abar. Gutxi gorabehera, pertsonak bezalatsu.

Baina, hara non, gure gizarte honetan berean pertsona batzuk oraindik gozatzen dute beste animalia batzuk urduriarazten, estresarazten, zauritzen, torturatzen, sufriarazten eta hiltzen. Giza jokamolde honek ez du ematen oso zibilizatua denik, baina Euskal Herrian ere jende asko dago oraino bat egiten duena mota horretako praktikekin, eta hortxe ditugu, konparaziora, Iruñeko, Bilboko, Gasteizko, Donostiako, Baionako eta abarreko zezenketa sonatuak.

Euskal Herrian, azken hamarkada hauetan, pixkanaka ahalegin handi samarra egin da, hainbat eta hainbat joko lotsagarri gutxitu, baztertu eta kentzeko, esaterako, antzara jokoak, oilar borrokak, ahari talkak…

Hemengo edozein herri edota hiritan, topatuko bagenu pertsonaren bat txakur edo katuren bat gaizki tratatzen kalean, adibidez, ostikoak ematen edota isatsa zapaltzen, seguru nago denok gaitzetsiko genukeela pertsona hori. Animalia batek -pertsona batek, kasu honetan- nola goza dezake beste bat gaizki tratatuz, denen aurrean, pentsatuko genuke gehienok, ziur asko. Alabaina, zezenekin ezberdin omen da. Zezenketak Espainiako Jai Nazionala eta Kultur Ondarea direnez gero, han, plazan, zezenek ez omen dute sufritzen, alderantziz, horretarako jaio omen dira, plazan, ikusle guztien aurrean, beren ausardia eta suhartasun osoa erakusteko, hau da, gozamenaren gozamenez orgasmoa lortu arte. Gainera, zezenketa zaleen arabera, horri esker irauten omen dute bizirik zezenek.

Izan ere, une batez, pentsa dezagun zeinen pozgarri eta atsegingarria izan behar duen zezen batentzat, jendez beteta eta iskanbilaz borborka dagoen plaza batera atera, eta hil arte gozatu odolustuz, lantzaren zanpatekoekin, banderilen takatekoekin, ezpataren zartadekin eta sastakaiaren eztenkadekin. Bai jaun-andreok, gozamen hutsa! Egundoko plazera!

Hamaika ikusteko jaioak gara! Ala oso espainiar sentitzen ote gara?

OSASUNEZ

# Zer egin katarroari aurre egiteko?

Marcos RUIZ ARELLANO
(Doneztebeko Famili Medikua)

Uda amaitu da eta ikasturteari ekin diogu. Eguraldia hoztu da eta haurrak geletara itzuli dira. Eta honekin batera katarroaren birusak ere itzultzen dira. Lerro hauetan kontatuko dugu katarroak zer diren, nola prebenitu eta zer egin edukiz gero .

Dominatikuak, eztula, mukiak, sudurreko zanbra, zintzurreko eta buruko mina....

Sintoma hauek ezagunak dira. Batzuetan sukarraren dezimaren bat edo bertze bada.

Horrela gertatuz gero, lasai egon behar dugu. Katarro bat da eta sendatuko da berez, aste bat edo bitan.

Saiatuko gara atseden hartzen. Ura, zukuak edo infusioak edanen ditugu mukiak mehetzeko eta sudurra eta zintzurra heze mantentzeko. Ez erretzea beti ona da eta hobea katarroa izanez gero.

Zintzurraren molestiak eta eztula arintzeko goxokiak miazkatzen ahal ditugu eta sudurreko kongestioarentzat dutxa bero bat edo lurrunak egitea lagungarria da.

Paracetamolak hobetuko du katarroa, baina antibiotikoek ez dute eraginik izanen. Oroitu katarroa birus batek sortua dela, eta antibiotikoek ez diotela deus egiten.

Sudurreko kongestioaren kontrako botikak erabili ahal dira, baita suero fisiologiko edo ur gazia ere.

Eztula beharrezkoa da mukiak aterarazteko eta ez du komeni desagerraraztea. Deserosoa bihurtzen bada, jarabe bat har daiteke.

Katarroa larria ez den prozesu bat izan arren, erne egonen gara konplikazioak agertzen badira. Adi egon sintoma hauekin: arnasa hartzeko zailtasuna edo bularreko edo saihetseko mina izatea; sukar handia agertzea; belarri batean mina edo zikin-isuria izatea edo sintomak hamar egun baino gehiago irautea. Zalantzarik gabe, erneago egon beharko dugu bronkioetako gaixotasun bat duten pertsonekin.

Prebentzioak garrantzia dauka. Eskuak maiz garbitu xaboia eta urarekin. Paperezko mukizapiak erabili eta ahoa eta sudurra estali dominstiku edo eztula egitean.

Oroitu katarroak maiz agertzen direla eta egun gutxietan sendatzen direla. Atseden hartu, ur aunitz edan eta zure erizainari galdetu zalantzaren bat baduzu.

**NEGU ONA PASA!**

**Irakurleak mintzo**

# Nire lagun onenari eskutitza

Ainara MAIA URROZ

Otoi, eutsi nazazun behar dudala jakitea soilik nahi dut, nahiz eta erran ez dizudan eta batzuetan behar ez zaitudala erran badizut ere.

Baliteke une honetan zuri laguntza eskatzeko gai ez izatea, aski harriturik nagoelako eta ulertzen ez dudalako, baina behar dut jakin beti hor zaudela.

Jakin behar duzu ez dudala espero zuk ni ongi sentiaraztea, ezta nire pena desagerraraztea ere. Une honetan inork ezin du.

Lasaitzen lagun diezadazun behar dut, nire mina onartu eta niri laguntzeko ezer egin ez dezakezula aitortu.

Ezin badidazu deitu ezin duzulako nire mina jasan edo nirea jasan ezin baduzu, erradazu. Nik ulertuko dut, baina ez jarri aitzakiarik. Espero dut nire haserreak ulertzea eta barkatu nire bat-bateko ateraldi tristeak.

Ez zara zu eta bertzeak ere haserretzen nautenak. Gehien maite ninduen gizona, Joakin Cia Oteiza, betiko galdu dudala jakitea da.

Ez itzazu nire malkoak ekidin. Zuretzat gogorra izan daiteke ni negarrez ikustea, baina osasungarria nire pena pixka bat adierazteko.

Niretzat negar egitea ona dela aitortzen dizut, horregatik negarrez ikusten banauzu nire ondoan esertzen saia zaitez eta zure ondoan negar egiten utzi, hori oso kontsolagarria izanen zait. Ez saiatu konparatzen nire galera bertze okerrago batzuekin. Nire pena neure-neurea da.

Ez iezadazu erran, otoi, gertatu zena gertatu behar zuelako izan zela edo “Jainkoak nahi izan zuelako”. Hori entzuteak ez nau kontsolatzen une honetan eta nahasmena soilik sortzen dit neuregan.

Ez erran era berean “gerta zitekeen onena gertatu zela” zeren eta badakit ez dela hala. Ez erran “imaginatzen duzula nola sentitzen naizen”. Inork ezin du. Edozein kasutan ere, otoi, galde iezadazu nola sentitzen naizen gaur eta ni saiatuko naiz kontatzen.

Ez erran hau atzean uzteko, ahazteko eta nire bizitzarekin aurrera segitzeko. Hau da ene bizitza. Eta uler iezadazu ezin baditut konpartitu bizitzen ari zaren une zoriontsuak. Nahiko nuke. Nirekin zerbait egin nahi baduzu, enkontru zehatzak proposa iezazkidazu: bazkari bat, etxeko lanen bat, ordu libre bat. Ni minduegi nago gaurtik haratago pentsatzeko edo programa erakargarri bat erabakitzeko.

Dolua egin behar dut, badakizu. Ni izan beharra dut, eta “ez ahantzi” behar dut. Bakean oroitzeko modua egin behar dut.

Besarka nazazun eskatzen dizut, ilea uki diezadazun, eta zurekin konta dezakedala erran diezadazun. Zain nazakezula eta bide honetan lagundu nahi didazula. Malkoen bide antzua. Azkenean, adiskide maitea, ene dolua etenik gabe onar dezazun eskatzen dizut eta nire sufrimendua onar dezazun.

Nik beti oroituko dut eskaini zenidan maitasun sendatzailea.

Gabon pasa, eta betiko lo eta atsedena har dezazula, maite amets zoragarriak izaten segi dezazula nirekin mutil gozoa eta nitaz maitemindute dagoena.

Zu faltan botatzen zaitut egunero, nik ere maite zaitudala seguru nago eta Hondarribian pasatutako arratsaldea, Guadalupeko ibilaldia eta geroko afaria elkarrekin faltan botatzen ditut; egun horretan ni ere munduko emakumerik zoriontsuena izan nintzen zurekin nengoelako eta egun hori nahi nuke berriro errepikatu behin eta berriro zurekin betiko.

Badakit ni naizela bizi honetako zure bikote definitiboa. Denbora pasa eta gero badakit eta ziur nago MAITE ZAITUT, Joakin, eta beti hala izango da.

Urteak pasa eta ez zaitut nire burutik atera, urtero joaten nintzen Oitzeko bestatara eta ez zintudan aurkitzen, baina aurtengo irailean bai, eta orain beti hor geldituko zara.




**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

## Prentsatik bildutakoak



«Logroñoko enpresari bat etorri zitzaidan esanez harrituta gelditu zela kantu bazkaria ikusita. Handik gutxira Logroñora gonbidatu ninduen kantu bazkari bat antolatzera biltzekoak ziren 26 herrialdetako enpresarientzat. Jaiona Olazabal kantariarekin joan nintzen. Sei kanta eman genituen euskaraz eta bat erdaraz. Denak dantzan paratu genituen poz-pozik».

**Angel MARIEZKURRENA**
Kantu bazkari antolatzailea
ARGIA 2016.11.06



«Baztango herritarren eta haien interesen alde eginiko deklarazioengatik epaituko naute. Nire kontrako hirugarren salaketa da hau, eta horrek agerian uzten du auzia pertsonalizatu nahi dutela».
«UPN, PSN, PP eta Geroa Bai libre dira kapitalaren interesen esanetara jartzeko, baina gu ere libre gara herritarren eskubideak defenditzeko».

**Garbiñe ELIZEGI**
Baztango alkate ohia
BERRIA 2016.11.08

## 11 galdera labur

**Nor da Ainhoa Azpiroz?**
Berastegin jaio eta Leitzan bizi eta lan egiten duen estetizista eta hiru umeren ama naiz.

**12 urte daramatzazu Leitzan bizitzen. Ondo beharrean, hasi zara ongi esaten?**
Leitzan batzuetan ateratzen zait baina Berastegira joaten naizenean ez. Egia da, Leitzako hizkera erraz hartzen dela.

**Zein afizio dituzu?**
Kirola asko gustatzen zait; bizikleta, mendia eta korrika eta gurutze-puntua.

**Hiru kirol aipatu dituzu. Hiruetan aritzen zara?**
Gazte denboran asko ibili naiz bizikletan. Gero umeak izandakoan denbora askorik ez nuen eta korrika hasi nintzen. Eta orain berriz aukera daukat bizikletan gehixeago ibiltzeko.

**Zer ematen dizu kirolak?**
Energia asko eta askatasun handia.

**Zer da Bizikume zuretzat?**
Asko eman dit. Jende pila bat ezagutu dut eta anbiente oso onean bizikletan ibiltzeko aukera ematen dit. Ah eta zerbeza limoiarekin edaten ere ikasi dut beraei esker.

**Entrenatzeko gustuko toki bat?**
Leitza eta inguruko mendiak.

**Leitzulian parte hartu duzu zer nolako esperientzia izan da?**
Oso polita, pila bat disfrutatu nuen, nire erritmotik atera gabe. Antolakuntzan aritutakoek hamarrekoa merezi dute. Gainera Leitzan aritzea berezia izan zen, jende guztiak *Aupa Ainhoa!* animatzen ninduen.



**Bete nahiko zenukeen erronka bat?**
Bizikletan Soplao gustatuko litzaidake egitea eta korrika Orreaga eta Zubiri arteko lasterketa egingo nuke.

**Zerk egiten zaitu zoriontsu?**
Ingurukoak pozik ikusi eta kirola egiteak.

**Amets bat?**
Norbegiara bidaiatzea eta zahartuta hiltzea.

**Ainhoa AZPIROZ ➜ Leitzan bizi den berastegiarra**















# BERA

**GIZARTEA** ➜ AZAROAREN 27AN

## Bigarren eskuko merkatu ttikia antolatu du aurten ere Labiagak

Edozeinek jar dezake postua kiroldegiaren atarian, 10 euro ordainduta

**TTIPI-TTAPA**

Azken urteetan izandako harrera ona kontuan hartuz, bigarren eskuko merkatu txikia antolatu du aurten ere Labiaga ikastolak azaroaren 27rako. Igande horretan, 09:00etatik 15:00etara jartzen ahal dira postuak, Toki Ona kiroldegiaren aitzinean edo, euria eginen balu, Altzateko frontoian. Postua jartzeko interesa dutenek ikastolara deitu behar dute (948 630172 telefonora), 09:00etatik 12:00etara eta 10 euro ordaindu beharko dute.

Merkatu txiki irekia izanen dela azpimarratu dute ikastolatik, beraz, «etor zaitez soberan duzuna saltzera edo zure gustokoa den zerbait prezio ezin hobean erostera!».



UTZITAKO ARGAZKIA

### Hendaiako Antzerki taldea Zahar Etxean eta jubilotekan

Urriaren 24tik azaroaren 3ra arte *Compagnie des Vents et Marées* Hendaiako antzerki konpainiak egonaldi bat izan du kultur etxean. Egonaldi honen barrenean, hiru mediazio saio izan dituzte San Jose zahar etxe eta Jubiloteka zerbitzuko lagunekin memoria solasgai hartuta. Antzeko saioak izanen ditu konpainia honek Euskal Herriko Hendaiako Mendi zolan espazioan eta Zizur nagusian, adin ezberdineko pertsonekin. Ekimen hau Donostia2016ko Mugalariak izeneko programaren barrenean dago. Programa honetan Euskadi, Nafarroa eta Akitaniako kultur espazioen eta konpainien arteko elkarrekintza sustatu nahi du. Nafarroakoak 3 ordezkari izan ditu: Atarrabia (Ados teatroa konpainiarekin) eta Zizur nagusia eta Bera, biak konpainia berarekin (Compagnie des Vents et Marées). Sormen prozesu hauek guztiak eta bestelako esperientziak oinarri hartuta, konpainia memoriari buruzko Origenes izeneko antzezlana prestatzen ari da eta Iruñeko Gayarren estreinatuko du 2017ko martxoan. Bertze aldetik, Elkarrizan taldearen eskutik, heriotz duina eta eutanasiaren inguruko hitzaldia eskaini zuen Manu Eciolaza medikuak azaroaren 14an Beralandetan. 90 bat lagun bildu ziren, saio aberasgarri eta eztabaidagarrian parte hartzera.

## FLASH

### Haurrentzako ipuin kontalaria

Ines Bengoa haurrentzako ipuin kontalariaren *Munduko ipuinak* aditzeko aukera izanen da azaroaren 25ean, ortziralean 18:00etan herri liburutegian. 4-8 urteko haurrei zuzendutako emanaldia da.

### Irurtzungo Abesbatza Nafarroako Egunean

Nafarroako Egunaren ospakizunen baitan, Irurtzungo Abesbatzak emanaldia eskainiko du abenduaren 3an, larunbat goizeko 11:30ean Altzateko San Antonio elizan. Nafarroako Gobernuak antolatu du emanaldia.

### Ugandako gospel musika Aba Taano taldearekin

Ugandako umezurtzetxe batean sortutako Aba Taano gospel musika taldeak emanaldia eskainiko du abenduaren 7an, asteazkenean 18:00etan San Esteban elizan. Sarreran borondatea eskatuko da, biltzen duten dirua aipatutako umezurtz-etxe horretara bideratzen baitute.






**GIZARTEA ➜** 80.000 EUROKO AURREKONTUA

# Eztegara pilotalekuari larrialdi irteera berriak egiten ari zaizkio

900 lagun sartzen ahalko dira, segurtasun neurri guztiak betez

**TTIPI-TTAPA**

Eztegara pilotalekua egokitzeko proiektuaren 2. faseko lanak esleitu ditu Udalak. Inguruko 4 enpresa gonbidatu ondoren Igantziko Talotxa eraikuntza enpresak egin du eskaintzarik onena. Lanen aurrekontua 80.000 euro ingurukoa da eta larrialdietarako irteera berriak egitea izanen da zeregin nagusia.

Irteera berri bat eginen zaio goitiko aldeko harmailari frontiseko aldetik eta bertze larrialdietarako irteera bat, errebotetik karrikara atera ahal izateko. Irteera berri hauekin frontoiaren gehienezko okupazioa aunitz igotzea lortzen da eta behin proiektuko lan guztiak bukatuta, 900 lagun inguru sartu ahal izanen dira frontoian segurtasun neurriak betez. Lanak urtea bukatu baino lehen eginak izatea espero da.

## Ba al zenekien

**Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira elkarretaratzea eginen dela azaroaren 25ean, ortziralean 19:00etan Mukixu zubian**



UTZITAKO ARGAZKIA

## Musikarien omenaldia Matias Irazoki zenari

Zizkuitz txarangak eta Berako eta inguruko bertze musikari batzuk Matias Irazoki zenari omenaldia eskaini diote azaroaren 12an, kontzertu batekin. Matiasen alargunarekin eta familiarekin batera, hainbat lagun bildu ziren Berako Xuga ostatuaren atarian. Richar Abrilek aurkeztu zuen kontzertua eta lehenbizi, ohorezko aurreskua dantzatu zuen Jon Zelaietak. Kontzertuaren ondotik, oroigarri-koadro bat eman zioten musikariek Matias Irazokiren alargunari eta gero, Matiasen bizitzari buruzko bideo hunkigarria eskaini zuten Xugan.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Kuadrillen arteko I. GoitiBera lehiaketa euripean

Berako I. Kuadrillen arteko Goitibera lehiaketa egin zuten azaroaren 5ean, Mitxinborda eta Matzada artean. Eguraldia kontuan hartuz, jendetza polita bildu zen jautsiera ikustera, baita parte hartzera ere. Probaren ondotik, goitipoteobehera egin zuten herrian zehar, goitibehera guztiekin eta arratsean afaria eta sari banaketa Iamotenean. Goitibehera bestak afalondoan ere segitu zuen.

BERAn -%20
ABENDUAK 2 eta 3 09:30-13:30 | 16:30-20:00
ARTURO | MARTZUTZAK | ZELA KIROLAK

# LESAKA

**GIZARTEA** ➜ «MARROI EDERRA DUGU ETA HAGITZ BERDE GAUDE» GOIBURUPEAN, AZAROAREN 21ETIK HASITA

## Materia organikorako edukiontzi marroia paratu dute

EH Bilduren ustez ez da informazio aski eman

**Aitor AROTZENA**

Azaroaren 21etik martxan da herrian materia organikoa bereiz biltzeko edukiontzi marroi berria, bosgarren edukiontzia. Edukiontzi hau herrigunean dauden edukiontzi puntu guztietan gehitu da eta Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak izena eman duten familiei banatu dien txartel pertsonalizatu baten bitartez ireki daiteke. Aipatu bezala, astelehen honetan eman zaio hasiera kanpainari, *Marroi ederra dugu eta hagitz berde gaude!* goiburupean, edukiontzi berde eta marroiari erreferentzia eginez, hemendik aitzinera jada ezin izanen delako materia organikoa edukiontzi berdean sartu. Joan den aste osoan izan ziren informazioa ematen eta txartelak banatzen Mankomunitateko teknikariak plazan jarritako karpan eta feria egunean ere herrian izanen dira.

**EH BILDUREN OHARRA**

EH Bilduri ez zaio iduritu behar den moduan egin denik, «ez baita apenas informaziorik eman sistema horren inguruan, eta ez dira azaldu ze estrategia jarraituko diren, ezta zein helburu lortu nahi diren ere». Halere, lesakarrak animatu nahi dituzte ahalik eta gehien birziklatzera, «bi arrazoi nagusirengatik: horren alde gaudelako; eta, Iruñetik agindu bat ematekotan direlako, gutxien birziklatzen duten herriek tasa handiagoak ordaintzeko. Hortaz, ez badugu zaborra ongi bereizten, hemendik urte batzuetara gure sakeletatik gehiago ordaindu beharko dugu».

Aldi berean, auzokonposta ez kentzeko eskaria ere egin du EH Bilduk.

**Ba al zenekien ?**

**Ugandako umezurtz-etxe batean sortutako Aba Taano gospel taldeak emanaldia eskainiko duela abenduaren 6an. 18:00etan San Martin elizan**



ARGAZKIA: JON MARTINEZ

Azaroaren 12an inauguratu zuten Nafarroa Oinezeko denda, Bittiria 26an.

**AZAROAREN 27AN HARRIONDOAN**

### Nafarroa Oinezaren aurkezpena herrian ere

2017ko urriaren 15a urrun dagoela dirudi, baina heldu den urteko Nafarroa Oinez horren antolaketan urratsez urrats segitzen du Tantirumairu ikastolak. Azaroaren 3an Iruñean egindako aurkezpen ofizialaren ondotik, hilaren 12an Bittiria 26an kokatu duen Oinez Dendaren inaugurazioa egin zuten. Elutxa txarangarekin kalejiran joan ziren dendaraino eta irekiera ekitaldian alkateak ere parte hartu zuen.

Igande honetan, azaroak 27, Nafarroa Oinezen eskualdeko aurkezpena eginen dute. Harriondoa Kultur Etxean bi saio eginen dituzte, 16:30ean eta 18:30ean, arropa eta material desfilea eta guzti.

**FLASH**

**Fiare banku etikoaz solasaldia**

Fiare banku etiko, kooperatibo eta herritarrari buruz hitzaldia antolatu du Bidazik azaroaren 25an, ortziralean 19:00tan Matxinbeltzenean.

**La zapatera prodigiosa**

Herriko Sasoia antzerki taldeak Federico Garcia Lorcaren *La zapatera prodigiosa* antzezlana eskainiko du abenduaren 2an, ortziralean 20:00etan Harriondoan. Sarrera: 6 euro.

**Zerbitzuen Elkarteko tonbola**

Zerbitzuen Elkarteak antolatutako tonbola azaroaren 26an, larunbatean 19.30ean hasita eginen da plazan.



ABELTZAINTZA ➜ ESTATU MAILAKO LEHIAKETA BATEAN

# Maittoko Mikel Irigoienen zerri granjak brontzea

## Gironako Bic hirian jaso zuen saria

**Irune ELIZAGOIEN**

Azaroaren 4an Gironaondoan dagoen Bicera joan zen Mikel Espainia guztiko bertze 800 bat lagunekin batera urtero ospatzen den sari banaketa honetara. Zerri bakoitzak lehenengo umealditik azken umealdira arte zenbat ume egin dituen saritzen dute bertan. Mikelek 80 zerri inguru izanik eta kontutan hartuta bakoitzak 2 umealdi egiten dituela urtean, 30 bat zerrikumeko media dauka zerri bakoitzeko. Ez da lehenengo aldia sari hau eskuratu duena; orain dela hiru urte ere brontzearekin etorri baitzen etxera. Zorionak eta segi horrela!

### Larraburukoak

Aurten ere azaro eta abenduan sukaldaritza ikastaroa izanen da Iñaki Pikabea sukaldariarekin. Larraburuko bazkide ez direnentzat ere irekita egonen da ikastaroa. Izena emateko 948635166 telefonora deitu behar da.

Bestalde, Carlosek hitzaldia eskainiko du Larraburuan etxe, kutxazain, auto eta abarretako lapurreten inguruan. Azaroaren 26an izanen da, arratsaldeko 5etan eta interesa duen oro gerturatu liteke.



ARGAZKIA: MIKEL IRIGOIEN

Herriko abeltzaina, gustura saria jaso ondotik.

AZAROAREN 11N EGIN ZEN LEHIAKETA

## Usategietako gastronomia

Gastronomia lehiaketa ospatu zen Usategietan azaroaren 11n. Urrezko paleta Elizondoko Santxotenarentzat izan zen, zilarrezko paleta Arantzako Aterpearentzat eta berrikuntza saria Berako Lenkonea Churrutentzat. Usazaleen aldeko zozketa ere egin zen: Lehen saria 2227, bigarrena 1770 eta hirugarrena 1183. Lehen biak agertu gabe daude oraindik (690267756 telefonora deitu).



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

### Xorroxin Irratia Landagain eskolan

Azaroaren 8, 9, eta 10 ean Xorroxin irratia izan zen Landagain eskolan. Teknikari eta aurkezleak LH6.mailako ikasleak izan ziren eta gainontzeko ikasleak asmakizunak, txisteak, elkarrizketak, abestiak… eskaini zituzten. Bi urtetik behin egiten den ekintza honetan ikasleek aunitz gozatzen dute eta eskertu egin nahi dute asmakizunen tartean herriko jendeak izan zuen parte hartzea.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

### Altxata elkartearen 25. urteurrena

Azaroaren 5ean ospatu zen Altxata kultur elkartearen 25. urteurrena. Arratsaldean elizan Aitor Furundarena eta Garikoitz Mendizabalekin *Bi Poliedro* ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek. Baita Xabier eta Aner Euzkitzeren kantaldiarekin belarriak goxatzekoa ere. Ondotik bertso afaria izan zen Herriko Ostatuan eta 60 lagun baino gehiago elkartu ziren giro ederrean.









# ARANTZA

**GIZARTEA** ➜ AZAROAREN 25AREN HARIRA

## Antzerkia ikusgai izanen da ortzirale honetan

Eskolako gimnasioan izanen da hitzordua

**Nerea ALTZURI**

Azaroaren 25ean, Emakumeeganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. Egun hori eta gainerako 364 egunak. Baina egun hori gogoan, antzerki bat ikusteko aukera izanen da herrian.

Esther Carrizo Berako Uhartean eskolako clown antzezlearen eskutik, *Susanaren Iraultza* izeneko ikuskizuna izanen da, ortziralean, 19:30ean, eskolako gimnasioan. Emakume eta gizonen artean dagoen desoreka aztertuta, Susana pailazoak bere bizipenak gurekin partekatuko ditu ekintza, emozio, kantu… eta halako adierazpenen bitartez.

### Eskolako berriak

Eguberriei begira, urtero bezala, antzezlanak prestatzen hasi dira eskolako lagunak. Guraso eta herritarrentzat abenduaren 20an izanen dira emanaldiak. Abenduaren 21ean, aldiz, antzerki topaketak eginen dituzte, eta Etxalar eta Igantziko ikasleak lanak ikustera etorriko dira eskolara. Eta Eguberrietako oporrak hartu aitzinetik, abenduaren 22an Mari Domingiren bisita izanen dute.

Bertzalde, eskolatik jakinarazi dutenez, klaustroak Montessoriren pedagogiaren inguruko ikastaroa egin berri du urrian, Estitxu Elgorriaga eta Ainhoa Larretxearekin, eta hagitz balorazio positiboa egin dute. Eskolako web orriaren (*sites*) berri ere eman dute. Bilatzailean, *Arantzako Herri Eskola* paratuta ikastetxearen nondik norakoak aurkitu ahal izanen dituzue.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

### Paris 365 Fundazioarentzat 3.840 kilo elikagai bildu dira

Joan den azaroaren 11n egindako janari bilketa hagitz ongi atera zen. Arantzan eta Igantzin, guztira 3.840 kilo bildu ziren, iaz baino gehiago. Bi herrietan elkartu ziren laguntzaileek paketeak sailkatu eta kaxetan paratu zituzten eta guztia kamioian kargatu zuten Iruñera eramateko. Paris 365 taldeak berriz ere eskertu nahi izan ditu janaria ekarri dutenak eta kanpaina antolatzen lagundu dutenak.

**ABENDUAREN 30EAN**

### Burlada ostatu-jatetxearen 50. urtemuga

1966ko abenduaren 31n zabaldu zituzten Kalkoetxea etxean Burlada ostatu-jatetxeak ateak. Tomas Burlada eta Presentacion Arozenak abiatu zuten zerbitzua duela 50 urte. Gaur egun, Esther alabak eta bere bi semealabek segitzen dute eguneroko lanarekin. Urtebetetzea ospatzeko, abenduaren 30ean, hainbat ekimen prestatu dituzte. 17:00etan herri-kirol saioa izanen da, arpanlariekin eta aizkolariekin. 18:30etik 21:00etara pintxoak eta tragoxkak hartzeko aukera izanen da dohainik. Afalondoan, Txamukos taldeko Beñat Mitxelena herriko akordeoilaria eta Fernando Otano kantariaren emanaldia izanen da. Sorpresak ere izanen dira. Burlada jatetxetik hurbiltzeko gonbidapena egin dute. Zorionak 50. urtebetetzean!

### Frontoiaren erabilera

Astelehenetan izaten dute pilota eskola herriko haurrek, 16:00etatik 19:00etara frontoian. Bada ordu horietan, maiatzera arte, ikastaroan parte hartzen dutenentzat izanen da frontoia. Gainerakoek, nahi izanez gero, Herriko Etxeko Gorapea edota eskolako aterpe berria erabili ditzakete.



### Zilarrezko paleta Aterpera

Etxalarko Usategietan egindako gastronomia lehiaketan, bigarren gelditu ziren Aterpekoak. Zorionak!

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK- ETXETRESNAK
Erakusketa Bereau etxean
BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Erakusketa: Bereau Etxea LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

Alberto RETEGI
abokatua
✆ 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

iRU BiDE
Erretegia · Asador
Biurrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

**OSPAKIZUNAK** ➜ ABENDUAREN 8TIK 11RA

# Abenduko Kultur Eguneko ekitaldi ugariak prest ditu Euskara Batzordeak

## Abenduaren 8an ajoarriero lehiaketa ere antolatu du Biltokik

**TTIPI-TTAPA**

Euskara Batzordeak prest ditu dagoeneko aurtengo abenduko kultur egunak. Programa oparoa prestatu du batzordeak, eta herritarrei dei egiten die ekitaldietan parte har dezaten.

Azken urteotan egin bezala, Igantziko Biltoki arduratu da abenduaren 8ko ekitaldien antolaketaz. Ortzegun eguerdian hasita, toka txapelketa izanen da frontoian. Ordu berean, frontoian bertan, ajoarrieroa prestatzen hasiko dira lehiaketan izen eman dutenak. Ondotik, 13:00ak aldera, ajoarrieroa dastatzeko aukera izanen da, eta zozketak eta sari banaketak eginen dira. Arratsaldeko 6:30etik aitzinera, opil jatea izanen da frontoian bertan.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Paris 365 Fundaziorako janari bilketa**

Azaroaren 11n egindako janari bilketa hagitz ongi joan zen. Arantzan eta Igantzin, guztira 3.840 kilo bildu ziren, iaz baino gehiago. Argazkian, herrian bildutako boluntarioak ageri dira, Iruñerako kamioia kargatzen.

Abenduaren 9an, ortziralean, bigarren urtez, haur eta adinekoen arteko joko topaketa eginen da, 16:30etik aitzinera, Baratzondon. Topaketa honen helburua da herriko haurrak eta adinekoak elkartzea, eta adinekoek gazteei garai bateko jokoak erakustea haurrei. Ondotik, 18:00etan, bertan gaztain jatea izanen dute. 19:00etan, *Gutik Zura* dokumentalaren emanaldia izanen da, Eskolzarren. Dokumental hori aurtengo Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten Jon Maia eta Mari Jose Barriola zuzendariek, eta euskal herritarrek historian zehar gaur egunera arte zurarekin izan duten harremanaren berri ematen du. Barriola zuzendaria bertan izanen da, dokumentala aurkezten.

22:30ean, Oihan Vegaren *Euskararen espektakulue* izeneko monologoa izanen da, Baratzondon.

Abenduaren 10ean ere, haurrentzako ekitaldiak izanen dira Baratzondon. Arratsaldeko 4etan hasita, Tor Magoarekin tailerra izanen dute, eta hainbat trikimailu ikasi ahal izanen dituzte. Ondotik, Tor Magoaren emanaldia izanen da. Bukaeran, 6:00ak aldera, txokolatea banatuko dute. Arratsaldeko 7etan, Oihana Txoperenarekin solasaldi bat izanen da Eskolzarren, *Nire ibilbidea fisikaren eskutik* izenburupean. Oihanak aurtengo apirilean defendatu zuen bere tesia Euskal Herriko Unibertsitatean, eta herritarrei bere esperientziaren berri emanen die. Gaueko 9etan, antzerki emanaldia izanen da Baratzondon. Nomofobikak taldea etorriko da, *Sarean kateatuak* lanarekin. Nomofobia aitzakiatzat hartuta, hiru emakumek ikusleekin batera terapia bati eginen diote aurre.

Abenduaren 11n, igande eguerdiko 12etatik aitzinera, herriko dantza taldeak emanaldia eskainiko du, herrian barrena.

Kultur egunei bukaera emateko, arratsaldeko 6etan Lesakako Hiruklun antzerki taldeak *Vini, Vidi, Vinci* antzezlana eskainiko du.









# SUNBILLA



ARGAZKI: BIXENTE IBARRA
Herritarrak Behobia-Donostia lasterketan.



ARGAZKI: NEREA PETRIRENA
Herriko kobukai ikasleak, beraien irakasleekin, hilabete hasierako kobukai topaketan.

**KIROLA** ➜ ARTE MARTZIALEN ERAKUSTALDIA HERRIAN, KORRIKA ETA BIZIKLETA

## Kirolez kirol indartsu dabiltza herritarrak




Kobukai arte martzialen topaketa egin zen frontoian

**Maider PETRIRENA**

Kirol kontuek zer erran eta zer idatzi ematen segitzen dute azken asteotan.

Azaroaren 4, 5 eta 6an Nazioarteko kobukai arte martzialen elkarretaratzea egin zen frontoian. Arte martzial ezberdinak ikusteko aukera izan zen eta horien artean Kenpo-kai egiten duten sunbildarrek ere eman zuten erakustaldia.

### KOLDO HERRERA

Kirolarekin segituz, Koldo Herreraren karrerak ere aipatzekoak dira. Azaroaren 6an Lukinen bosgarren postua eta 12an Ororbian laugarren postua lortu ditu. Ale hau atera orduko jada Diario de Navarrak antolatu dituen Openeko 9 karrerak bukatuak ditu. Zorionak eta segi horrela, beti bezain indartsu.

### BEHOBIA-DONOSTIA

Azaroaren 13an urteroko hitzordua izan zen Behobia-Donostia lasterketan. Bertan sunbildar kuadrilla batek parte hartu zuen: Migeltxo Maya Hernandorena, Esteban Maritxalar Iturbide, Bixente Ibarra Ibarra, Xanti Manterola Etxeberria eta Jon Maritxalar Etxenike. Zorionak kuadrilla!

### Lehen sorospen ikastaroa

Azaroaren 11n Udaletxeko hirugarren solairuan lehen sorospen ikastaroa egin zen. Jende gutti elkartu bazen ere, ikastaro guztiz interesgarria eta hagitz praktikoa izan zen, honelako larrialdi egoeratan zer egin ikasteko. Hemendik eskerrak bertaratutakoei eta nola ez irakasle lanak egin zituzten Kristina, Amaia eta Mariari.

### Opila jatea

Abenduaren 7an, asteazken arratsaldeko 7etatik aitzinera, opila jatea izanen da Bustitz ostatuan, Ostatu ibiltariak musika taldeak alaiturik.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Pandero-trikitilariak Aurtizko bestetan

Azaroaren 12an, urteroko hitzordua izan zen Aurtizko bestatan Mendaur trikitixa-pandero eskolaren jaialdiarekin. Bertan Sunbillako trikitilari eta panderojoleak parte hartu eta ongi pasatu zuten. Hagitz emanaldi polita eskaini zieten bertaratutakoei. Hemendik eskertu parte hartu zuten ikasle guztiei eta nola ez guzti hau prestatzen duten irakasleei: Ainara, Arkaitz, Oihana eta Ekiñe.

Bidasoa GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24 ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

ANTZUZELAI S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, ateak, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

**GIZARTEA ➜** IAZ BAINO 26 GEHIAGO

# 71 ikaslek eman dute izena aurten Euskaltegian



UTZITAKO ARGAZKIA
Solaslagunak ere hasiak dira ikasturte honetan. Argazkian, Bortzirietako aurkezpena.

Mankomunitateak debalde eskaintzen du aukera eta matrikulazioa %57,8 igo da

**TTIPI-TTAPA**

Ikasturte berria hasi da euskaltegian eta ikasle kopuruak nabarmen egin du goiti. Guztira 70 ikaslek eman dute izena euskaltegian eta iaz 45 ikasle izan ziren. Beraz, 25 ikasle gehiago izanen dira ikasturte honetan. Hazkundea ez da nolanahikoa, %57,8koa hain zuzen ere. Igoera gehienbat lehenbiziko urratsean sumatu da, non 21 ikasle berri izanen baitiren. Berako 37 ikasle, Lesakako 21, Etxalarko 7, Igantziko 6 eta Arantzako alerik ere ez da ikasturte honetan.

Euskara debalde ikasteko mankomunitateak 67 eskaera jaso ditu eta dagoeneko finantzaketaren lehenbiziko zatia ordaindu zaie eskatzaileei. Orain erronka da ikasleen asistentziaren eta ikasketa prozesuaren jarraipen egokia egitea da. Horretarako jarraipen lan taldea eratu dute euskaltegiko irakasleek eta euskara teknikariak.

**URRATS ERABAKIGARRIA**

2013an ehun lagunetik gora gogoeta prozesu batean parte hartu zuten Bortzirietan; hurrengo urteotarako euskararentzako erronkak eta lehentasunak zehazteko. Herritarren euskalduntzeari eta alfabetatzeari zegokionez, helburu hau adostu zen bertzek bertze: euskalduntze-alfabetatzea unibertsalizatzea, prestigiatzea eta zabaltzea. 2016ko ekintza planean, berriz, euskara ikasteko dirulaguntza politika berraztertzea eta euskara ikastea doakoa izan zedin bideak urratzea aurreikusi zen.

Plan estrategikoan jasotako helburuari eta filosofiari leial, urrats erabakigarria egin du mankomunitateak euskara ikasteko eskubidea herritar guztien eskura egoteko eta unibertsala izateko; 2016-2017 ikasturtetik hasita euskara ikastea debalde izanen da Bortzirietan.

Mankomunitateak, bere gain hartzen du euskara ikasteko eskubide hori herritar guztien eskura egoteko ardura, betiere, ikasleek hainbat baldintza betetzen badituzte. Hala, eta zentzuzkoa den eran, gutxieneko bertaratze eta aprobetxamendu maila egiaztatu beharko dute, eta euskaltegia bera arduratuko da horren jarraipena egiteaz.



# DONEZTEBE

GIZARTEA ➜ ADIERAZPEN INSTITUZIONALA AHOBATEZ ONARTU DU UDALAK

## Emakumeenganako indarkeria gaitzesteko ekintzak egunotan

### Azaroaren 25ean elkarretaratzea eginen dute

Marga ERDOZAIN

Azaroaren 25eko adierazpen instituzionala aho batez onartu du Udalak hilabete honetako bilkuran. Adierazpen honekin, indarkeria sexistaren aurrean gaitzespen publikoa ozenki adierazi nahi du herriak. Udalaren konpromisoa ere irmoki adierazi nahi da era aktiboan ezberdintasunen eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ez orekatuen kontra lanean jarraitzeko. Adierazpen honekin, edozein eraso jasan edota hildako emakume horiekin guztiekin baita muturreko indarkeria sexistaren biktima izan direnekiko elkartasuna ere berretsi du udalak. Akitzeko, herritar guztiak gonbidatzen ditu emakumeen aurkako indarkeria gaitzespen jarrera erakusten segitzeko, indarkeria mota hori errotik kentzeko.

#### BERDINTASUNARI BURUZKO FORMAZIOA

Mankomunitateko Prebentzio Batzordetik, Emagin taldearen eskutik bideratutako formazioan parte hartuko dute EH Bilduko zinegotziek, Malerrekako bertze ordezkariekin batera. Udalak gai honekin martxan jarriko duen politika eta ekimenerako lagungarria izanen da.

#### 25ERAKO ALDARRIKAPEN ANITZA

Aurtengo ekintzen oihartzun zabala izanen da. Adibidez, azaroaren 24an, ortzegunean, Mendaur Institutuko ikasleek *Susanaren iraultza* antzerki clownaren emanaldia eta lanketa izanen dute. Susanaren iraultza herritar guztiendako ere eskainiko da, arratsaldeko 6:30ean zineman. Ikasgeletan nerabeek filmak ikusiko dituzte eta mural artistikoak burutuko dituzte. San Miguel Ikastetxean indarkeria sexisten aurkako ipuin kontaketak eta eskulanak antolatu dituzte. Azaroaren 25ean, eguerdiko 12etan eginen den elkarretaratzera ere Mendaur ikastetxeko ikasleak hurbilduko dira. Bilkura alaia izanen da, bertsoek eta musikak alaituta.

*Malerrekan indarkeria matxistaren aurka* leloarekin pankartak ere ikusgai izanen dira udaletxean eta bertze hainbat tokietan. Ospakizun horien barrenean ere kokatu behar da udazken literarioaren zikloa. Arratsaldeko 8etan, Herriko Ostatuan eginen den solasaldiak ere egun honetako ospakizuna gogoan izanen du. Elixabel Badiolak bere bi lanen aurkezpena eginen du. Ondoren, afari autogestionatua izanen da. Beraz animatu eta tortilla, pintxo, entsalada edo postre goxoak prestatuta bertaratu, egun hau borobiltzeko aukera polita baita.






UTZITAKO ARGAZKIA

### Maria Jose Gartzia irakaslearen agurra

Maria Jose Gartzia irakasleak azaroaren 8an, bere urtebetetze egunean, San Miguel ikastetxean azkeneko klasea eman zuen. Ikastetxeak, merezitako omenaldian, 36 urteko ibilbide profesionala eskertu nahi izan zion. «Mari Jose, euskararekiko maitasunez ikasleak ikasprozesuan lagundu dituzu, euskaratik eta euskararen harrotasunez ikasleak munduratu dituzu. Zure lan isila hemen gelditzen da. Eraman gure muxuak, besarkak, malkoak eta… agurrik ez! Gozatu zure bizitzaren abentura berrian».

### Ba al zenekien ?

**Solaspoteoa antolatu duela larunbat honetan Solaslaguna ekimenak. 17:00etan Xanti ostatuan dute hitzordua eta 18:30ean berendua Titin.**

## FLASH

### Santa Luzia Feria abenduaren 11n

Eguna abenduaren 13an ospatzen bada ere, Udalak feria aurreko igandera aitzintzea erabaki du. Hurrengo alean egitaraua zehaztuko dugu, baina aipatu behar da ohiko artisau feria eta titarearen ekitaldiaz gain, aurten Erreka Guraso Elkarteak antolatutako elkartasun ekimena ere ospatuko dela.

### Errekaren Eguberrietako saskia eta bertze

Abenduren 17an, Errekako eskubaloi taldeen aurkezpena eginen dute. Abenduaren 18an, 18:00etan Ezkurra pilotalekuan, Mendiaren Eguna ospatuko da. Simone Moro italiarra, Ali Sadpara pakistandarra eta Alex Txikon euskal herritarra izugarrizko apustuan lehiatuko dira. Bertze aldetik, aipatu behar da Errekak zozketatzen duen saskiaren boletoak salgai daude.

### Nafarroaren Eguna eta Euskararen Nazioarteko Eguna

Ospakizun garrantzitsu honek gurean bi hitzordu interesgarri izanen ditu. Abenduaren 2an, ortziralean, Udazken Literarioaren zikloaren barrenean, Izaskun Zubialdek Euskal Mitologiaren inguruko lanen aurkezpena-kontaketa eginen du. Abenduaren 3an, 13:00etan Mendi Abesbatzak Nafarroako Ereserkia abestuko du elizan. Abenduaren 9an, Dani Martirena kazetariak solasaldia eskainiko du, Udazken Literarioa borobiltzeko.

**GIZARTEA ➜** IXILITTURRI ETA ARRAZO INGURUETAN

# Erreka bazterrak garbitzen nahiko lan izan du asteotan Udalak





ARGAZKIAK: ERNESTO DOMINGUEZ
Ixilitturri inguruan erreka bazterrak eta Arrazon sortutako irla garbitu diru Udalak, ura bere bidetik joateko.

Errekara ezin dela deus bota gogoratzen du

**Fermin ETXEKOLONEA**

Ixilitturri inguruan erreka bazterrak adarrak botatzeko eta gero erretzeko erabiltzen dira eta horiek garbitzen aritu dira udal langileak. Ingurumen Departamentutik eta Uren Konfederaziotik egoera konpontzeko eskatu dute eta Irtenbidea bilatzen ari da Udala, pilatzen ari diren adarrekin konposta egin edo beste soluziorenbat bilatzeko. Errekara ezin dela deus bota gogoratu du eta abudo seinalizazioa jarrko du.

Arrazo inguruan errekak sortutako irla ere garbitu dute. Errekak beste bidea hartu zuen eta horko harriak baztertu ondoren bere hasierako bidea hartu du urak

## Behobia-Donostia

Bi herritarrek parte hartu zuten: Urko Loiarte (ordubete eta 24 minutu) eta David Juanikorena (ordubete eta 31 minutu). Eguraldi kaxkarra izanagatik marka polita lortu zuten.

## Solaslaguna

Solaslaguna taldea osatu dute herrian. Edorta Murua da taldearen gidaria, eta lauzpabost lagun biltzen dira.

## Izaskun Zubialde

Udazken Literarioak ekimenaren baitan, Izaskun Zubialde herritarrak bere liburuei buruzko solasaldia eskainiko du abenduaren 2an, 20:00etan Doneztebeko Herriko Ostatuan.

## Azaroaren 25a

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunaren harira, filma eskainiko dute azaroaren 25ean, ostiralean 19:00etan eskolan: *Girlhood*. Ondotik afari alternatiboa eginen dute.

## Heriotza

Xeberiana Ibarra Indakoetxea, Errenterian bizi zen Goikoetxeko alaba, 86 urterekin hil zen azaroaren 14an. Goian bego eta doluminak familiari.



# ITUREN

**OSPAKIZUNAK ➜** ABENDUAREN 2TIK 4RA

## Kultur Egunak izanen dira abenduko lehen aste hondarrean

Bidasoko Trenbidearen mendeurreneko erakusketa ikusgai izanen da eta argazki lehiaketa ere deitu dute

**Arkaitz MINDEGIA**

Abenduaren 2tik 4ra izanen dira aurten Kultur egunak: Iturengo gazteek hainbat ekitaldi antolatu dituzte haur, gazte eta helduentzat.

**ORTZIRALA, ABENDUAK 2**

- 16:00 Haurrendako merendua eta ondotik ipuin kontalaria herriko etxeko ganbaran.
- 20:00 Argazki lehiaketaren erakusketaren irekiera Tresanea ostatuan gero berendu afaria.
- 22:00 Mus txapelketa Tresanean (bikote bakoitzak 10 euro).

**LARUNBATA, ABENDUAK 3**

- 11:00 Haur koxkorrentzat Ginkana.
- Eguerdian Pintxo-potea herriko ostatuetan.
- 17:30 Haurrentzako *Oa-huetak* dantza eta musika emanaldia Herriko Etxeko ganbaran.
- 20:00 bertso poteoa herriko ostatutik hasita.
- Ondotik bertso afaria Ander Lizarralde eta Iñigo Mantzizidor *Mantxi* bertsolariekin eta trikitilariek alaiturik. (Bertso afariarako izen ematea herriko Ostatuan bertan egin beharko da).

**IGANDEA, ABENDUAK 4**

- Eguerdian pintxo-potea eta toka txapelketa plazan.
- 19:00 Helduentzako antzerkia: *Plazerra gurea da* (Sarrera borondatea).

Asteburu osoan zehar Tren txikitoren erakusketa kapillan.

### III. Argazki lehiaketa

Argazki lehiaketa antolatu dute hirugarren aldiz Iturengo kultur egunetarako. Argazkiak aurkezteko gai desberdinak proposatu dituzte: iturriak, morea, ametsak, argia eta iluna, garraioa eta gai librea. Parte hartzaile bakoitzak gai bakoitzetik argazki bakarra aurkeztu dezake eta modu digitalean emailez bidali beharko ditu *ituren.gazteak@gmail.com* helbidera.

Bidalitako argazkiekin batera egilearen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa zehaztu beharko da. Azaroaren 28a izanen da argazkiak bidaltzeko azkeneko eguna.



ARGAZKIAK: XXXXXX

**Eguraldi kaxkarrari aurpegi alaia Aurtizko San Martin bestetan**

Bertze urte batez ederki pasa dute Aurtizko haur, gazte eta helduek San Martinetan. Eguraldi kaxkarra izan bazen ere ekitaldi guztietan parte-hartzea handia izan zen eta gustora ibili ziren.

### Behobia-Donostian

Pasa den azaroaren 13an Behobia-Donostia lasterketan bi herritarrek parte hartu zuten. Zorionak Josetxo Ruiz Lopetegi eta Ainhoa Baleztenari. Segi horrela!!!!

### Maika Ariztegi

14 aldiz izan da Maika Ariztegi Euskal Herriko koxkor biltze txapelketako txapeldun. Aurten bigarren izan da, Arabako Zuriñe Frutos - en gibeletik.

# MALERREKA

**OSPAKIZUNAK** ➜ AZAROAREN 5EAN DONAMARIAN

## Ernadi Rock jaialdiaren balorazio ona egin du Gazte Asanbladak





UTZITAKO ARGAZKIAK

Elkarrekin solasteko eta bazkaltzeko aukera izan zuten Malerreka eta inguruko gazteek.

Jende andana hurbildu zen

**TTIPI-TTAPA**

Malerrekako Gazte Asanbladak Ernadi Rock eguna ospatu zuen azaroaren 5ean. Egun guztian ekimen ezberdinak izan zituzten Donamarian eta jende andana hurbildu zen bertara: Xomorro taldearen ikuskizuna, gazte asanbladen arteko mahaingurua, bazkari eta jokoak, kontzertuak…

Malerrekako Gazte Asanbladatik, alde batetik, eskerrak eman nahi dizkiete antolakuntzan lagundu zieten guztiei. Bertze aldetik, adierazi nahi dute «gure jarduna ez dela hemen akitzen, gaupasa batekin soilik ez baita Malerrekako gazteen errealitatea konpontzen». Gazte asanbladak lanean segituko du, eta dei egin nahi die bai gazte guztiei baita bertze edozein pertsonei ere alternatiba elkarlanean eraikitzeko.

Bukatzeko, boleto saridunen zenbakiak ere jakinarazi dituzte: Lehen saria 3.132 zenbakiari egokitu zaio eta bigarren saria 230 zenbakiari. Saria biltzeko, asanbladako norbaitekin kontaktuan jarri beharko du saridunak.

# BEINTZA-LABAIEN

**OSPAKIZUNAK** ➜ AZAROAREN 12AN

## Urriruko besta azaroan ospatu dute aurten



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Giro ederrean afaldu zuten Urriruko bestan.

Aizkora apustua Pello eta Jon Telletxeak irabazi zuten

**Arantxa ITURRALDE**

Beste urtetan baino beranduago ospatu dute Beintza-Labaiengo herritarrek aurten urriroko besta, azaroaren 12an hain zuzen ere.

Afaldu aurretik, falta ezin den herri kirol erakustaldia izan zen, aizkora lehia bikoteka, hain zuzen ere. Zortzi enbor moztu zituen bikote bakoitzak.Sailkapena hau izan zen: Pello Telletxea eta Jon Telletxea, Jesus Etxeberria eta Manolo Kañamares, eta azkenik Jazinto Etxekonanea eta Oier Kañamares.

Afaria, sagardotegiko menuaz osaturik egon zen (bakailu tortilla, txuleta, gazta menbriloarekin eta kafea), eta nola ez, aukera izan zen barrikotetik ere sagardoa edateko.

Afalondoa girotzeko, musikariak aritu ziren kantuan, giro ederrean, hainbat doinu ezberdinekin: rantxerak, euskal kantuak...

# BERTIZARANA

**OSPAKIZUNAK ➜** AZAROAREN 26 ETA 30EAN

## San Andres besta txikiak ospatuko dituzte Narbarten




ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bertze urteetan ere arrakasta izan du ipuin kontalariaren emanaldiak.

Datorren asteazkenean meza eta txokolatea izanen dute, baina larunbat honetan ere hainbat ekitaldi prestatu dituzte

**TTIPI-TTAPA**

Aurten ere San Andresak ospatuko dituzte Narbarten, duela urte aunitzeko ohiturari eutsiz. Azaroaren 30a, asteazkena, da berez San Andres eguna, baina aitzineko larunbatean, ere hainbat ekintza prestatu dituzte, adin guztietako jendearentzat bideratuak.

**LARUNBATA, AZAROAK 26**

- 11:00 Ipuin kontalaria *Amonaren istoriak* herriko zentro zibikoan.
- 13:30 Etxalarko trikitilariekin herrian barna kalejira eginen dute.
- 14:00 Herri bazkaria herriko ostatuan.
- 17:00-00:00 Dantzaldia Irune eta Itxaso trikitilarien eskutik.
- 21:30 Afaria: bokatak herriko ostatuan.

**ASTEAZKENA, AZAROAK 30**

- 11:00 Meza nagusia San Andresen ohorean eta meza ondoren hameketakoa banatuko dute.
- 16:30 Herriko zentro zibikoan txokolatada denentzako.

Urtero bezala egun hauek giro ederrean pasatzeko herritar guztiak animatu nahi dituzte parte hartzera.

**ESKUALDEKO HAUTETSIEN BIXITA AZAROAREN 15EAN**

## Pirinio Atlantikoetako tokiko biomasa proiektuak ezagutzeko aukera izan dute




UTZITAKO ARGAZKIA

Esperientzia interesgarriak ezagutu dituzte Pirinio Atlantikoetan.

**TTIPI-TTAPA**

Ezpal-galdarak ezagutzeko asmoarekin inguruko hainbat udal ordezkarik Frantziako Pirinio Atlantikoetako Bedous eta Astugue herrietarat bisita egin zuten azaroaren 15ean. Eskualdeko hautetsien artean Juan Kruz Iriarte Baztango mendi eta herri-lurretako zinegotzia eta Joseba Otondo Baztango alkatea, Josu Iratzoki Berako alkatea eta Mikel Lertxundi mendiko zinegotzia, Amets Inda eta Maria Jesus Berau Sunbilla eta Iturengo alkateak eta Jon Telletxea, Beintza-Labaiengo alkatea zeuden. Aspe mendiaren inguruetan dauden herri ttipi hauetan bi proiektu egin dituzte. Bedousen mediku-kontsultategia, mediku-egoiliarren etxea eta garatzen ari den urbanizaziorako ezpal-galdara kolektiboa eta berogailu sarea egin dute. Gaur egun 1.500 metro koadroko azalerarendako berogailua eta ur-beroa eskaintzen dute. Proiektuarekin tokiko baliabideak balioztatu eta jarduera berriak sortu nahi izan dira. Egitasmoa SDPA partzuergo energetiko publikoak egin du, denera 323.000 euroko inbertsioa eginez. Orain Bedousko udalak 20 urtez urtero 13.000 euroko alokairua ordaindu beharko dio. Alokairu hori bertze beroketa sistemen prezio beretsukoa da. Astugueko herrian Mointeguko ospitalea bisitatu zuten. Gas propano galdara alokairuko ezpal-galdara batengatik aldatu dute. Ezpal galdara modulo mugigarria da, parte hartze publikoa duen Estera enpresak garatu duena. Ospitalak ez du batere inbertsiorik egin behar izan, Esterak moduloa instalatu eta lehengo berogailu sistemarat lotzearekin aski izan da. Inbertsiorik egin gabe ospitalak ekonomikoki urtero bertze %12 aurrezteaz gain, tokiko baliabideak balioztatzeko balio izan du, izan ere erregaia 40 kilometroko ingurutik ekartzen baitute. Estera enpresan Frantziako oihanen erakunde publikoak, departamentuko udal-oihandunen elkarteak eta egur-enpresek parte hartzen dute.



# KIROL GEHIGARRIA

675. alea | 2016.11.24




# ERRUGBIA



ARGAZKIA: MENDITARRAK BRT
Menditarrak-BRT errugbi taldeko seniorrak Lekarozen jokatutako partida batean.

# Menditarrak-BRT taldea errugbia lantzen gogor

## Seniorrez gain, sub-18, sub-16 eta sub-14 mailetan ari da Irungo Txingudiko jokalariekin batera

BRT Menditarrak Rugby Taldea aurten ere Euskal ligako lehenengo mailako txapelketan parte hartzen ari da. Jokalari zaharrenetako batzuk, jokalari ohien multzora pasa dira eta taldean jokalari gazte aunitz daude, batzuk errugbia utzi eta berriz ere bueltan direnak eta horrek taldeak etorkizuna duela erakusten du.

Taldearen helburua lehenengo maila honetan mantentzea da, nahiz eta badakiten zaila izanen dela, «jokatzeari utzi dioten horiek zakur zaharrak zirelako eta norgehiagoka berdinduetan markagailua gure alde ekartzeko gaitasuna zutelako. Hala ere, jokalari gazte hauengan itxaropena dugu eta jokatzen ikasten dutenean talde xarmanta dagoela ikusaraziko digute».

Baina talde seniorrekin batera, gazteekin eta haurrekin lan handia egiten ari da Menditarrak BRT. 18 urtez beheitiko kategorian arras jokalari guti dituzte eta laugarren urtez segidan Irungo Txingudi errugbi taldearekin ari dira, 16 urtez beheitikoak bezalaxe. 14 urtez beheitiko jokalariak, bi txapelketetan parte hartzen dute: alde batetik Gipuzkoako eskolarteko txapelketan eta bertze aldetik Nafarroako kirol jokoetan.

Errugbi eskola laugarren urtez antolatu da Lekaroz eta Ultzaman, eta sub 14ak bezala bi txapelketetan parte hartuko dute. Alde batetik Gipuzkoako eskolartekoan eta, bertzalde, Nafarroako kirol jokoetan, bietan ere sub-12 eta sub-10 mailatan. Gipuzkoako txapelketetan Txingudirekin batera parte hartuko dute.

### MENDITARRAK BRT SENIORRAK

| | |
|---|---|
| Asier ARRETXEA BIDEGAIN | NARBARTE |
| Julen ANZIZU MARCKERP | LIZASO |
| Ander OSKOZ GAGO | DONEZTEBE |
| Iban MUTILBA RUIZ DE AZUA | ELIZONDO |
| Julen LIZOAIN EUGI | IRUÑA |
| Fermin LARRALDE CORDOBA | ELIZONDO |
| Egoitz GAMIO MITXELENA | NARBARTE |
| Javier BORDA REDIN | UHARTE |
| Jon ZUBIRI AZANZA | ARIZKUN |
| Iñaki ZUBIRI AZANZA | ARIZKUN |
| Mikel EUGI ILUNDAIN | BEUNTZA |
| Oscar VILLABONA ZENOZ | LATASA |
| Iñaki PERURENA IRIGOIEN | ELIZONDO |
| Jon IRIARTE ARRIETA | ARIZKUN |
| Mattin APEZETXEA BERHO | ORONOZ |
| Ruben OZKARIZ MARTINEZ | OLAGUE |
| Joseba ARIZMENDI APEZETXEA | ORONOZ |
| Iñaki IRAIZOZ PEREZ | ETSAIN |
| Juan Angel PEROTXENA URANGA | ELIZONDO |
| Beñat ETXEKOLONEA DIEZ | ZUBIETA |
| Jokin URREAGA ETXENIKE | ELBETE |
| Jon Ander ELORZ LANDA | IRUÑA |
| Antton HARISPE BOURDU | AMAIUR |
| Hasier IRATZOKI ALTZUGUREN | ETXALAR |
| Xabier IRURETAGOIENA IRAZOKI | ELIZONDO |
| Andoni SALABERRIA PRADOS | MUGAIRI |
| Iban Iñaki MUGIKA | KANBO |
| Iñigo LIZASOAIN UTERGA | ELIZONDO |
| Mikel OLAZAR BAZTERRIKA | ITUREN |
| Joseba MITXELENA LARZABAL | IRURITA |
| Miguel SOBRINO ETULAIN | ARIZKUN |
| Santi GARMENDIA MUÑOZ | ELIZONDO |
| Joxe Martin RAZKIZ RAZKIN | DORRAO |
| Peio GASTEARENA ANSALAS | ORONOZ |
| Xabier REDIN BARBERENA | ARRAITZ |
| **Entrenatzailea:** Peio OBREGOZO | IRURITA |
| **Entrenatzailea:** Antton HARISPE | AMAIUR |

TXOMIN IRAZOKI
FISIOTERAPEUTA
MASAJEA · BIZKORTZE ARIKETAK
ESKU TERAPIA
KIROL LESIOAK · LANEKO LESIOAK
Eztegara 28 behea • BERA | 670 471 200







ARGAZKIA: MENDITARRAK BRT

Menditarrak-BRT gogoz ari da lanean errugbia sendotzen. Goitik beheiti ageri diren sub-18, sub-16 eta sub-14 taldeez gain, errugbi eskola ere lantzen du Baztanen eta Ultzaman.

## MENDITARRAK BRT SUB18

| | |
|---|---|
| Kaiet IRIARTE GOIENETXE | ARIZKUN |
| Johanes MOLINUEVO URRUTIA | ELBETE |
| Alexander SANTESTEBAN OPOKA | IRURITA |
| Manex ETULAIN BIDEGAIN | ARIZKUN |

## MENDITARRAK BRT SUB16

| | |
|---|---|
| Eñaut BERISTAIN IRIARTE | ARIZKUN |
| Julen IRIARTE AZKARRAGA | ARIZKUN |
| Oier NEOL BURLADA | ARIZKUN |
| Aimar RODRIGUEZ ETXANDI | ORONOZ |
| Aaron ALTZUGARAI GONZALEZ | ELIZONDO |
| Jokin BEIKA PAGAZAURTUNDUA | AMAIUR |
| Eneko FREIRE PEROTXENA | OLAGUE |
| Edu GALAIN ALCOCER | IRAIZOTZ |
| Aritz OLAGUE GARCIA | IRAIZOTZ |
| **Entrenatzailea:** Iñaki EZKURRA | URRIZOLA |
| **Entrenatzailea:** Miguel Mari URRUTIA | ARIZKUN |
| **Entrenatzailea:** German TERREROS | LESAKA |

## MENDITARRAK BRT SUB14

| | |
|---|---|
| Iñaki JUBERA IDOATE | LEKAROZ |
| Junes ALTZUGARAI PERNAUTE | ARIZKUN |
| Unai ITURBIDE LAZARO | ELIZONDO |
| Ganix IRIARTE GOIENETXE | ARIZKUN |
| Iraitz ITURRALDE ARRETXEA | ZOZAIA |
| Ibai SAN JOSE LAMEIRINHAS | ELIZONDO |
| Gaizka YUSTE PIA | LESAKA |
| Mikel GOROSTIDI JAIMERENA | ARIZKUN |
| Unai AGINAGA ETXAMENDI | ELIZONDO |
| Aritz ELIZONDO URRUTIA | LEKAROZ |
| Urki NEOL BURLADA | ARIZKUN |
| Gorka JAURENA IRISARRI | ARIZKUN |
| Ellande ALTZUGARAI ARIZTEGI | ELBETE |
| Julene ETULAIN BIDEGAIN | ARIZKUN |
| Ximon MORENO ETXANDI | IRAIZOTZ |
| Aimar MARTIKORENA BARAIBAR | ARRAITZ |
| Asier EZKURRA ITURRALDE | URRITZOLA |
| Mateo BARBERENA JUBERA | IRAIZOTZ |
| **Ent.:** Mariano IRIBARREN, Jon ZUBIRI, Josu MARTINEZ | |

## MENDITARRAK BRT ERRUGBI ESKOLA

Aimar ORKIN MACAYA, Josu ORKIN MACAYA, Iñigo GOIKOETXEA MACAYA (Alkotz); Jon JUBERA LIZASO, Xabier JUBERA LIZASO (Lantz); Ugaitz KABALLERO PEREZ (Egozkue); Beñat BARBERENA MEOKI, Antton ARRUPEA IRIBARREN, Joritz BARBERENA MEOKI, Ekain ARRUPEA IRIBARREN (Lekaroz); Axular ALEMAN IRISARRI, Mattin SANTXOTENA ETXEBERRIA, Ekain PERUGORRIA ALDAKO, Julen ALEGRE HUARTE, Urlei ETXANDI LAURNAGARAI (Elizondo); Xabier IBARRA BERRAONDO (Arraitz); Gartxot IRIBARREN ALEMAN, Eneko IRIBARREN ALEMAN (Amaiur); Ekain ELIZALDE MENA, Endika ARRAZTOA SARRATEA, Alex IRIARTE ARRIETA, Urki ZAPATA GOIENETXE, Unai MUGIRO LARREGI, Beñat NEOL BURLADA, Antton FERNANDEZ BIDEGAIN (Arizkun); Eñaut ALTZUGARAI ARIZTEGI, Xabat ALTZUGARAI ARIZTEGI (Elbete); Peio EZKURRA ITURRALDE, Ainhoa EZKURRA ELIZALDE (Urritzola); Julen URRUTIA TELLETXEA (Arraioz)

**Ent:** Mattin APEZETXEA, Joseba ARIZMENDI, Asier ARRETXEA, Egoitz GAMIO (Baztan); Maika IRAIZOZ, Gabi JUBERA (Ultzama)



## ESKUBALOIA

# Baztango Kirol Taldeak ez du senior talderik atera aurten

### Neska gazteekin eta haurrekin egiten duten lanarekin berriz ere kantxaratzea espero dute



UTZITAKO ARGAZKIA

Seniorrak desagertuta, Baztan Kirol Taldeko jubenilak dira aurten handienak.

Duela urte batzuk ohorezko mailara sartzeko borrokan zebiltzan Baztango BKT eskubaloi taldeko emakumeak. Eskubaloiko elitera sartzeko punttuan egon zen urrezko garai haietatik maila apalago batera pasatu zen, baina etxeko jokalariekin azken bi denboraldietan Nafarroako liga irabaztea lortu zuen. Aurten, aldiz, ez du BKTk senior mailako talderik kantxaratuko. Enrique Petrirena entrenatzaileak aipatu digunez, «bertze taldeak harrituta galdetzen dute, nola den posible azken bi urteetako talde txapelduna desagertzea, baina arrazoi batengatik eta bertzearengatik, halaxe suertatu da aurten: «Jokalari batzuri Iruñaldean lehen mailan jokatzeko aukera eskaini diete, bertze batzuk kanpora joan dira ikastera, bertze batzuk lesionatuak zeuden… eta juxtu-juxtuan ibiltzekotan erabaki genuen aurten talderik ez ateratzea. Neska batzuk penaz gelditu izanen dira, baina ezin genuenez guttieneko parte hartzea segurtatu, erabaki hori hartu dugu. Denboraldi luzea izaten da eta jokalari gutti denean konpromiso handia izaten da, jendea nekatu ere egiten da».

Halere, kasik 90 neskarekin ari dira lanean, baita lauzpabortz mutikorekin ere kategoria ttikienetan. Azpiko lan horrekin segituz datorren urtean ez bada hurrengoan berriz ere senior taldea kantxaratzea espero du Petrirenak, «baina inoiz ez dakizu, behin jubeniletatik pasatuta batzuk kanpora joaten dira ikastera, bertzeak aspertuta daude… Baina hori urteroko kontua da. Guk gurean segitu behar dugu».

Petrirena berak gidatzen ditu jubenil, kadete eta alebin mailetako taldeak eta handienen kasuan, lauko finalera sartzeko xedea dauka: «Asmo handiak izan behar ditugu, gero ikusiko da!». Halere, talde guztien gaztetasuna kontuan hartuz (jubeniletan lehen urtekoak dira gehienak eta batzuk kadeteak; kadetetan lehen urtekoak eta infantil batzuk…), emaitzak baino gehiago, eskubaloian ongi jokatzen ikastea da helburu nagusia.

BAZTANGO KIROL TALDEAK

| BAZTAN BKT: NESKA JUBENILAK | |
|---|---|
| Blessig LUCKY AYAYI | ELIZONDO |
| Lierni OTEIZA MIGELTORENA | ORONOZ |
| Jone LARRALDE CORDOBA | ELIZONDO |
| Garazi SAGASETA URRUTIA | IRURITA |
| Ainhoa GALAIN ELIZALDE | IRAIZOTZ |
| Paula URRUTIA GOIENETXE | ELBETE |
| Laura DIAZ FERNANDEZ | ERRATZU |
| Aurkene PERURENA AGIRRE | IRURITA |
| Naroa BERHO SANTOS | ORONOZ |
| Eider ELIZAINTZIN IRUNGARAI | GARTZAIN |
| Ane BERHO MIGELENA | ORONOZ |
| Maider ALTXU AIZPURU | ORONOZ |
| Oihane IRIARTE ELIZAINTZIN | ARIZKUN |
| Leire MUGIRO LARREGI | ARIZKUN |
| Miren GONZALEZ GALARREGI | ELIZONDO |
| Itxaso ETXENIKE BIGURIA | IRURITA |
| Lucia TRANTXE URTASUN | ELIZONDO |
| **Ent.:** Enrique PETRIRENA BAQUERO | ELIZONDO |



# ESKUBALOIA


UTZITAKO ARGAZKIA
Kadete mailako neskek ere lauko finalerako sailkatzeko aukerak dituzte.

## BAZTAN BKT: NESKA KADETEAK

| | |
|---|---|
| Nerea BARBERENA URRUTIA | ERRATZU |
| Jone OTEIZA ALTZUGUREN | ELIZONDO |
| Leire CHOUZA BLAS | ORONOZ |
| Elena URRUTIA GOIENETXE | ELBETE |
| Maialen ITURBIDE LAZARO | ELIZONDO |
| Izaro DENDARIETA ESKUDERO | IRURITA |
| Maria ORTIZ ESTABOLITE | GARTZAIN |
| Haizea EUGI GAMIO | IRURITA |
| Nahia BAILON URTASUN | IRURITA |
| Leire ARRAZTOA ALEMAN | IRURITA |
| Elena SOBRINO ETULAIN | ARIZKUN |
| Saioa ETXART ETXEBERRIA | ERRATZU |
| Amaia ARIZALETA ITURBIDE | ERRATZU |
| **Ent.:** Enrique PETRIRENA BAQUERO | ELIZONDO |


UTZITAKO ARGAZKIA
Infantilen taldea ere gogotsu dabil, Julian Baldantaren gidaritzapean.

## BAZTAN BKT: NESKA INFANTILAK

| | |
|---|---|
| Aizpea ISUSKITZA ARANBURU | AMAIUR |
| Ane BAILON ITURRALDE | ELIZONDO |
| Leire GONZALEZ GALARREGI | ELIZONDO |
| Hana IRISARRI URRUTIA | ELBETE |
| Olatz ITURRALDE ARRETXEA | ZOZAIA |
| Naroa BALLARENA GOIENETXE | ELIZONDO |
| Naia IRIARTE ARRIETA | ARIZKUN |
| Cecilia ADIN URTASUN | ELIZONDO |
| Naroa ELIZAINTZIN ALTZUARTE | IRURITA |
| Laura URTXULUTEGI ANTXORENA | ERRATZU |
| Haize OIARTZABAL AIZPURU | IRURITA |
| Julene BAILON URTASUN | IRURITA |
| Ainara GOÑI ALMANDOZ | ELIZONDO |
| Miren IRIGOIEN INBULUZKETA | ELIZONDO |
| Maialen BERTIZ ORBEGOZO | ELIZONDO |
| Naroa IRIARTE ELIZAINTZIN | ARIZKUN |
| Amaia ETXABE AIZPURUA | ERRATZU |
| Elena GARCIA ELIZETXE | ELIZONDO |
| **Ent.:** Julian BALDANTA | ELIZONDO |


LA BAZTANESA S.A.
Autobus Enpresa
Lineako autobus eta turismo bidaien zerbitzua
Santiago, 25 · ELIZONDO · 948 580 129

# ESKUBALOIA



| BAZTAN BKT: ALEBIN A | |
|---|---|
| Nerea SANZ AZPIROZ | ZIGA |
| Naia GARAIKOETXEA LOBEIRAS | BERROETA |
| Idoia MUNANGO MALES | ELIZONDO |
| Maite USTARROZ ALTZUARTE | ORONOZ |
| Patricia DEL CAMPO PELLICER | ELIZONDO |
| Kandela IBAIBARRIAGA AGRA | ELIZONDO |
| Haizea MARITORENA ERROZ | ANIZ |
| Uxue REKARTE ITURRIRIA | ERRATZU |
| Irati IPARRAGIRRE MEOKI | ELIZONDO |
| Uxue ZABALETA ZAMORA | ORONOZ |
| Ainara DENDARIETA ELIZAINTZIN | IRURITA |
| Leire BALLARENA GOIENETXE | ELIZONDO |
| Nagore URRUTIA REY | IRURITA |
| Amaia OLAIZOLA GOÑI | ELIZONDO |
| **Ent.:** Enrique PETRIRENA BAQUERO | ELIZONDO |



| BAZTAN BKT: ALEBIN B | |
|---|---|
| Naiara ERASUN MUÑOZ | ELIZONDO |
| Ane TRANTXE MORENO | ELIZONDO |
| Desiré GONZALEZ BAYONES | ELBETE |
| Julen AVILA DURAN | ELIZONDO |
| Valeria ADIN URTASUN | ELIZONDO |
| Maialen KARRIKABURU JAIMERENA | ELBETE |
| Jone ETXEBERRIA ZABALETA | ELIZONDO |
| Jose Luis SALVADO JUSTINO | ELIZONDO |
| Meselech IRISARRI URRUTIA | ELBETE |
| Miren ARRAZTOA GARBALENA | GARTZAIN |
| Jon GONZALEZ GALARREGI | ELIZONDO |
| Izaro PAGAZUORTUONDUA AROZENA | GARTZAIN |
| Lucia BALDANTA ARRUIZ | ELIZONDO |
| Marina MENDIBURU OHARRIZ | GARTZAIN |
| **Ent.:** Julian BALDANTA eta Idoia ARRUIZ | ELIZONDO |



| BAZTAN BKT: AURREALEBINAK | |
|---|---|
| Ane eta Ainhoa MEZKIRITZ ORUBE | ARIZKUN |
| Naxara ALEMAN IRISARRI | ELIZONDO |
| Matias RIVAS ROTELLA | ELIZONDO |
| Auza IPARRAGIRRE ITURZAETA | ELIZONDO |
| Mikele JUBERA IDOATE | LEKAROZ |
| Iraider ITURREGI ZELAIETA | ELIZONDO |
| Maialen MIGELTORENA GASCUE | BERROETA |
| Maddi LAZARO GARMENDIA | ELIZONDO |
| Nora GALLEGO IZETA | IRURITA |
| Eider URRUTIA TELLETXEA | ARRAIOZ |
| Ilazki IBARGARAI SANTESTEBAN | ERRATZU |
| Iraide OBREGOZO MARTIRENA | ELIZONDO |
| Jon IRIGOIEN INBULUZKETA | ELIZONDO |
| Leire URIBE-ETXEBARRIA ITURRIRIA | ERRATZU |
| Nerea ELIZETXEA SEGALES | ELIZONDO |
| **Ent.:** Ane eta Naroa BERHO, Maider ALTXU | ORONOZ |



# Errekako senior taldeak ez du erraza izanen liga irabazteko lehian sartzea

## Emakumeen taldea kantxaratu du Doneztebeko elkarteak aurten ere



ARGAZKIA: CD ERREKA

Errekako talde nagusiak txapeldunen fasean sartu nahi luke aurten ere.

Erreka eskubaloi taldea osasuntsu dabil. Aurten bederatzi talderekin ari da lanean, guztira 185 jokalari bilduz, inoiz baino gehiago. Senior mailan, iaz bezala, gizonezkoen taldearen alboan emakumeena ere kantxaratu du. Talde gazteagoa dute emakumeek eta aldi berean sendoagoa ere bai, Baztanen talderik gabe gelditu ondotik zenbait jokalari Doneztebera joan baitira. Joan den urteko eskarmentuari eta aurtengo indartze horri esker, joko eta emaitza aldetik hobekiago dabiltza, Juan Mari Artazkoz doneztebarraren eta Ainhoa Astiz baztandarraren gidaritzapean.

Gizonezkoen talde nagusian, berriz, Iban Ezkurra da entrenatzailea. Taldearen lehen helburua txapeldunen faserako sartzea dela aipatu digu, baina onartu digunez, «ez da batere errexa izanen joan den urtekoa berdintzea». Horretarako, lehen fasean lau onenen artean sartu beharko lukete. «Gure multzoko lehenbiziko hiru postuak nahiko garbi daude eta txapeldun faserako azken txartela ematen duen laugarren postu horretarako borrokan hiru talde gabiltza, Erreka, Beti Onak eta Bardenas. Joko aldetik paretsuak gara eta saiatuko gara hori lortzen, baina talderik indartsuenak gure multzoan daude. Gure aukerak izanen ditugu, baina iaz baino zailagoa izanen dugu. Borroka horretan gaude eta ea aurten ere saria lortzen dugun!».

Gainera, aurten, jokalari aldetik talde murritzagoa du Errekak, «lanarengatik edo ikasketengatik batzuk utzi egin dute, eta partiduetarako jendea biltzen bagara ere, entrenamenduetan eskas xamar gabiltza». Errate baterako, elkarteko presidente lanean ari den Joseba Legarrak jokalari izateari utzi dio eta berak, bezala, bertze bizpahiru beteranok. Halere, etorkizuna segurtatua dagoela erraten ahal da, gibeletik neska-mutikoen harrobi sendoa ari baita lanean.

**ERREKA A: 2. MAILA NAZIONALA**

| | |
|---|---|
| Adei IBARGARAI AGIRRE | NARBARTE |
| Asier ARANGUREN OKIÑENA | BARAÑAIN |
| Beñat MARTIARENA ADURIZ | DONEZTEBE |
| Emilio ZABALA EZKURRA | DONEZTEBE |
| Iñigo ETXEBERRIA PETRIRENA | ELGORRIAGA |
| Iñigo URRA GOROSPE | BARAÑAIN |
| Javier APEZTEGIA ITURRIA | DONEZTEBE |
| Javier GAGO BALDA | DONEZTEBE |
| Kepa MIGUEL ETXEBESTE | DONEZTEBE |
| Koldo LEGARRA ERASUN | DONEZTEBE |
| Matias URIOSTE PEREZ | DONEZTEBE |
| Mattin JAUNSARAS SANTXOTENA | DONEZTEBE |
| Peio MITXEO TELLETXEA | GAZTELU |
| Ramontxo ETXEBESTE HILINGER | DONEZTEBE |
| Xabier IBARROLA GOÑI | DONEZTEBE |
| **Ent.:** Iban EZKURRA SALABERRI | DONAMARIA |
| **Ofiziala:** Daniel URROZ EIZAGIRRE | DONEZTEBE |

• NURSTUDIOPILATES •
PILATES METODOA • K-STRETCH METODOA
GIMNASIA ABDOMINAL HIPOPRESIBOA
"**Gaitz gehienak** eguneroko ohitura desegokien ondorio dira"
"**Osasun fisikoa zoriontsu izateko lehen baldintza da**".
Rosa Seminario 7 • DONEZTEBE - NAFARROA
M. 627 039 233 • @.nurfuejo@gmail.com
www.nurstudiopilates.com


# ESKUBALOIA



## ERREKA: SENIOR NESKAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ainara UNANUA ARIZMENDI | GARTZAIN | Maider OMAR PORROY | DONEZTEBE |
| Alaia IRIBARREN GONZALEZ | DONEZTEBE | Maialen GOÑI IRIBARREN | ELIZONDO |
| Alaitz LEATXE PORTILLO | DONAMARIA | Maite ARREGI ARRETXEA | ORONOZ |
| Amaia JORAJURIA MENDIBURU | DONEZTEBE | Marta OTERMIN LEIZA | DONEZTEBE |
| Amaia SUBIZAR TRANTXE | LEGASA | Melanie TELLETXEA RIVAS | DONEZTEBE |
| Anabel SOBRINO ARTAZKOZ | ELIZONDO | Michelle CRUZ PEGUERO | DONEZTEBE |
| Desire VINAGRE PEREIRA | ARRAIOZ | Nekane ASTIZ GOÑI | LEKAROZ |
| Ekhine TXOKARRO EZKURRA | NARBARTE | Noelia QUINTANILLA IPARRAGIRRE | ELIZONDO |
| Elena ZABALA EZKURRA | DONEZTEBE | Olatz SUBIZAR TRANTXE | LEGASA |
| Itziar JORAJURIA MENDIBURU | DONEZTEBE | **Ent.:** Juan Mari ARTAZKOZ | DONEZTEBE |
| Leire RAMOS IRAOLA | BERROETA | **Ent.:** Ainhoa ASTIZ | LEKAROZ |
| Maider JABALERA JUANENA | DONEZTEBE | **Ofiziala:** Andrea MINDEGIA | DONEZTEBE |



## ERREKA: NESKA KADETEAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ainhoa ARRIETA BERGARA | DONAMARIA | Itxaso OIARZABAL ZOCO | DONEZTEBE |
| Ainhoa LEIZA GARRIDO | DONEZTEBE | Janire IRIBARREN LIZARDI | DONEZTEBE |
| Andrea ZABALA PIKABEA | DONEZTEBE | Lucia IRIGOIEN TELLETXEA | DONEZTEBE |
| Ane ETXARTE JUANENEA | DONEZTEBE | Maialen EZKURRA APEZETXEA | DONEZTEBE |
| Ane IPARRAGIRRE OPOKA | DONEZTEBE | Maria IRIGOIEN TELLETXEA | DONEZTEBE |
| Elisa URROZ KOVALIK | DONEZTEBE | Nahia ETXEBERRIA URTXULUTEGI | ZUBIETA |
| Elur IPARRAGIRRE OPOKA | DONEZTEBE | Olatz MUTUBERRIA MINDEGIA | DONEZTEBE |
| Garazi ETXALAR ZUGARRAMURDI | SUNBILLA | Olatz SAN MIGUEL GRAGIRENA | DONEZTEBE |
| Inma IBARROLA MARIEZKURRENA | DONEZTEBE | **Ent.:** Javi APEZTEGIA ITURRIA | DONEZTEBE |
| Itsaso ESTANGA OTXANDORENA | DONEZTEBE | **Of.:** Maider OMAR PORROY | DONEZTEBE |



## ERREKA: JUBENIL MUTILAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ander BERASATEGI ELIZONDO | DONEZTEBE | Joseba SAPUPPO BENGOETXEA | DONEZTEBE |
| Urtzi JUANENA ETXEBERRIA | DONEZTEBE | Julen INDA ZARRANZ | DONEZTEBE |
| Goio MINDEGIA ELETA | DONEZTEBE | Mario LOPEZ PAGAZARTUNDUA | GARTZAIN |
| Patxi MARTIN ARREGI | DONEZTEBE | Otito ROQUE AGUILERA | ELIZONDO |
| Iñigo OIARZABAL ZOCO | DONEZTEBE | Oier BERASATEGI ELIZONDO | DONEZTEBE |
| Andoni PRIETO ETXEGARAI | BERA | Oier URRUTIA BALLARENA | ERRATZU |
| Asier QUINTANILLA SAGARDIA | DONEZTEBE | **Ent.:** Patxi REKARTE | DONEZTEBE |
| Asier AROZENA MARIEZKURRENA | DONEZTEBE | **Ofiz:** David MINDEGIA-Txomin MINDEGIA | |



## ERREKA: INFANTIL MUTIKOAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| Asier ARREGI PEREZ | DONEZTEBE | Martxel URRUTIA ESEBERRI | ELIZONDO |
| Asier LANZA GARCIA | SUNBILLA | Mikel PRIETO ETXEGARAI | BERA |
| Ekaitz SAN MARTIN MAYLIN | DONEZTEBE | Nicolas GARCIA ARANZADI | ETXALAR |
| Eñaut SETOAIN | DONEZTEBE | Unai OSLE SANCHEZ | BEINTZA-LAB. |
| Iker LOIARTE | ZUBIETA | Xabier MARCOS | ELIZONDO |
Gure Txokoako infantilak Gipuzkoako lehen mailan ari dira, 27 fitxarekin. Matzada berrituko lehen derbia ere jokatu zuten urriaren 30ean Beti Gazteko infantilen kontra (1-1).



# ALEBINAK FUTBOL-8



## BAZTAN F.T.: ALEBINAK A

Iñaki LAZARO GARMENDIA, Mikel LIZARDI URTSUEGI, Antton IPARRAGIRRE ITURZAETA, Mattin ORGANBIDE TELLETXEA, Mikel PRUAÑO GOÑI, Julen TRANCHO AZKARATE, Jon VERDE MUGIRO, Julen MEOKI BALLARENA, Xuban TELLETXEA KARRIKIRI, Elur MURATORI UNANUA, Xabier ISUZKIZA ARANBURU (Elizondo); Xuban BLAS IRISARRI (Oronoz); Mikel ARRETXEA ZIAURRIZ (Berroeta) • **Ent.:** Josetxo GALARREGI eta Manolo LIZARDI



## BAZTAN F.T.: ALEBINAK B

Unax BIDEGAIN ELIZALDE (Arizkun), Xabier SAROBE HERRERA, Carlos VIVES ALVES, Aimar OBREGOZO MARTIRENA, Jon GARBALENA BARRIOS (Elizondo); Xabier BENGOETXEA AGERRE, Xuban BENGOETXEA BIDEGAIN, Iñaki URTXULUTEGI ANTXORDOKI (Erratzu); Ugaitz APEZTEGIA BIDEGAIN (Elbete); Beñat ZAMORA ZELAIETA (Oronoz); Urko JUBERA IDOATE (Lekaroz); Aritz ZOCO ARGAIN, Ibai ALEMAN AZKARRAGA (Irurita); Julen URRUTIA TELLETXEA (Arraioz) • **Ent.:** Jaime EGURROLA



## BAZTAN F.T.: ALEBINAK C

Alvaro ALZUGARAI ZABALZA, Patxi ERASUN MUÑOZ, Xuban ZELAIETA ALEMAN, Oier ZELAIETA GOÑI, Javier EGURROLA OLABE, Iker TELLETXEA DIAZ, Mikel GOROSTEGI MORAL, Aimar DEL MORAL ZARATIEGUI (Elizondo); Zena IRISARRI URRUTIA, Imanol GOIENETXE MIKELEZ, Berta MUGIRO ESEBERRI (Elbete); Oihan ZAPATA CEBRIAN, Eneko IRIARTE ITURZAETA (Arizkun), Axier ARIZTIA GOIENETXE (Amaiur) • **Ent.:** Peito GOIENETXE



## BETI GAZTE F.T.: ALEBINAK A

Iker AGIRRETXE BIKONDOA, Iraia ETXARTE TELLETXEA, Jon Ander RUIZ SARASOLA, Josu ZUBIETA ENETERREAGA, Xabier APEZTEGIA GRASSA, Jon APEZTEGIA LARRALDE, Markel ERKIZIA CONDE, Aitor PAGADIZABAL IGARZABAL, Eloi SANCHEZ ARAKUES, Ainara SEMPER IRASTORZA, Miguel UBIRIA ALZATE, Ibon URROSOLO ELGORRIAGA (Lesaka), Eneko ZUBIETA GONZALEZ (Etxalar), Eñaut LAKA MITXELENA (Igantzi) • **Ent:** Justo AGIRRETXE-Javier ZUBIETA-Idoia TELLETXEA



## BETI GAZTE F.T.: ALEBINAK B

Aritz ARANBERRI GOIA, Beñat ESCUDERO GARMENDIA, Josu ETXEPETELEKU BURGUETE, Jon GALARDI TXOPERENA, Aitor GALARDI TXOPERENA, Jon LARRETXEA BALLESTER, Oier MITXELENA ZUBIETA, Nerea PETRIRENA APEZTEGIA, Naiara ROBLEDO PACCINI, Iker TELLETXEA OIARZABAL, Manex UBIRIA GARCIA, Oihan URROZ OIARZABAL (Lesaka); Aritz LIZARRONDO ETXARTE, Luken URTXEGI URRA, Manex SARASOLA ZELAIETA (Igantzi) • **Ent.:** Joel GIL eta Beñat IANTZI




## DONEZTEBE F.T.: ALEBINAK A

Oihan ELIZONDO OLLO, Ekaitz SAN MARTIN MAYLIN, Markel JABALERA JUANENA, Joritz IRIBARREN LIZARDI, Jokin AROZENA ILLARREGI, Ugaitz ALDABE TELLETXEA, Eki ZULAIKA IRIGOIEN, Miguel LAPUENTE SOARES (Doneztebe); Xuban ERBITI BALEZTENA (Donamaria); Eneit BERTIZ APEZETXEA, Aimar MIGELTORENA MUGIKA (Sunbilla); Aitor AGESTA MENDIBURU, Aritz ARAGON GARROTE (Zubieta); Beñat ALBISU ETXEBERRIA (B.Labaien) • **Ent.:** Beñat MIGELTORENA eta Eneko LORENTE




## DONEZTEBE F.T.: ALEBINAK B

Oihan SARRATEA ETXEKOLONEA, Aimar ESPERANTE MARIEZKURRENA, Eki ERASUN EZKURRA, Oier OIARTZABAL AGIRRE, Garikoitz SAN MIGUEL GRAGIRENA (Doneztebe); Aitor eta Mikel LORENTE AGIRRE, Alain SARRATEA FAGOAGA (Gaztelu); Oihan LUJANBIO PEREZ, Aitor IGOA ARRETXEA (Sunbilla); Beñat OIAREGI SAGASETA (Narbarte); Hodei IRIARTE JAUREGI (Donamaria) • **Entrenatzailea:** Haritz NARBARTE



## GURE TXOKOA F.T.: ALEBINAK A

Urtzi ETXEGARAI TABERNA, Aimar SAROBE ROMAN, Suharri IRATZOKI SENPER, Eneko LOIARTE OIARTZABAL, Andde MARI - TORENA TAPIA, Nahikari GOIKOETXEA URROZ, Ivan NUNEZ PEREZ, Ekain ZABALA ORTIZ, Adei VILLAMEA IGUZKIAGIRRE, Imanol ARANIBAR IPARRAGIRRE, Kenai GARCIA CURTO, Oier LASAGA MARTIKORENA, Ekai PONBAR HERNANDORENA, Joanes ARISTIMUÑO MUTUBERRIA (Bera); Pablo CUADRADO (Madril) • **Ent.:** Raul GARCIA eta Angel GOIKOETXEA



## GURE TXOKOA F.T.: ALEBINAK B

Luka TRILLO GOIA, Enaitz ERKIZIA LASAGA, Aimar MTNEZ SEOANE, Iker IPARRAGIRRE IRIARTE, Iker PETRIRENA PIKABEA, Ion ERRANDONEA GARBALENA, Jokin IRAZOKI TELLE - TXEA, Andoni LATORRE OSUA, Kemen RUIZ ZAPIAIN, Joel PRENDES PIKABEA, Unai ETXEBERRIA GOIA, Alain ZELAIETA BERASATEGI, Aritz GARCIA GARRAUS, Oihan PIKABE ELIA, Idoia IBARBOURE GALLEGO, Nahike ERKIZIA ORDOKI (Bera) • **Ent.:** Juan Luis IRAZOKI eta Aitor ERKIZIA



# BENJAMINAK FUTBOL-8



## BAZTAN F.T.: BENJAMINAK B

Izaro URRUTIA ITURRALDE, Mattin MARITORENA AGERRE, Ekai MARITORENA APEZETXE, Mattin MAIORA AZANZA, Antton TELLETXEA QUERTIER, Mikel BAYLON ITURRALDE, Ugaitz GARAIKOETXEA ARRETXEA, Mateo LERTXUNDI FLORES, Urko ISUSKIZA ARANBURU, Rafael DIAS DE ASIS, Javier ETXAIDE LOPEZ (Elizondo); Oihan ALEMAN AZKARRAGA (Irurita), Haritz BIDEGAIN ELIZALDE, Iker ETXEBERRIA JAURENA (Arizkun), Markel TORRES ALEMAN, Ibai MINDEGIA ETXENIKE, Aitor BARAIBAR GORTARI (Oronoz) • **Ent.:** Roman GARAIKOETXEA



## BAZTAN F.T.: BENJAMINAK B

Ander TELLETXEA DIAZ, Kaiet IRIBARREN OTEIZA, Aitor ESCUDERO BARRENETXE, Usoa MEOKI MUÑOZ, Jon PRUAÑO GOÑI, Ekain PERIRORIA ALDAKO, Gaizka TELLETXEA QUERTIER, Jorge VAZQUEZ VELASCO, Brayan CHAMBRA ORTEZ, Emilio MARTINEZ CRUZ, Christofer DE OLIVEIRA ORTEZ, Julen ALEGRE HUARTE (Elizondo); Xabier URRUTIA ESEBERRIA, Eneko URROZ GOÑI (Elbete); Aimar DYIAN GARATE (Irurita) • **Ent.:** Luis URRUTIA eta Unai BIKONDO



## BETI GAZTE F.T.: BENJAMINAK A

Iker IRIGOIEN UBIRIA, Iker ROBLEDO PACCINI, Oier ORDOKI FAGOAGA, Julen UBIRIA SUNSUNDEGI, Ibon RUIZ SARASOLA, Eneko IRAZOKI CARAMAZANA, Gastón NUÑEZ FAGUNDEZ, Unax BEREAU IRIGOIEN, Xabier VALVERDE LEIZA eta Aimar OTXANDORENA MITXELENA (Lesaka); Unax ETXARTE ETXEBERRIA (Igantzi) • **Ent:** Iker IRIARTE eta Unai LEIZA



## BETI GAZTE F.T.: BENJAMINAK B

Urko OLAIZOLA MENDEGIA, Unax eta Enaitz OSKOZ ANTZIZAR, Hegoi SILVEIRA ARRUTI, Goiuri, Peru eta Olarixu URRA IEKORA, Eñaut ARBURUA PORTU, Haizea AROZENA FRESNEDA, Oinatz AIESTARAN EIZMENDI, Ugaitz REBOLLO GAMIO, Ekhi ROJO RODRIGUEZ, Oier SANCHEZ ELISSALT, Uxue UBIRIA GARCIA (Lesaka), Gaizka SEIN ARBURUA (Igantzi) • **Ent:** Ibon TXOPERENA eta Jon UBIRIA



## BETI GAZTE F.T.: BENJAMINAK C

Beñat CRIADO ARRUABARRENA, Beñat ETXEPARE AIESTARAN, Ibai LEKUONA HUIZI, Mikel URDANGARIN TABERNA, Gerard eta Joel OROZKO RODRIGUEZ, Alex URROSOLO ELGORRIAGA, Eneko URKIOLA MARTIN, Beñat ZELAIETA EGIA, Unai ARANGUREN MUTUBERRIA, Libe TAPIA MUTUBERRIA, Aratz PEREZ ARRIZIZUELA, Iraia PIKABEA AZAAKO, Oier TAPIA ITURRIA (Lesaka), Oier LAKA MITXELENA, Kemen eta Oihan TELLETXEA SEIN (Igantzi), Peru ALMANDOZ URRUTIKOETXEA (Arantza) • **Ent:** Mikel TELLETXEA, Unai TELLETXEA eta Urki TXOPERENA



## DONEZTEBE F.T.: BENJAMINAK A

Argoitz ERASUN ORTUOSTE, Aimar BERASATEGI, Oihan ORBEGOZO, Unax ZULAIKA, Aitor SEIN, Alejandro IRIGOIEN, Iban BAQUEDANO, Nerea AGESTA, Aimar ELIZAGA, Oier ERKIZIA (Doneztebe); Mikel BASTANTE (Sunbilla); Urko REKARTE, Ugaitz ERBITI (Donamaria); Oinatz IBARRA (Elgorriaga); Mikel URROZ (Urroz), Zaira BENDOIRO, Uxue SANTESTEBAN (Zubieta) • **Entrenatzaileak:** Jaime SEIN eta Jon BELARRA



## DONEZTEBE F.T.: BENJAMINAK B

Ganix AZKARATE ERASO, Unai ERASO MITXELENA, Javier ZABALA SARASOLA, Jon LARUNBE ZELAIETA, Markel PIKABEA OIARTZABAL (Doneztebe); Ekaitz LOIARTE OTXANDORENA, Mattin AGESTA MENDIBURU, Lander INDAKOTXEA ZUBIALDE, Jon Ander ETXEBESTE FUENTES, Unai MENDIBURU ARGOTE (Zubieta); Urki ARIZTEGI BEREAU, Iñaki BAZTERRIKA ILARREGI (Ituren) • **Entrenatzaileak:** Jon Mikel IRAZOKI eta Iñaki MAYLIN



## DONEZTEBE F.T.: BENJAMINAK C

Koteto EZKURRA ARRETXEA, Hegoi GARTXITORENA ZABALETA, Amets JAUREGI FLORES, Mikel ARREGI ETXARTE (Doneztebe); Unai LIZASOAIN ETXEBERTZ, Oinatz BALEZTENA ARREGI, Ekain TELLETXEA ODRIOZOLA (Donamaria); Aimar SANCHEZ HDEZ. (Legasa); Alain BAZTERRIKA OBREGOZO, Xabier GORRIA ELIZONDO, Xabi ARMENDARIZ AIZKORBE, Eneko IBARRA OLAETXEA, Omar IRAZOKI EZKURRA (Sunbilla) • **Entrenatzailea:** Xabi BENGOTXEA



## GURE TXOKOA F.T.: BENJAMINAK A

Hurritz ANZIZAR SENPER, Hegoi LLUZIA BEORLEGI, Garazi HUIZI MATXIARENA, Erlaitz LASAGA MARTIKORENA, Mikel POMBAR HERNANDORENA, Mikel ZOZAIA IÑARREA, Unax CASTILLO FRANCO, Nimbe LIZARDI ARTOLA, Luka ALZUGUREN GOIA, Aimar ARANDIA ELIZONDO, Noah UBIRIA MENDEZ, Xanti AGIRRE GONZALEZ, Ion URKIOLA REBOLLO, Unai SANZ CRIADO, Mishel GONSALVES BORREL, Peio MARTIKORENA ETXANDI, Aitor eta Eneko ETXEBERRIA OSUA • **Ent.:** Oskar URKIOLA eta Julio ANZIZAR



## GURE TXOKOA F.T.: BENJAMINAK B

Jon eta Julen GOÑI OTAMENDI, Mattin PEREZ TAPIA, Aitor ETXEGARAI ELGORRIAGA, Peio MORATE ANDUEZA, Oier LLUZIA BEORLEGI, Bruno MONCALVILLO GARCIA, Ortzadar IRATZOKI SENPER, Martxel SALGADO IGUARAN, Peru LEKUONA MOLINERO, Oihan TELLETXEA IRIARTE, Eluska POMBAR LARRALDE, Ane ERRANDONEA GARBALENA • **Ent.:** Angel PONBAR, Iñigo SAROBE eta Sergio MORATE



## DONEZTEBE F.T.: TTIKIAK

Xabier OIARTZABAL AGIRRE, Aimar GARTXITORENA ZABALETA, Xabier BAKEDANO JUANIKORENA, Urtzi MENDIBURU ERASUN, Mikel VILLAMEA SARALEGI, Ibai ELIZONDO UTERGA, Mikel URREAGA ELIZONDO (Doneztebe); Izei BEREAU MINDEGIA, Markel ARIZTEGI BEREAU (Ituren); Oier REKARTE AGIRRE, Mattin INDA LUZURIAGA (Donamaria); Martxel URROZ TORRECILLAS (Urroz), Joanes BERTIZ GRAJIRENA, Ibai Arsen PETRIRENA GOROSTERRAZU (Sunbilla)• **Ent.:** Xabi LOPEZ DE EGILAZ

ttipi-ttapa

KIROL GEHIGARRIA 2016-17

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa
**Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457
whatsapp: 744 484361 • **info@ttipi.eus**
**Erredakzioa** Aitor Arotzena **Argazkiak** Menditarrak BRT, Foto Zaldua, Jose Mari Telletxea, Felix Loiarte, Pablo Feo, CD Baztan, Baztango BKT, Erreka KE, Aitor Arotzena
**Fundazioaren Presidentea** Pello Apezetxea
**Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien
**Administrazioa** Amaia Goia
**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673
•**Tirada** 6.000 ale

# ARETO-FUTBOLA



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA
Gure Txokoako areto-futbol taldeak maila mantentzea du helburu aurtengoan ere.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE
Umore Ona areto futboleko taldea, denboraldiko etxeko lehen partida irabazi zuenean.




ARGAZKIA: FOTO ZALDUA
Aurten ere gizonezko seniorren areto-futbol taldea kantxaratu du Doneztebek.

## Futbol ttikian ari dira haundiak

### Berako Gure Txokoa, Goizuetako Umore Ona eta Doneztebe ari dira

Leitza aldean, infantil eta alebin mailan ari dira neska-mutikoak areto-futbolean. Baina Beran eta Goizuetan urteak daramazki nagusien kirola ere izaten. Gure Txokoak Gipuzkoako bigarren mailari eustea izanen du aurtengoan ere erronka eta Umore Onak hirugarren mailan ahalik eta goitien bukatzea. Bigarren urtez Doneztebek ere atera du areto-futboleko taldea, iaz Nafarroako 3. mailan eta orain herriarteko ligan.

| GURE TXOKOA ARETO FUTBOLA (GIP. 2. MAILA) | |
|---|---|
| Joao Marco RIBEIRO MAESTRE | BERA |
| Fernando GOMEZ COLINA | BERA |
| Jon Mikel MATXIARENA ALDALUR | BERA |
| Iñigo ZELAIETA ALONSO | BERA |
| Mikel AGARA MARTINEZ | BERA |
| Fermin Jose BERRUETA PEREZ-LUCAS | BERA |
| Aitor CEREZO BASELGA | BERA |
| Gorka LEUNDA JIMENEZ | IRUÑA |
| Sabino GOMEZ DOMINGUEZ | BERA |
| Edwin Ivan JIMENEZ AVILES | EKUADOR |
| Unai LARRETXEA MATXIÑENA | BERA |
| Igor PANDO ARAMENDI | BERA |
| Gorka RETEGI ERRANDONEA | BERA |
| Jose Manuel RAMIREZ BURGUILLO | IRUN |
| Aritz ARBELAITZ IGOS | BERA |
| Eneko AGIRRE ARRIETA | BERA |
| Gustavo Adolfo ORELLANA JARAMILLO | EKUADOR |
| **Delegatua:** Angel GOIKOETXEA SAN JUAN | BERA |

| UMORE ONA ARETO FUTBOLA (GIP. 3. MAILA) | |
|---|---|
| Ekaitz LOIARTE VILLAR | GOIZUETA |
| Ander APEZETXEA ANSA | GOIZUETA |
| Patxi ETXEBERRIA ARANAZ | GOIZUETA |
| Iñaki ETXEBERRIA ARANAZ | GOIZUETA |
| Mikel HUIZI LOIARTE | GOIZUETA |
| Urko APEZETXEA LUJANBIO | GOIZUETA |
| Eder AGUILAR HUIZI | GOIZUETA |
| Ekaitz NARBARTE HERNANDEZ | GOIZUETA |
| Hodei LUJANBIO APEZETXEA | GOIZUETA |
| Xabier ZUGARRAMURDI ELIZALDE | GOIZUETA |
| Mikel PERURENA GARTZIARENA | GOIZUETA |
| Oihan ZUGARRAMURDI NARBARTE | GOIZUETA |
| Iñaki RODRIGUEZ TOMASENA | GOIZUETA |
| **Ent:** Alain GOIZUETA OIARTZABAL | GOIZUETA |

| DONEZTEBE ARETO FUTBOLA (HERRIARTEKOA) | |
|---|---|
| Ander ANDUEZA ETXEBESTE | DONEZTEBE |
| Ibai IRIBARREN LARRETXEA | URROZ |
| Jon MIKELARENA SUBIZAR | LEGASA |
| Unai JUANENA IRIARTE | DONEZTEBE |
| Aurelio BERTIZ GRAZENEA | DONEZTEBE |
| Aritz TAJADURA CABELLO | LEGASA |
| Josetxo OSTIZ GARTXITORENA | DONEZTEBE |
| Oier BEREAU ELIZALDE | ITUREN |
| Ibai JUANIKORENA LAKAR | ZUBIETA |
| Imanol DE RUEDA GOÑI | DONEZTEBE |
| Bingen LARREA LEKUBERRIA | ZUBIETA |
| Unai URROZ GELBENZU | DONEZTEBE |
| **Entrenatzailea:** Aritz ARRIOLA CAPDEGUI | SUNBILLA |

**OSPAKIZUNA ➜** ABENDUAREN 3AN

# Euskararen eguna ospatzeko boluntarioak behar dira

## Lagundu nahi duena festa batzordearekin harremanetan jar dadila

**Juana Mari SAIZAR**

Euskararen eguna ospatzeko ekitaldiak egin izan dira azken urteetan herrian. Festa batzordeak hartu izan du bere gain festa antolatzeko ardura eta zenbait herri - tarrek ere lagundu dute.

Aurten ospakizunik izango ote zen erabakitzeko bilera deitu zuten azaroaren 14an eta jasotako erantzuna nahi baino apalagoa izan zen.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Iazko Euskararen egunean kantu-poteoa egin zuten.

Eta ez balitz Euskararen Eguna ospatuko, zer? Bat baino gehiagok erantzungo luke pena handia izango litzatekela. Orduan, zer egin? Konponbidea gure eskuetan dago. Bakoitzak ahal duenean lagunduz gero, festa egun polita osatu liteke. Erosketak egin, bazkaria prestatu, mahaiak jarri... zer egina izaten da. Zerbaitetan lagundu nahi duenak, nahikoa du festa batzordekoekin harremanetan jartzea. Denen laguntza ongi etorria izango da. Animatu!

Momentuz, ekitaldi bakarra dago ziurtatuta, haurrentzako *Areso ezagutuz* lehiaketa. Eskolako irakasleen laguntzarekin antolatu dute eta hiru taldek parte hartuko dute. Talde bakoitzean DBH eta LHko hiru ikasle arituko dira eta herriari buruzko galderak erantzun, ariketa desberdinak egin eta batez ere ongi pasatzeko aukera izango dute. Lehiaketaren ondoren txokolatada izango da.

**GIZARTEA**

## Administraria kontratatu du Udalak

**Juana Mari SAIZAR**

Aurreko aldizkarian aipatu genizuen administraria kontratu behar zuela Udalak. Hautaketa fasea bukatuta Goizuetako Olatz Zubirik lortu du postua eta dagoeneko lanean hasia da. Horregatik, Udaletxeko jendaurreko zerbitzua berriro ere osorik eskainiko da. Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 15:00etara herritarren zalantzak argitu, tramiteak egin eta beste zenbait kontutarako laguntza izango dute herritarrek. Momentuz sei hilabeterako lanpostua izango da eta gerora postua sortu edo ez baloratuko dute.



ARGAZKIAK: MIKEL SAIZAR

### 18 pertsona ari dira joste ikastaroan

Azaroaren 7an hasi zuten makinaz josten ikasteko ikastaroa herriko 18 lagunek. Carmen Rezola herritarra ari da irakasle lanetan eta bi taldetan banatuta astelehenero izaten dituzte klaseak, 19:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 21:00etara.



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

### Aresoarrek plazara atera dituzte sasoiko produktuak

LeitzEko kontsumo taldeak egindako proposamenari heldu eta aresoarrek ere parte hartu zuten azaroaren 13an Leitzan egin zen azokan. Postuak txukun txukun jarrita, produktu aukera zabala eskaini zuten: intxaurrak, mizpirak, banabarrak, arto-irina, mermeladak, askotariko postreak, salda eta haragi pintxoak... guztiak sasoiko produktuak eta herrian bertan ekoiztuak.

# LEITZA

KIROLA ➜ IKASTURTEARI HASIERA EMANEZ

## Kiroldegiak azaroaren 14an ireki zituen ateak

Ikastaro zein ekintza guztiak martxan jarri dituzte

JM BARRIOLA

Kiroldegia berritzeko lanak direla eta kiroldegia itxita egon da azken hilabeteetan. Udan zehar teilatua konpontzeko lanak burutu ziren eta abuztuan hasi ziren egitura indartu eta leihoak aldatzeko lanak. Lehenbiziko faseko lanak ziren horiek eta bukatu dituzte dagoeneko. Orain bigarren faseari ekingo zaio eta horrek zerbitzua %100ean martxan ez egotea suposatzen badu ere, azaroaren 14an ireki zituzten kiroldegiko ateak. Egun berean eman zitzaion hasiera ikasturteari eta ekintza zein ikastaro guztiak martxan jarriko dira.

Anikote enpresako arduradunek beste behin ere herritarrei eskerrak eman nahi izan dizkiete, obrak egin bitartean sortutako eragozpenak ulertu dituztelako.



## FLASH

### Kaxkabeltza elkarteak 100 euroko 5 erosketa txartel zozketatuko ditu

Azaroaren 30a bitarte, Kaxkabeltzako komertzio edo zerbitzuetan 10 eurotik gorako erosketa bakoitzeko zigilu bat lortuko dute bezeroek. Bost zigilurekin txartela osatzen dutenean zozketan parte hartzeko aukera izanen dute.

### Ikur frankisten aurkako ekimenak antolatu ditu Ernai erakundeak

Azaroaren 21eko astean herrian dauden ikur frankistak identifituko dituzte eta 28koan markaketa astea egingo dute. Abenduaren 6an berriz, *Pikutara eguna* antolatu dute.



ARGAZKIAK. E. IRAOLA

### Leitza eta Aresoko produktuen azoka arrakastatsua

Leitzako Udalak eta LeitzEKo kontsumo taldeak elkarlanean, bertako produktuen II.azoka antolatu zuten azaroaren 13rako. Euria goian behian ari zuenez, Amazabal pilotalekuan jarri zituzten salmenta-postuak, denera 23 (aurten estreinakoz aresoarrak ere bai). Sasoiko produktuak erosteko aukera egon zen eta baita bertako ekoizleek egindako eztia, gozoak, marmeladak, gazta... ere. Tartean hazi berezietatik lortutako zenbait barazki eta fruta ere ikusgai jarri zituzten. Horretaz gain, oilar eta oiloak, untxiak eta akuriak ere jarri zituzten aterpean. Kanpoaldean berriz, Villabona eta Saralegi talogileak eta txerria burduntzian prestatu zuten Atekabeltzeko kideak zeuden. Baita behorrak, pottokak, ardiak, zerria, astoak eta antzarak ere. Antolatzaileek boluntarioen laguntza eskertu eta azokaren balorazio oso ona egin dute «jende asko erakarri zuen azokak eta ekoizle, herritar eta bisitarien artean hartu-emana sortu zen». Harreman horrek urte osoan zehar segida izan dezan, bertako ekoizle guztien telefono eta helbideak biltzen dituen eskuorriak banatu zituzten. Bertako produktuekin saski bat ere zozketatu zuten eta Idoia Martinez Barrankok eskuratu zuen. Azaroaren 10ean Atekabeltzen elikadura burujabetzari buruzko hitzaldiak eta azokak, ekoizle zein herritarren artean piztu duten ilusioa ikusita Udalak bertako produktuen inguruko mahaia martxan jartzeko asmoa du. Honen inguruan solasteko azaroaren 24an 19:00etan bilera irekia antolatu dute Udaletxean.

AZAROAREN 18AN EGIN DUTE AURKEZPENA

### ‘Lau Aro’ argazki liburua kaleratu dute

2015ean egindako *Lau Aro* ikuskizunean lortutako diruarekin, Leitza eta lau aroak oinarri hartuta, argazki bilduma kaleratu dute. Bertako paisaiak, animaliak, landareak, ohiturak eta herritarrak ageri dira liburuan, urtaroen erritmoan aldatuz. Miel Mari Elosegi eta Pablo Feok hartu dute liburua osatzeko ardura eta Lau Aroko lantaldearen eta beste hainbat herritarren laguntza ere izan dute. Eskerrak eman nahi izan dizkiete guztiei:

*Laguntza gabe lan hau ez zenez argitara aterako*
*babestu duten guztientzako bihotzez, eskerrik asko*
*ta liburua izan dadila, eskeintza hori delako:*
*gure herria zinez maitatu,duzuen guztientzako.*

Maimur eta Astizen eros liteke, 15 eurotan.



**OSPAKIZUNAK ➜** AZAROAREN 26AN

# Azienda Feria Egunak borobilduko du Azaroko Kulturaldia

## Iturengo joaldunak ibiliko dira eguerdian

**TTIPI-TTAPA**

PHamahirugarren edizioa izango du aurten Umore Ona elkarteak, Guraso Elkarteak, Gazte Asanbladak eta Kultur Taldeak, Udalaren laguntzaz antolatutako Goizuetako azienda, artisau eta nekazaritza feriak eta aurten ere nobedadez beteta dator azaroko azken larunbata.

10:00etatik 13:00etara, artisau eta nekazaritza postuek beteko dute herria eta tartean hainbat ikusteko izanen dira : zerri ixtegia erakustaldia (10:00), sagardogileak, sifoia, erroskilak, talogileak, joaregileak… Goizean herriko trikitilariak ere ibiliko dira kalez kale eta 11:00etan Olasoko ardi erakustaldia eginen da. 12:00etan Iturengo joaldunak ibiliko dira-

14:00etan bazkaria izango da Goiko frontoian. Txartelak Amaia kafetegian daude salgai. 8 urte bitarteko umeek doan dute sarrera. 9 urtetik 16 urte artekoek 10 eurotan, 17 urtetik aurrerako ikasle eta langabetuek 18 eurotan eta langileek 21 eurotan. 18:30ean poteoa izanen da herriko trikitilariekin.



ARGAZKIAK: JULEN APEZETXEA ETA FELIX LOIARTE

Azaroko Kulturaldia aurrera doa. Lehen asteburuan, jubilatuek bazkaria ez ezik, mus eta truk txapelketak jokatu zituzten. Bigarrenean *Ametsen liburua* aurkeztu zuten Iñigo Elizegik eta Jokin Urainek eta herriko hizkerari buruz aritu zen Oihana Lujanbio.

### ASTEBURUKO BESTE EKITALDIAK

Baina Feriaz gain, azaroko azken asteburuak beste ekitaldi interesgarriak ere izanen ditu. Azaroaren 25ean, ostiralean 18:30ean emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontzentrazioa eginen da plazan, Nazioarteko Egunaren harira. 19:00etan Ganbaran, *Esentzia* bere azken liburua aurkeztuko du Ander Olaizola herriko argazkilariak.




ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

### Aizkorbe-Apezetxeak Gartzaronen txapela

Azaroak 5ean jokatu ziren Gartzarongo pilota txapelketaren finalak. Kadete mailan, Aizkorbe eta Apezetxeak (Umore Ona) 18-14 irabazi zieten Oberenako Mata eta Santamariari.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 116 kiloko basurdea

Motzaneko kuadrillak 116 kiloko basurdea bota du herriko mendietan.

# ARANO

OSPAKIZUNAK ➜ AZAROAREN 12AN

## Ekitaldi dotoreak San Martin eguna ospatuz





ARTXIBOKO ARGAZKIA
Goizuetarrekin mendi ateraldian eta sagar jotzen: ederki pasa zuten herritarrek.

Goizuetarrekin mendi ibilaldia, sagar jotzea eta hainbat ekitaldi

**Ainhoa ANSA**

San Martin eguneko ekitaldiek ez zuten jende asko mugitu, baina hurbildutakoak gustura ibili ziren.

Goizean ibilbide megalitikoa egitea ohitura bihurtu da egun honekin aranoarrentzat. Aurten Ezkerren Bordako Juan Mari Ansa, inguruko eta Euskal Herriko horrenbeste ibilbideri buruz hainbat liburu idatzi izan dituen laguna, izan da gonbidatu berezia eta goizuetarrak lagun hartuta egin da ibilbidea.

Urgaratan (Goizuetan) elkartu eta hango jentil baratzetan hasita, ibilbideari batera eman zioten segida. Añoneko trikuharria pasata, Errekalkon salda beroberoa hartu zuten. Bueltan, kaxkoz kaxko Arano eta Goizuetako mugaren lerroak zapalduz, eta Aranoko lurretan ikus daitezken jentil baratzetaz gozatuz egin zuten bidea. Eta nola ez, bi herrietako bista zoragarrietara begiak etengabe zuzenduz, itsasoa ere lagun zutela, azkenik Oraunen (Aranon) elkar agurtu zuten bi herrietako auzokideek.

Talo eta gaztain jateak ere ez zuen hutsik egin. Umeak zain egoten dira eta haiek egindako taloak jaten dituzte gero. Aurtengo ekitaldi berezia Arantxa Ansak. Martzeneko lehengo panaderi zaharra izandakoan, emandako Sagar jotze eta txalaparta tailerra izan zen. Duela urte batzuk Ezkerren bordan grabatutako sagar jotzeko irudiak jarri zituen. Sagar jotzea txalapartarekin modu oso praktiko eta dibertigarrian lotu zuen, tartean, Arizkungo kirikoketa bestako irudiak ere erabiliz. Jose Inazioren tresna modernoagoak erabilita sagarra jo, prentsatik pasa eta muztioa edateko aukera ere izan zuten umeek taloak egitera joan aurretik.

### GURE ESKU DAGO

Gure esku dagoren aurkezpena egin zen udaletxeko ganbaran San Martin eguneko egitarauarekin tartekatua. Eskualdean zer martxa dagoen azaltzera etorri ziren Goizuetatik eta hemendik aurrerako pausoak zein izango diren pentsatu beharko da orain herritarren artean. Herrian dinamika ahalik eta jende gehienari ezagutaraztea garrantzitsua izango da.

### Yoga hastapen tailerra

Abenduaren 3an, Kontsejuko ganbaran Yoga hastapen tailerra antolatu dute. Larunbat goizeko 9:30etik 11:00 arte. Yoga zer den probatu nahi duenak hemen izango du aukera aproposa. Arropa erosoa ekartzea eskatu dute.

---

GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK ANTOLATUTA

## Azaroaren 25aren inguruan egitarau zabala prestatu dute Leitzaldean

Emakumeenganako indarkeria ikusarazi eta herritarrak sentsibilizatu eta konprometitzeko helburuarekin, ekimen desberdinak antolatu ditu Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. *Herritargo konprometitu baten alde, emakumeenganako indarkeriaren kontra* lelopean, ipuin kontalaria, elkarretaratzeak eta film emanaldiak antolatu dituzte.

**Areson**, azaroaren 21ean hau - rrentzako *Berdintasuna maita dugulako* ipuin kontaketa saioa antolatua zuten.

**Aranon,** abenduaren 2an udaletxeko ganbaran izango dute ipuin kontalari honen bisita, 20:30ean.

**Leitzan,** azaroaren 24an, osteguna, *Neska banda* filma proiektatuko da Atekabeltzen, arratsaldeko 7etan. Azaroaren 25ean, ostirala, elkarretaratzea deitu dute Udalak eta Berdintasun Batzordeak, eguerdiko 12etan Plazan.
Egun honen harira azken ekimena, azaroaren 27an, igandea izanen da. Arratsaldeko 7etan *Lagun bati gertatu zitzaion* bakarrizketa emanaldia eginen da zinean.

**Goizuetan,** azaroaren 25ean elkarretaratzea antolatu dute plazan 18:30ean. Eta abenduaren 2an *Lagun bati gertatu zitzaion* bakarrizketa izango da 19:00etan Udaletxeko ganbaran, 12 urtetik gorakoentzat.

**AISIALDIA** ➜ AUKERA ZABALA IZANEN DA

# 2017ko bidaia, ikastaro eta irteerak antolatzen hasiak dira

## 432.234 euroko aurrekontua izanen dute

**Fernando ETXEBERRIA**

Azaroaren 15ean, Arkupeak Elkarteko zuzendaritzako kideek bilera egin zuten eta landutako gaien artean garrantzitsuena 2017 urteraren planifikazioa izan zen.

15. boletina prestatzen hasiak dira eta bertan 2017 urteko lehenbiziko sei hilabeteko ikastaro, irteera eta bidaiak bilduko dituzte. Horretarako, 432.234 euroko aurrekontua izanen dute.

**BERRIKUNTZAK**

Badira urtez urte errepikatzen diren irteera eta bidaiak eta horiekin batera, berrikuntzak ere izaten dira. Aurtengo bidaien artean, azpimarragarria da Portugalera antolatu duten bidaia. Fatimako Ama Birjina agertu zeneko ehungarren urteurrena ospatuko dute 2017an eta Aita Santuak bertara bidaiatzeko asmoa du.

Paraje berriak bisitatu eta gauza interesgarriak ikasteko aukera ere ez da faltako. Errioxara, Pradejongo txanpinoi haztegira (Espainiako handiena da) bisita antolatu dute eta Pasaiako Albaola bisitatzera ere joanen dira, bertan eraikitzen ari diren XVII. mendeko itsasontziaren erreplika ikustera. Getariako Balentziaga museoa eta Bizkaiko kostaldea bisitatzeko aukera ere izanen dute.





ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

### 76 elkartekidek bidaiatu dute Kanariar Uharteetara

Loiuko aireportutik abiatuta, zortzi eguneko atsedenaldiaz gozatzeko asmotan joan ziren elkarteko 76 kide Kanariar Uharteetara.Bidaia hau antolatzeko orduan buruhauste bat baino gehiago izan da, bidaiari kopuruak aurreikuspen guztiak gainditu zituelako baina azkenean dena oso ongi atera zen. Eguraldi bikaina izan zuten lagun eta irlan barrena bost irteera egiteko aukera ere izan zuten. Nabarmentzekoak dira Mogan portuko bistak, Venezia txikia deitzen diote herria ubide aunitzek zeharkatzen dutelako. Irlako punturik altuenera ere igo ziren batzuk, Roque Nublora, 1.813 metroko altuerarekin eta behelainoa, hotza eta euria izan zituzten bidelagun. Hiriburua bisitatzeko aukera ere izan zuten, erosketa batzuk egiteko aprobetxatuz. Aipagarria da hotelean pultseratxoa eskatu izanak arrakasta handia izan zuela, horri esker, kafe, freskagarri eta edari guztiak dohainik hartu ahal izan zituztelako.

**AZAROAREN 22 ETA 27AN**

## Hiritar segurtasunari buruzko hitzaldiak Elizondo eta Beran

**Fernando ETXEBERRIA**

Nafarroako Foruzaingoko kide batek, hiritar segurtasunari buruzko hitzaldiak eskainiko dizkie Arkupeak Elkarteko kideei. Lehenbiziko saioa azaroaren 22an egitekoa zuten Elizondon eta bigarrena Beran izanen da azaroaren 27an. Gertakari biolentoen aurrean nola jokatu eta batez ere adinekoei eragiten dieten iruzurrak nola ekidin jakiteko aholkuak emanen dizkie.





ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

### Lodosako piperren eta ardo onaren sekretuak ezagutuz

Azaroaren 3an, 143 elkartekide joan ziren Lodosara Peron piper-fabrika bisitatzera. Talde handia zenez, hiru taldetxotan banatu behar izan zuten eta Lodosan gelditu zirenek herriko tokirik garrantzitsuenak bisitatzeko aukera izan zuten. Piper-fabrikatik Valdelares upategira joan ziren elkarrekin eta ardo desberdinak probatzeko aukera izan zuten bertan. 14:30ean bapo bazkaldu eta bazkalondoan bingoan ere aritu ziren. Gero dantzaldia izan zen Jose Angelekin eta 18:00ak aldera abiatu ziren etxerako bidean.

# BAZTAN

**GIZARTEA** ➜ ANIZEN ETA BERROETAN HASIKO DIRA PROBA EGITEN

# Etxeko hondakinen kudeaketa ereduan urrats berri bat eman nahi du Udalak

Errefusarendako edukiontziaren tapa aldatu eta aho ttikia jarriko zaio

**TTIPI-TTAPA**

Birziklapen emaitzak urtetik urtera hobetzea lortzen ari bagara ere, oraindik bide luzea dugu egiteko hondakinen kudeaketari dagokionean. Honelaxe uste dute Baztango Balleko Etxean. Orai, Nafarroako Hondakinen Plana onartzeko atarian dagoenean, eta klima aldaketaren eta ekonomia zirkularraren gaia pil-pilean dagoenean, «ezinbertzekoa dugu sortzen dugun hondakin kantitateari erreparatu eta hauen aitzinean egin behar dugunaren inguruko hausnarketa egitea plan eta politika hauetan planteatzen diren helburuak bete edo hauetara hurbildu nahi badugu bederen».




UTZITAKO ARGAZKIA

**Saharaztanen bizikleta Oronozko Melo Berhorentzat**

Elizondoko ferietan Saharaztanen alde egin zen tonbolako bizikleta (Berako Katea Bikek emana) Oronozera joan da, Melo Berho Mikelarenak eraman du. Saharaztan elkarteko Lupe Zubeldiaren eskutik jaso du. Zorionak!

Gure indarrak gai organikoan jartzea gaur egun beharrezkoa dela uste du Udalak. «la %80ean ura den frakzio hau Nafarroako bertze puntaraino garraiatzen aritzeak ez du zentzurik eta garesti ateratzen zaiku gainera! Gai organikoa, hemen, Baztanen, tratatzen ahal dugu. Frakzio honek lurrari berea dena itzultzeko aukera ematen digu eta horretarako informazioa eta jendearen inplikazioa bertzerik ez dugu behar».

Hau lortzeko bidean bada, eman da Udaletik pausu berria, hondakinen bereizketa gaizki egiten duten edo egiten ez duten herritarrei trabak paratu eta ongi egiten dutenak saritzea da intentzioa. Berroeta eta Anizko herritarrekin eginen dute lehen froga. Beraien birziklapen maila neurtu dute, zer egin nahi den kontatu diete, beren inplikazioa eskatu diete eta denei informazioa eman ondoren errefusarendako duten edukiontzi berdearen tapa aldatuko dute, tapa edo aho ttikia jarriko diote, legez kontra, zabor guztia nahasia botatzen duenari trabak paratzeko eta neurri batean, hala, gaizki egitea saihesteko. Parte hartzen eta ongi egiten duenak aldiz, bere saria izanen du.

Aniz eta Berroetan sortzen den gai organiko guztia herrian tratatzea lortu nahi dute, beraiek konpostatuko dute beren gai organikoa eta errefusa edo gainerako ez birziklagarria ahalik eta gehien murrizten saiatuko dira. Udalaren oharrak dioenez, «ikusi behar ea lortzen dugun! Hori bai, lortuz gero, posible dela erakusten badigute, haiek izanen dira Baztanen eredu eta gainerakoek ere esfortzua egin beharko dugu denen artean Baztan garbiago eta jasangarriagoa lortu ahal izateko!».

---

**16.000 ETA 36.811,15 EURO BANATUKO DITU HURRENEZ HURREN**

## Gizarte jardueretarako eta nazioarteko kooperaziorako dirulaguntzak eman ditu Balleko Etxeak

**TTIPI-TTAPA**

2016 urtean Baztanen gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteak eta nazioarteko kooperaziorako proiektu, programa eta planak diruz laguntzeko dirulaguntzak onartu ditu Baztango Udalak.

**GIZARTE PROIEKTUETARAKO 16.000 EURO**

Gizarte proiektuak eta jarduerak garatzen dituzten talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarteek 16.000 euroko dirulaguntza jasoko dute Udaletik, honela banatuak: Bidelagun elkarteak 2.851,49 euro, Xaulik 2.534,65 euro, Asomak 1.346,53 euro, Anasaps-Dizdirak 2.297,03 euro, Elikagai Bankuak 2.772,28 euro, Anfasek 2.851,49 euro eta Acodifnak 1.346,53 euro.

**NAZIOARTEKO KOOPERAZIORAKO 36.811,15 EURO**

Nazioarteko kooperaziorako proiektu, programa eta planak diruz laguntzeko, berriz, 36.811,15 euro bideratu ditu Baztango Udalak, gisa honetara banatua: Saharaztan elkarteari 3.240 euro, Frantziskotar Konbentualei 2.203,61 euro, Behar Bidasoari 2.786,89 euro, ANARASD-i 2.333,22 euro, La Esperanzari 2.203,61 euro, Ambalari 2.462,84 euro, Bigarren Familia egitasmoari 2.203,63 euro, Juan Bonal Fundazioari 2.267,69 euro euro; Vicente Ferrer Fundazioari 2.268,41 euro, Mugarik Gaberi 2.786,89 euro, Arquitectura Sin Fronteras-i 2.657,89 euro, Bakerako Lankidetza Batzarreari 2.267,69 euro, Nuevos Caminos-i 2.267,69 euro, El Salvador Elkartasunari 2.851,70 euro eta Itakari 2.009,19 euro.

OSPAKIZUNAK ➜ AZAROAREN 26AN

# San Andres besta ospatuko dute Zigaurren



UTZITAKO ARGAZKIA

Mus txapelketa jokatuko dute aurten ere.

## Afarirako txartelak hartu behar dira aitzinetik Iruritako Txokoa ileapaindegian

TTIPI-TTAPA

Aurtengoan Zigaurren dagoen San Andres ermitaren aitzakian Zigetarrek bertze behin ere San Andres ospatuko dute Zigako frontoian azaroaren 26an, larunbatarekin.

Azken urte hauetan arratsalde eta gau osoko egitaraua antolatzen dute gazte komisioko-ek. Eta aurten ere horrelaxe egin dute. Arratsaldeko 4:30ean eskolako sabaian haur eta gaztetxoentzat tailerrak izanen dira eta ondotik txokolatada. 18:00 mus txapelketa elkartean. Eta ondotik 21:00etan Agerraldek alaiturik afaria izanen da. Aurten ordea, afarirako aintzinetik txartela hartu beharko da. Horretarako azaroaren 20an, meza ondotik elkartean txartel salmenta egin zuten. Eta 22tik 25era Iruritako Txokoa ileapaindegian ere izanen dira afariko txartelak salgai.

**?**

### Ba al zenekien

**Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira elkarretaratzea egineen dela hilaren 25ean, ortzirale eguerdian Elizondon**

## FLASH

### Bertso marraztuak

Unai Gaztelumendi karikaturgileak eta Julio Soto eta Oihana Bartra bertsolariek marraztuko dituzte bertsoak azaroaren 27an, igandean 19:00etan Arizkunenean.

### Nafarroaren Eguneko kontzertua

Nafarroaren Eguneko ospakizunen baitan, Elizondoko Recreo musika bandak kontzertua eskainiko du abenduaren 3an, larunbatean 13:00etan Arizkunenean. Sarrera dohainik izanen da lekuak bete arte.

### Baratze kritikoa erakusketa

Mugarik gabe erakundeak antolatuta, *Baratze kritikoa* erakusketa ikusgai izanen da abenduaren 5etuk 16ra arte Arizkunenean.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Ia 2 kiloko onddoa Arizkunen

Arizkungo Joxemari Soulek 1.850gramoko onddoa harpatu zuen mendi itzuli batean. Honen edertasuna ikusita otordu elegatea egin izanen zuen.



# BAZTAN

**GIZARTEA ➜** GEHIENEKO ABIADURA ORDUKO 20 KILOMETRORA MUGATU DA

## Elizondoko Baztan Berri auzoan trafikoa berrantolatu dute

Bulebarretik autoak ez dira pasatzen ahalko haurren segurtasunerako



UTZITAKO ARGAZKIA

Gehieneko abiadura orduko 20 kilometrokoa da orai auzo osoan.

**TTIPI-TTAPA**

Elizondoko Baztan Berri auzoko trafiko antolaketa berria abian da. Antolaketa berriarekin haurren segurtasuna bermatuko da eta, horretarako, auzoko bulebarretik autoak ez dira pasatzen ahalko. Auzotarren eskariari kasu eginez aurtengo udan Baztango Udalak, Elizondoko Herriak eta barrideek bi batzarre egin dituzte. Batzarre horien emaitza trafiko antolaketa berria izan da eta neurri nagusia aipatu autoen pasabidea debekatzea. Horrek, aldi berean, auzo barneko errepidea norabide bakarrean paratzea eta autoak aparkatzeko tokiak berrantolatzea ekarri du.

Modu horretan udaleko enplegu sozialeko langileak seinale berriak paratzen eta araukteta berriaren arabera lurreko margoketak egiten aritu dira. Halaber, inguru guztia 20 km/hra mugatu da. Aste honetan bulebarreko autoen pasabidea galerazteko lorontziak paratu dira.

Baztan Berri auzoa Elizondoko berrienetakoa da eta bertan bikote gazte eta haur aunitz daude. Trafiko antolaketa berria egin artio autoak haurren jolastokirat ematen duen bulebarretik pasatu zitezkeen eta horrek arrisku egoerak sortzen zituen. Oraingo aldaketak segurtasun handiagoa ekarriko du.

**ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLA**

### 50. urteurreneko erakusketa

**TTIPI-TTAPA**

*Elizondoko Lanbide Eskola 50 urtez lan bidean* erakusketa ikusgai dago azaroaren 21etik abenduaren 3ra bitarte Arizkunenean. Astelehenetik larunbatera 17:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 10:00etatik 13:00etara zabaltzen ditu ateak erakusketak eta bertan, 50 urte hauetako argazkiak eta bertzelako agiriak ikus daitezke.

**ABENDUAREN 2AN HITZALDIA**

### Donejakuez Bideaz eta ermitaz

**TTIPI-TTAPA**

*Baztango Donejakue Bidea eta Donejakue ermitaren berreraiketa ermitako lepoan* izenburupean solasaldia eskainiko dute Jenaro Arrecheak eta José Fernandez D'Arlasek abenduaren 2an, ortziralean 19:00etan Arizkunenean. Baztango Donejakue Bidearen Lagunaren Elkarteak antolatu du hitzaldi interesgarria.

## FLASH

### Helduendako antzerkia Iruritan

Ados Teatro taldeak *Ladydi Garcia* helduendako antzezlana eskainiko du abenduaren 4an, igandean 19:00etan Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Sarrera dohainik izanen da lekuak bete arte.

### Hizkuntza gutxiak kantuz solasaldia

Hizkuntza gutxiak kantuz solasaldia eskainiko dute abenduaren 8an, ortzegunean 19:00etan Arizkunenean, Baztango Udalak eta Garabide elkarteak antolatuta.

### Ugandako gospel musika Aba Taano taldearekin

Ugandako umezurtzetxe batean sortutako Aba Taano gospel musika taldeak emanaldia eskainiko du abenduaren 3an, larunbatean 18:00etan Elizondoko elizan. Sarreran borondatea eskatuko da, biltzen duten dirua aipatutako umezurtzetxe horretara bideratzen baitute.

### Txotxongilloak Arizkunenean

6-12 urte artekoei zuzendutako Katillukadak txotxongilloak ikuskizuna eskainiko dute abenduaren 11n, igandean 17:00etan Arizkunenean. Txotxongiloak manipulatzeko 4 teknika ezberdin erabiltzen dituzte.







# ZUGARRAMURDI

**KIROLA** ➜ PILOTA MODALITATEA BERRESKURATUZ

## Boteluzean aritzeko taldea gogotsu sortu dute herriko gazte batzuk





UTZITAKO ARGAZKIAK
Etxalarko eta Zugarramurdiko taldeak Etxalarren urriaren 12an jokatutako partidan.

Abenduaren 10ean ariko dira Etxalarko taldearen kontra

**Margari eta Koro**

Pilota joko kontuan afizio berri bat sortu zaigu herrian: Boteluzeko jokoak. Modalitate zaharra da, baina aspaldi galdua zena, eta orain dela zortzi bat urte Lapurdin berreskuratu dutena.

Lehen artzainek desafioak egiten zituzten beraien artean mendian, sorotan jostatzen, eta hortik sortu zen modalitate hau. Gaur egun ere soroetan jostatzen saiatzen dira, baina entrenamentuak frontoietan egiten dituzte. Ekipaka jostatzen da, eta jokalarien kopurua ekipa bakoitzak duen eremuaren neurriaren araberakoa da.

Dakigunez, gaur egun Oiartzun, Itsasun, Donapaleun eta Angelun jostatzen da, eta berriki Etxalar eta Zugarramurdin ekipa bana sortu dute.

Bi ekipa hauek elkarren kontra arituak dira, lehenbizikoz Zugarramurdin eta herritarrak nagusitu ziren; bigarrenez Etxalarren aritu ziren, urriaren 22an, eta hortan ere zugarramurdiarrak nagusitu. Orain bertze desafio bat jarria dute abenduaren 10erako, ikusi nahi duenak, goizeko 10:00etan du zita.

Herriko ekipa osatzen dutenak hauek dira: Olivier, Eneko, Frantxixko, Joseba, Iban ta Ramuntxo.

Umore oneko partidak izaten dira; partida bera animatua izaten da eta ondotik ere besta giroa sortzen da. Animatu eta zatozte abenduaren 10ean joko pullit hau ezagutzerat Zugarramurdiko frontoierat.

Mirentxu
Eguberri eta urteberri on!
Serapio Mugika, 15 • IRUN
943 618 033
Urdaneta, 12 • ORDIZIA
943 881 278
www.mirentxu.net
Nesken baserritar jantzi beltza osoa
39€
Nesken baserritar jantzi koloreduna osoa
49€tik hasita
Mutilen galtzak 9,95€
Blusak 12,95€
Tokilak, manttalak, atorrak, abarkak, zapinak, txalekoak ...
0-16 neurriko umeen arropak
8-16 urteko neska mutikoetan bereziituak
Bertan eskuz egindako soinekoak
Bodyak, barruko arropa, leotardoak, galtzerdiak, seaskak, oinetakoak

# URDAZUBI

**GIZARTEA** ➔ NAFARROAKO GOBERNUAK

## Alkerdiko meatzea ustiatzeko kontzesioa luzatzeko eskaera ukatu du

Jarduera eten dezala eskatu dio Mármoles del Baztan enpresari

**TTIPI-TTAPA**

Mármoles del Baztán enpresak Alkerdiko ustiapen-kontzesioa luzatzeko egindako eskaera ukatu du Nafarroako Gobernuak. Baliabide mineralen aprobetxamendua berriki aurkitutako arkeologia-gunearen babesarekin "bateraezina" dela dioen ebazpenaren bitartez, Nafarroako Gobernuak enpresari jarduera eten dezala eskatu dio, eta beharrezko neurriak har ditzala pertsonak eta ondasunak babeste aldera. Zehazki, bi hilabeteko epea eman dio Energia, Meatze eta Industria Segurtasun Zerbitzuaren aurrean berrezarpen-proiektu bat aurkez dezan eta, haren barnean, lanak behin betikoz uzteko proiektua jasoko da.

Gogoratuko denez, Gobernuak ekainean 2011n eskatutako eta 2013an emandako kontzesioa berraztertzeko prozedura berri bat hasi zuen.

Kulturako zuzendari nagusiak luzapenaren aurkako txostena egin zuen, Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako azterketaren ondorioei erreparatuz; haien artean sartzen da, harrobia ustiatzen jarraitzea ez dela bateragarria Kultur Intereseko Ondasunaren kontserbazioarekin.

Txosten horren arabera, Alkerdiko lezeak Kultur Intereseko Ondasun (KIO) bihurtu dira automatikoki. Bertzalde, Ingurumen Kalitatearen eta Klima Aldaketaren Zerbitzuak txosten bat egin zuen; «eskatutako luzapenaren ingurumen-eraginaren adierazpena ezingo zen inolaz ere positiboa izan, erauzteko jarduera ondare arkeologikoa mantentzeko eta kontserbatzeko betebeharrarekin bateraezina baita». Bidenabar, adierazi zuen, Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako txostenaren arabera, «berrezarpen-plan berri bat idatzi beharko dela eta, bertan, beharrezko ekintzak jasoko dira ondarea ez ukitzeko eta erauzteko jardueraren gorabeherak zuzentzeko».

Gobernuak txosten horiek honako hauei igorri zizkien: Mármoles del Baztán S.A., Urdazubiko Udala, SOS Alkerdi plataforma eta Sustrai Erakuntza fundazioa; erakunde horiek finkatutako epearen barnean alegazioak aurkeztu dituzte, eta ebazpenean erantzuna ematen zaie. Hartutako erabakiaren aurka, enpresak eta erakundeek gorako errekurtsoa jar dezakete Garapen Ekonomikorako kontseilariaren aurrean; eta Udalak, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.




UTZITAKO ARGAZKIA

### Landibar Bentak irabazi du Dantxarineko III. Pintxo lehiaketa

Pintxoaren hirugarren hamabostaldia egin dute aurten ere Dantxarinean. Pintxo lehiaketa erabakitzeko, Ángela Basabe Irungo Antxón jatetxeko sukaldaria, Igor Cubillo kazetari eta kritiko gastronomikoa, Nere Ariztoy turismo gastronomikoan aditua, Santiago Villares alkatea eta Txomin Iribarren Dantxarineko Komertzianteen Elkarteko presidentea pintxo irabazlearen bila ibili ziren ziren bentaz benta. Zortzi Bentak parte hartu dute aurten: Lapitxuri, Agus, Landibar, Patxi, Peio, Paco, Mikelenborda eta Pantxo. Landibarrek aurkeztutako pintxoa suertatu da irabazle. Tomás Ávila Landibar Bentako sukaldari irabazleak kuiatxo edo kalabazin-lasagna testura ezberdinetan pintxoa aurkeztu zuen. Epaileek pintxoen maila hagitz ona zela aipatu zuten. Hamabortz egunez pintxoak dastatu duten jendearen artean Mutrikoko landa-turismo etxean astebururu bat zozketatu zen eta irabazlea Nades Noseychelles izan zen. Facebooken bidez ere zozketa bat egin zen pintxo irabazlea bozkatu zutenen artean eta irabazlea: Toribio Inda izan da.









**KULTURA ➜** ABENDUAREN 3AN LARREKO GELAN 'FRANCOREN BILOBARI GUTUNA' ANTZEZLANA

# Frankismoaren salaketa eta terapia antzerkiaren bidez taularatua

Mota guztietako injustiziak aipatzen ditu



UTZITAKO ARGAZKIA

Ander Lipus aktorea, antzezlanean.

**Franck DOLOSOR**

Erietxe bateko giro nahasian, medikuak eta eriak alde batetik bertzerat dabiltza zurrunbilo batean harrapatuak. Tartean daude Iñaki eta Joxean. Itxarongelan dagoen aldizkari batean Francoren biloba ageri da. *Francoren bilobari gutuna* antzezlana berriki estrenatu dute Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Petit Theatre de Pain konpainiek. Maiatza arte Euskal Herri osoan erakutsiko dute, abenduaren 3an Senperen Larreko gelan eta otsailaren 19an Iruritan.

Mota guztietako injustiziak eta jazarpenak aipatzen dituztela argitu du Ximun Fuchs taula zuzendariak. «Ez da iraganera begira dagoen antzerkia oraina aipatzen baitu».

## GOGOETAK GAI MINBERAREN INGURUAN

Antzerki berria sortzeko hainbat gogoeta egin dituzte, bertzeak bertze, nazismoak bere auzia izan zuela eta frankismoak ez. Bertzalde, Günther Anders filosofo judu alemaniarrak idatzitako gutunetan ere aurkitu dute inspirazioa. Deportazio eta esterminazio naziaren arduradun baten semeari galdetu zion neonazismoaren aurkako borrokan buru belarri sartzea. Gaiak hurbiletik ezagutzen ditu Fuchsek bere aitatxi bat judu-alemaniarra baitzen. Senide asko esterminazio esparruetan hil ziren Munduko Bigarren Gerra garaian. Beste aitatxi euskalduna zen eta presodengirat eraman zuten euskaraz mintzatzeagatik.

Frankismoaren kontrako auzi zintzorik ez dela sekulan gertatu azpimarratu du Ander Lipus aktoreak. »Gure herriak gainditu ez dituen mamuak dauzka oraindik, zauriak josi eta sendatzen laguntza eman behar da». Tobera bat balitz bezala terapia eskaini nahi dute irri eta negar egiteak oso sanoak dira eta, bere hitzetan. Euskararen aurkako erasoak ere taulen gainera eramatea erabaki dute.







**DONIBANE LOHIZUNEN**

## Mintzodromoa izanen da aurten ere Euskararen Egunean

**TTIPI-TTAPA**

2014ko irailaren 19an Hego Lapurdiko Hiriguneak, Euskara Mankomunitateak eta Bidaso Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak Sareuska, euskararen sarea sortu zuten. Egitasmoaren xede nagusia Bidasoaz bi aldeetako eskualdeetan euskararen erabilera bultzatzea eta dinamizatzea da. Helburua lantzearren 2017. urtera bitarteko plangintza garatu dute eta Mintzodromoa, bertan kokatzen den egitasmoetariko bat da.

Hortaz, aurten ere Sareuskak Mintzodromoa antolatu du Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Mintzodromoaren III. edizioa Donibane Lohizuneko Ravel aretoan eginen da abenduaren 1ean, goizeko 10:00 eta 12:30 bitartean.

Sareuskak Mintzodromoan parte hartzeko deialdi berezia egin nahi die Bortziriak, Hego Lapurdi eta Irun-Hondarribiko euskaltegietako ikasle eta irakasleei eta baita ere mintzapraktika programetako parte-hartzaileei. Hala ere, ekimena guztiz irekia da eta edozein euskaltzaleri zuzendutа eta irekia dagoela azpimarratu nahi dute.

Doan izena emateko aukera aipatutako tokietako euskara zerbitzuetan eta baita euskaltegietan ere izanen da, azaroaren 28ra bitarte.

# SARA

**KULTURA ➜** AZAROAREN 27AN LUR BERRI GELAN

## Udazkeneko hitzordu berria Usopop-en eskutik

Ekiza, Bilau eta Portugalgo Noiserv kantaria etorriko dira

**Joana GERENDIAIN**

Sarako gertakari musikaletan ezinbestekoa bilakatu den Usopop elkarteak hitzordu berri bat proposatzen du azaroaren 27an, igandearekin, arratsaldeko 5etatik goiti Lur Berri gelan. Egun horretan Portugalgo Noiserv kantariaren pop-rock musika, Euskal Herriko Ekiza eta euskarazko testu minimalistak eta folk musika nahasten dituen Bilau taldea entzuten ahalko dira. Sartzea 9 eurotan izanen da.

### Santa Katalina

Azaroaren 27an Ihalarreko Baratxartea jatexean Santa Katalina ospatuko da. Egun horretan, tripotxak jaten dira 29 eurotan den menu berezi batekin: Garbantzoak, xerri muturra eta lukainka erreak, tripotxak "bixi-bixi" saldan eginak, ahatekia patatekin, sagar hostorea banilazko izozkiarekin. Erreserbatzeko: 055954 2048. 11:30ean auzoko aperitifa ere eginen da jatetxean. Pilota zaleek, 10:30ean pasaka partida bat ikusten ahalko dute pleka trinketean.

### Teleton

Urtero bezala, Turismo Bulegoak bultzaturik, herria mobilitzatzen da Teleton elkartea sustengatzeko. Abenduaren 3an, 10:30etik goiti pastiza salmenta bat eginen da plazan, arratsaldeko 2etan hitzordua emana da San Inazioko lepoan Larrunera trenez igotzeko eta gero oinez jausteko edo treinez nahi duenarentzat, txartela 10 eurotan salduko da egun horretan. Eguna bukatzeko, 16:30ean Pikassaria jatetxean krakada bat eginen da, 5 euroko parte hartzea galdegina izanen da. Egun horretan bilduko den diru guzia Teleton elkarteari emanen zaio.

### Eguberriko merkatua

San Josepe eskolako gurasoek eguberriko merkatua eginen dute azaroaren 26an plazan, 09:00etan hasita. Gurasoek beraiek egiten dituzten objektuak eta pastizak eta edariak saltzen dituzte.



UTZITAKO ARGAZKIA
Bilau taldea entzuten ahalko da igandean Lur Berrin.

### Kirol emaitzak

Azaroaren 4an, eskubaloian 11 urtez azpikoek 16-13 irabazi dute, bertze ekipa guziek galdu dute 13 urtez azpikoek 28-23, 15 urtez azpikoek 16-12, 18 urtez azpikoek 15-13 eta seniorrek 26-20.

Azaroaren 11n 11 urtez azpikoek 25-15 galdu dute, 13 urtez azpikoek 24-16 irabazi, 15 urtez azpikoek 14-10 galdu eta seniorrek 31-28 irabazi dute.

Errugbian, basurdeek bi garaipen ezagutu dituzte azaroaren 5ean 25-0 Campet et Lamolère-ko ekipak opor egin baitu, azaroaren 13an 32-7 Narrosseko ekiparen kontra.



**Miguel Mari ARIZTIA «Mitto»**

Azpilkuetan, 2015eko abenduaren 3an

**I. URTEURRENA**

*Iñezture bezala gan hintzen gure artetik*
*ortotsa bezala somatzen datzugu geroztik*
*euria bezala sentitzen datzugu gogotik*
*haizea bezala zabiltze gure zerutik*
*hire iduzki biziak ez dik*
*alde egingo gure bihotzetik.*

**PILOTAKO KUADRILLA**



**Miguel Mari ARIZTIA «Mitto»**

Azpilkuetan, 2015eko abenduaren 3an

**I. URTEURRENA**

*Adio laguna, aski ezaguna*
*nork bete behar du*
*zuk utzitako hutsuna*
*Inoiz ez naiz damu izango*
*laguna izanaz*
*gogoan daukat erakutsi*
*izan zenidanaz.*

**MUSEKO LAGUNEK**



# EZKONTZAK

**Egoi Ion Garmendia Gonzalez** eta **Miriam Soria Almazán**, Donostiakoak Lesakan, urriaren 8an.
**Stéphane Lemaitre** eta **Nathalie Jouvet**, urriaren 22 an

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*




# SORTZEAK

**Izar Apeztegia Ariztegi**, Aurtizkoa, azaroaren 11n.
**June Apeztegia Ariztegi**, Aurtizkoa, azaroaren 11n.
**Ugaitz Iparragirre Mitxelena**, Urdazubi-Elizondokoa, urriaren 4an.
**Ekhi Ibarra Taberna**, Goizuetakoa, azaroaren 7an.
**Beñat Zubieta Elizagoien**, Etxalarkoa, azaroaren 9an.
**Galder Etxeberria Aroztegi**, Arraiozkoa, urriaren 26an.
**June Etxeberria Aroztegi**, Arraiozkoa, urriaren 26an.
**Mattin Iturralde Etxeberria**, Berroetakoa, azaroaren 15ean.
**Inaxi Heguy Iturria**, Sarakoa, urriaren 22an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*




# HERIOTZAK

**Joakintxo Zia Oteiza**, Oizkoa, azaroaren 4an, 48 urte.
**Juan Luis Aleman Laurnagarai**, Lesakakoa, azaroaren 6an, 50 urte.
**Victoriano Larretxea Burgete**, Arantzakoa, azaroaren 6an, 82 urte.
**Maria Iriarte Sarasola**, Berakoa, azaroaren 10ean, 92 urte.
**Mari Carmen Txantre Errandonea**, Berakoa, azaroaren 12n, 64 urte.
**Luis Mari Arretxea Bergara**, Sunbillakoa, azaroaren 12an, 73 urte.
**Jesus Gortari Ugarte**, Oronoz-Mugairikoa, azaroaren 12an, 88 urte.
**Leoncio Baños Fernandez**, Leitzakoa, azaroaren 15ean, 89 urte.
**Raphaël Goienetxe**, Sarakoa, urriaren 14an, 93 urte.
**Joseph Garate**, Sarakoa, urriaren 16an, 76 urte
**Jeanne Telletxea**, Sarakoa, urriaren 20an, 91 urte.
**Jean-Baptiste Lamothe**, Sarakoa, azaroaren 4an, 81 urte.









**MOTORRA ➜** NAFARROAKO ASFALTO GAINEKO RALLY TXAPELKETAKO AZKEN PROBA AZAROAREN 12AN

# Urdazubiko I. Kontrabandisten Rallysprintean erabaki da txapela

Joseba Beola gidari etxalartarrak eta Joxelu Iratzoki kopiloto igantziarrak irabazi dute proba



UTZITAKO ARGAZKIA
Beola eta Iratzokik gidatutako Mitsubishi Evo X autoa, euripean Urdazubin.

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako Automobilismo Federazioak eta Ilargi Sport eskuderiak lehen aldiz antolatu zuten Urdazubin Kontrabandisten Rallysprinta azaroaren 12an. Nafarroako Asfalto gaineko Rallyen txapelketarako azken proba puntuagarria zen, eta beraz, Urdazubin erabaki ziren txapeldunak.

Urdazubiko Kontrabandisten Rallysprintari dagokionez, Etxalarko Joseba Beola pilotoa eta Igantziko Joxelu Iratzoki kopilotoa suertatu ziren garaile, Mitsubishi Evo X autoarekin. Urdazubikoarekin Beolak hirugarren garaipena lortu du 2016an, eta Nafarroako asfalto gaineko rallyen sailkapen orokorrean bigarren izan da, Aitor Lozanoren gibeletik (Peugeot 206 Xs). Lozano zortzigarren izan zen Urdazubin, baina lehendik pilatutako puntuak aski izan zituen txapela lortzeko.

Aipagarria da Joxelu Iratzoki igantziarra txapeldun izan dela kopilotoen sailkapen orokorrean.

Junior txapelketan Alvaro Gutierrez (Citroen AX) izan da txapeldun.

**MENDIA ➜** NANGA PARBAT NEGUAN IGO DUTEN LEHEN MENDIZALEAK DIRA

# Munduko hiru mendizale handienetakoak ekarriko ditu Errekak Mendiaren Egunean

Simone Moro, Ali Sadpara eta Alex Txikon

**TTIPI-TTAPA**

Simone Moro italiarra, Ali Sadpara pakistandarra eta Alex Txikon bizkaitarra izanen dira abenduaren 18an, igande arratsaldeko 6etan Doneztebeko Ezkurra pilotakekuan, Errekaren Mendiaren Egunaren barrenean.

Goi mailako hiru mendizale izanen dira, Nanga Parbat-en, munduko 9. mendi garaiena dena, lortutako erronkaren kontakizuna egiten. Izan ere, Nanga Parbat neguan igo baitzuten (inoiz ez zen lortu).

Simone Moro eta Tamara Lunger bere aldetik eta Alex Txikon eta Ali Sadpara bertzetik hasi ziren helmugaren bila, baina, azkenean, Simone eta Tamarak bere bidea alde batera utzi ondotik Alex eta Sadpararekin elkartu eta azken hauek prestatutako bidetik laurak elkarrekin saiatu ziren.




Sadpara, Moro eta Txikonek lortu zuten tontorra zapaltzea eta hirurak Donezteben izanen dira, han bizitako pasadizoak erakutsi eta kontatzen. Sarrerak 8 eurotan salgai daude Titin (Doneztebe), Intzan (Elizondo), Errekalden (Bera) eta Maimurren (Leitza).

Eguna girotzeko, goizean mendi ibilaldia egin da eta ondotik bazkaria. Apuntatu Titi Ostatuan abenduaren 14a baino lehen.

**HERRI KIROLAK ➜** NAFARROAKO SOKATIRA TXAPELKETA ZORTZINAKA

# Azken jardunaldian galduta ere berriz txapeldun izan da Lesakako Beti Gazte

## Euskadiko launakako txapelketako lehen finalean ere aritzekoak ziren joan den larunbatean




ARGAZKIA: XAGU-LESAKA

Madejón, Barberena eta Etxegarai, hiru lehenbizikoak Lizuniagako kaxkoan.

**TTIPI-TTAPA**

Nafarroako goma gaineko sokatira txapelketaren hirugarren eta hondar jardunaldia jokatu zen azaroaren 12an Berriozarren. Hirugarren saio horretan hirugarren izan arren, Lesakako Beti Gaztek jantzi zuen gizasemeen 600 kiloko kategoriako txapela.

Berriozarren etxeko taldea izan zen nagusi, Txantrea bigarren eta Beti Gazte hirugarren. Baina Lesakako taldeak zenbait aldaketa egin zituen goma gaineratu zuen zortzikoan, esperientzia guttiagoko tiralariei ere lekua utziz, jakina baitzen txapela Lesakara ekarriko zutela.

6x6 txapelketa mistoan, berriz, 420 kiloko kategorian, Berriozar A nagusitu zen, Txantrea, Berriozar B eta Kaskallueta menperatuta. Emakumezkoen 375 kiloko kategorian, Berriozar nagusitu zitzaion Txantreari.

**EUSKADIKO 4X4KOAN**

Baina Nafarroako txapelketan ez ezik, Euskadiko 4x4 sokatira txapelketan ere ari dira Beti Gazteko tiralariak. Zehazki, 320 kiloko kategorian hasi dira eta azaroaren 5ean Zamudion eta azaroaren 13an Anoetan beraien multzoko buru izan ondotik, azaroaren 19an Ibarran (Gipuzkoa) jokatzekoa zen finalerako txartela lortu zuten.

Orain, 300 kilokoan bi talde aterako dituzte. Lehen saioa azaroaren 26an jokatuko dute Artziniegan (Araba), abenduaren 4an Asteasun (Gipuzkoa) eta azkena abenduaren 17an Kortezubin (Bizkaia).

**HERRI KIROLA ➜** EUSKADIKO KOXKOR BILTZE TXAPELKETA

# Fernando Etxegaraik lortu du hamargarren txapela

## Maika Ariztegi azpitxapeldun izan zen azaroaren 12an Elgoibarren




UTZITAKO ARGAZKIA

Ariztegi (ezkerretik lehenbizikoa) eta Izkue (laugarrena), Zuriñe Frutos txapeldunarekin eta bi bizkaitarrekin.

**TTIPI-TTAPA**

Euskadiko gizaseme eta emakumezkoen koxkor biltze txapelketak jokatu ziren azaroaren 12an Elgoibarren.

Gizonezkoetan, Fernando Etxegarai beratarrak 6 minutu eta 8 segundo behar izan zituen 50 koxkorrak biltzeko. Elgoibarko ikastolako frontoiak neurririk ematen ez zuela eta, bertze modu batera antolatu behar izan zituzten koxkorrak eta beraz, ez da marka homologatua izanen. Halere, denbora bikaina egin zuen Berako kirolariak hamargarren txapela jantzeko (6:08). Bigarren, Aritz Ruiz arabarra izan zen (6:25) eta hirugarren, gaur egungo Nafarroako txapeldun den Unai Iantzi aniztarra (6:31). Gibeletik sailkatu ziren Eneko Garmendia gipuzkoarra (6:43), Michel Guilçou lapurtarra (6:44), Aritz Martin bizkaitarra (6:52), Jon Goikoetxea gipuzkoarra (7:05), Guillermo Lopez arabarra (7:17) eta Sendoa Larrea bizkaitarra (7:22)

Emakumeetan, hamalau aldiz jantzi du Euskal Herriko txapela Maika Ariztegi iturendarrak, azken hamahiruak segidan. Azkenekoa iaz Igantzin, baina hurbilean izan zuen Zuriñe Frutos arabarra. Elgoibarren jokatu zen saioan, ordea, Zuriñe Frutos arabarra ongi nagusitu zen, 7 minutu eta 17 segundoko denborarekin. Maika Ariztegi iturendarra izan zen bigarren, 40 segundora (7:57) eta lehen aldiz parte hartu duen Beintza-Labaiengo Irune Izkuek osatu zuen podiuma (8:20). Goizalde Aransolo (8:43) eta Ainhoa Ortega (8:53) bizkaitarrek ere lehen aldiz parte hartu zuten eta laugarren eta bosgarren postuak eskuratu zituzten.

# azaroak 24 - abenduak 8

Informazioa bidaltzeko: **info@ttipi.eus** edo **948 63 54 58**

## Kontzertuak



ELIZONDO-LESAKA-BERA | 2016.12

**Gospel musika aditzeko aukera Elizondon, Lesakan eta Beran**

Ugandako umezurztegi baterako dirua biltzeko, handik etorritako talde gaztetxo batek gospel musika eskainiko du abenduaren 3an Elizondon, 6an Lesakan eta 7an Beran.

## Ekitaldiak




ELIZONDO | 2016.12.08

**Hizkuntza gutxituak kantuz Arizkunenean**

Baztango Udalak eta Garabide Elkarteak antolatuta, hizkuntza gutxitua duten lau komunitateko kideek Alazne Untxalo eta Xabi Maia bertsolariekin batera ekitaldia eskainiko dute 19:30ean.

## Antzerkiak



DONEZTEBE-ARANTZA | 2016.11

**Emakume eta gizonen arteko harremana astintzen duen ikuskizuna**

Uhartean taldeko Esther Carrizok *Susanaren iraultza* izeneko antzerki-clown ikuskizuna eskainiko du Doneztében azaroaren 24an eta Arantzan azaroaren 25ean.

## Erakusketak

ZUBIETA

**Tren Txikitoren mendeurreneko erakusketa**

**Azaroaren 24tik 27ra.**

ELIZONDO

**Baratze kiritikoa**

**Abenduaren 5etik 16ra** Arizkunenean.

**'Elizondoko Lanbide Eskola 50 urtez lan bidean'**

**Abenduaren 3ra arte** Arizkunenean.

ITUREN

**Tren Txikitoren mendeurrenaz**

**Abenduaren 2tik 4a.**

BERTIZARANA

**Tren Txikitoren mendeurrenaz**

**Abenduaren abenduaren 7tik 18ra.**

## Hitzaldiak

BERA

**Sare sozialen inguruan gurasoentzako**

**Azaroaren 25ean** Beralandetan, 17:30ean.

**'Su galduaren bila' ipuinaz**

**Abenduaren 10ean** Aitziber Almandozekin Beralandetan, 12:00etan.

IGANTZI

**Filma eta solasaldia**

**Azaroaren 25ean** Yolanda Yañez psikologoarekin, 19:30ean Herriko Etxean.

DONEZTEBE

**Udazken literarioak Herriko Ostatuan**




**Azaroaren 25ean** Elixabet Badiola 19:30ean.

**Abenduaren 2an** Izaskun Zubialde 19:30ean.

**Abenduaren 9an** Dani Martirena 19:30ean.

GOIZUETA

**'Esentzia' liburuaz**

**Azaroaren 25ean** 19:00etan Ganbaran Ander Olaizola.

IRURITA

**'Kirola, ehiza eta gastronomia'**

**Azaroaren 25ean** 19:30ean Olari Jatetxean.

ETXALAR

**Lapurretei buruz Larraburuan**

**Azaroaren 26an** 17:00etan.

ELIZONDO

**Baztango Done Jakue Bideaz**

**Abenduaren 2an** 19:00etan Arizkunenean.

**'Hizkuntza gutxituak kantuz'**

**Abenduaren 8an** 19:00etan Arizkunenean.

IGANTZI

**'Nire ibilbidea fisikaren eskutik'**

**Abenduaren 10ean** Oihana Txoperenarekin, 19:00etan Eskolzarren.

## Ikuskizunak

LEITZA

**'Lagun bati gertatu zitzaion' bakarrizketa**

**Azaroaren 27an** 19:00etan Zineman.

GOIZUETA

**'Lagun bati gertatu zitzaion' bakarrizketa**

**Abenduaren 2an** 19:00etan Udaletxeko Ganbaran.

ITUREN

**Haurrentzako dantza eta musika emanaldia**

**Abenduaren 3an** *Oa-huetak* 17:30ean Herriko Etxeko Ganbaran.

ELIZONDO

**Hizkuntza gutxituak kantuz**

**Abenduaren 8n** 19:30ean Arizkunenean.

**Katillukadak txotxongiloak**

**Abenduaren 11n** 6-12 urtekoendako, Arizkunenean (17:00).

IGANTZI

**'Euskararen espektakulue'**

**Abenduaren 9an** 22:30ean Baratzondon.

**Tor magoa Baratzondon**

**Abenduaren 10ean** tailerra eta ikuskizuna, 16:00etan.

## Antzerkiak

DONEZTEBE

**'Susanaren iraultza' Zineman**

**Azaroaren 24an** 18:30ean.

ARANTZA

**'Susanaren iraultza' eskolan**

**Azaroaren 25ean** 19:30ean.

IRURITA

**Ladydi Garcia helduendako**

**Abenduaren 4an** 19:00etan Gizarte Bilgunean.

ITUREN

**'Plazerra gurea da'**

**Abenduaren 4an** 19:00etan.

IGANTZI

**'Sarean kateatuak'**

**Abenduaren 10ean** 21:00etan Baratzondon.

**'Vini Vidi, Vinci'**

**Abenduaren 11n** 18:00etan.

## Ipuin-kontalariak

BERA

**Ines Bengoarekin**

**Azaroaren 25ean** 5-8 urteko-entzat 18:00etan Liburutegian.

NARBARTE

**Ameli ipuin kontalaria**

**Azaroaren 26an** 11:00etan zentro zibikoan.

ARANO

**'Berdintasna maite dugulako'**

**Abenduaren 2an** 5-12 urteko-entzako. 20:30ean Ganbaran.



ITUREN

**Ipuin kontalaria**

**Abenduaren 2an** 16:00etan Herriko Etxeko Ganbaran.

## Kontzertuak

ELIZONDO

**Ken Zazpi Lur Aretoan**

**Azaroaren 26an** 00:00etan. Ondotik Oihan Vega.

**Elizondoko Musika Banda**

**Abenduaren 3an** Arizkunenean, 13:00etan.

**Gospel musika**

**Abenduaren 3an** Elizan, 20:00etan.

**Los Tenanpa Lur Aretoan**

**Abenduaren 10ean** 01:00etan. Ondotik Nash DJa.

SARA

**Usopop-en kontzertua**

**Azaroaren 27an** 17:00etan Lur Berri gelan.

DONEZTEBE

**Mendi Abesbatza**

**Abenduaren 3an** elizan, 12:00etan.

LESAKA

**Gospel musika**

**Abenduaren 6an** elizan, 18:00etan.

BERA

**Irurtzungo abesbatza**

**Abenduaren 3an** elizan, 11:30ean.

**Gospel musika**

**Abenduaren 7an** elizan, 18:00etan.

**Bibolin entzunaldia**

**Abenduaren 13an** Musika Eskolan, 18:00etan.

## Filmak

ETXALAR

**Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira**

**Azaroaren 23an** 18:00etan Kultur Etxean.

LEITZA

**'Neska Banda'**

**Azaroaren 24an** 19:00etan Atekabeltzen.

IGANTZI

**'Gutik Zura' dokumentala**

**Abenduaren 9an** 19:00etan Eskolzarren.

## Bertsoak

ELIZONDO

**Bertso marraztuak**

**Azaroaren 27an** Julio Soto eta Oihana Bartrarekin. Unai Gaztelumendi karikaturgile. 19:00etan Arizkunenean.

ITUREN

**Bertso-afaria**

**Abenduaren 3an** Ander Lizarralde eta Iñigo Manzisidor.

## Bestak

NARBARTE

**San Andres besta ttikiak**

**Azaroaren 26an eta 30ean.**

ZIGA

**San Andres besta**

**Azaroaren 26an.**

## Ospakizunak

SARA

**Santa Katarinako besta**

**Azaroaren 27an** 10:30etik aitzinera Baratxartean.

**Telethona**

**Abenduaren 3an.**

ITUREN

**Kultur Egunak**

**Abenduaren 2tik 4ra.**

IGANTZI

**Kultur Egunak**

**Abenduaren 8tik 11ra.**

DONEZTEBE

**Santa Luzia Eguna**

**Abenduaren 11n.**

## Azokak

SARA

**Eguberrietako merkatua**

**Azaroaren 26an** 09:00etatik aitzinera frontoian. Saint Joseph eskolak antolatua.

GOIZUETA

**Azienda, nekazal eta artisau feria**

**Azaroaren 26an.**

BERA

**Bigarren eskuko merkatu ttikia**

**Azaroaren 27an**. Labiaga Ikastolak antolatua.

ELIZONDO

**Bertako produktuak**

**Abenduaren 10ean eta 17an** plazan, 10:00-14:00.

## Mendi ateraldiak

BAZTAN

**Baztango Mendigoizaleen irteerak**

**Azaroaren 27an** Almandoztik Gartzagara, 07:30ean.
**Abenduaren 4an** Burkaitzetik Egurtegira, 08:00etan.
**Abenduaren 11n** Oronoztik Aizkolegira, 07:00etan.

### PROPOSAMENA

ESKUALDEA

**Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna**

Egun seinatua da azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta egun horren bueltan, hainbat ekitaldi prestatu dituzte eskualdean: elkarretaratzeak, antzerkiak, film emanaldiak, hitzaldiak, tailerrak, bakarrizketak, ipuin-kontaketa saioak... Ikastetxe aunitzetan ere modu berezian landuko dute gaia.



## ETXEBIZITZAK
**salgai**

**ORONOZ-MUGAIRI**. Pisua salgai, 90 $m^2$ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 $m^2$ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA

**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan**
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 $m^2$ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**
- **Aukera:** 102 $m^2$ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 $m^2$ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
**anzabal@anzabal.com**

**ELIZONDO**. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 59.500 euro. ☎646 774117.

**BERA**. 80 $m^2$ko pisua salgai, lehenengo solairuan. Erdigunean, Altzate karrikatik hurbil. Guztiz berritua, sukaldea estreinatu gabea. Berogailua eta isolamendu ona ditu. Komunitateko gastu gutxi ditu. 140.000 euro. ☎608 777926.

**SUNBILLA**. 92 $m^2$ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. ☎639 156105.

# MERKATU TTIKIA

## 948 63 54 58

**info@ttipi.eus** edo **erran.eus**

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **3008 0080 56 0703304329** kontuan

**TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik**

**LESAKA**. Azkaine karrikan 47 $m^2$ dituen apartamentua salgai. Bajua da, oso erosoa, komuna, trasteroa, gela bat eta sukalde-egongela. Mobleztatua dago. ☎628 042047.

**LESAKA**. Albistur karrikan 140 $m^2$ko etxebizitza salgai. Beheko solairuan sukaldea, logela, egongela eta komuna. Goikoan lau logela eta bainugela. 3 kotxerentzako garajearekin. Loratagia ere badu. ☎687 957072.

**LEITZA**. Amazabal kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, komuna, sukaldea, trastelekua eta garajearekin. Igogailua ere badauka. 70.000 euro. ☎634 406302.

## ETXEBIZITZAK
**errentan emateko**

**BERA**. Hegoalde 33, 1B pisua errentan emateko. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongelarekin. ☎605 864355.

**URDAZUBI**. Pisu ttiki bat errentan emateko. sukalde-jangela amerikarra, logela bat eta bainugelarekin. ☎659 849570.

## ETXEBIZITZAK
**errentan hartzeko**

**BERA**. Pisua errentan hartu nahi dute 2 neska arduratsuk, mobleztatua eta egoera onean. Biak lanean. 400 euro. ☎627 086071 / 663 420685 (20:00etatik aitzinera).

**ESKULDEAN** etxea edo baserria errantan hartuko nuke. ☎678 099422.

## LOKALAK
**salgai**

**DONEZTEBE**. Ameztia karrikan lokal komertziala salgai. 98 $m^2$ ditu, azulejatua dago eta bainugela dauka. Erakusleiho handia eta argitsua. Interesatuek deitu. ☎606 585163.

## GARAJEAK/LOKALAK
**errentan emateko**

**BERA**. Auzoa ostatu-jatetxea errentan emateko. ☎605 864355.

**BERA**. Bajera haundia eta argitsua errentan emateko, komuna ttiki batekin. Caro Baroja, 10. ☎948 630257.

## GARAJEAK/LOKALAK
**errentan hartzeko**

**BERA**. Legia karrikan garaje plaza bat errentan hartuko nuke. ☎626 568984.

## LURRAK/ORUBEAK
**salgai**

**IGANTZI**. 19.000 $m^2$ko lurzatia salgai, borda batekin eta herritik hurbil. ☎650 831395 / 662 386899.

**SUNBILLA**. 21.000 $m^2$ko lur eremua salgai, nekazaritzako tresnak gordetzeko biltegi ttiki bat egiteko baimenarekin. 12.000 euro. ☎650 395477.

**SUNBILLA**. Ezin delakoz zaindu, 25.000 $m^2$ko lur eremua salgai, nekazaritzako tresnentzako biltegi bat eraikitzeko aukerarekin. Sagarrondo, intxaurrondo, hurrondo, txakoli, erlauntza eta ahuntzentzako lur eremu aproposa. 12.000 euro. ☎678 099422.

## LANA
**eskaintzak**

**On-line lanean aritzeko** zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

**URDAZUBI**. Montxo ostatuan zerbitzaria behar da. Frantses pixka bat dakiena. ☎948 599039.

**URDAZUBI**. Montxo ostatuan esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎948 599039.

**ZUGARRAMURDI**. Kattalin jatetxean zerbitzaria behar da egunez lan egiteko. Frantsesez jakitea eta esperientzia izatea beharrezkoak dira. ☎948 599146 / 948 599009.

Elkarrizan Laguntza

# BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urriaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)



## ZERRIKIA

**Zerrikumea**
(19 kilo): 36 €

**Zerri gizena**
1,180 € kiloa.

**Zerramak:**
0,710 € Kg/bizirik.



## BEHIKIA

**Aretze gizenak:**

| **Idixkoak: €/kg. Kanal** | |
|---|---|
| **Extra** | 4,16 |
| **1.koa** | 3,93 |
| **2.koa** | 3,75 |
| **Urruxak: €/kg. Kanal** | |
| **Extra** | 4,24 |
| **1.koa** | 3,97 |
| **2.koa** | 3,80 |

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**
urruxak 140,00
idixkoak 228,00

**Aretze nabarrak:**
urruxak 120,00
idixkoak 180,00

**Zaldikoak:** €/k
Sortuberriak: 3,05/3,15
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

**Bildotsak:** €/k
6-8 kilokoak: 7,90/8,90
8-10 kilokoak: 7,00/7,40

Emaile Taldeak **psikologia tituludun baten kontratazioa** egin nahi du, Bortzirietan arreta integrala emateko zerbitzua. Informazio gehiagorako eta baldintzen berri izateko: *elkarrizan@gmail.com*. Epemuga: azaroak 30.

**ELIZONDO**. Idoia Oteiza ile-apaindegian esperientzia duen ileapaintzaile bat behar dugu, bere lana gustuko duena eta ikasteko gogoarekin. ☎630 740952/ *info@idoiaoteiza.com*.

**ETXALAR**. Salmentan aritzeko lanpostu baterako langile bat behar da. Interesatuek deitu. ☎615 705215.

## LANA
### eskariak

**BERA**. Emakume bat edozein lanetan ariko litzateke: haurrak zaintzen, garbiketan... ☎686 947418.

**Interna moduan adinekoak zaintzen** lan egitea interesatuko litzaidake. ☎694 409424.

**Interna moduan adinekoak zaintzen** lan bila. Esperientzia adinekoak zaintzen baita haurrekin ere. Ostalaritzan ere sukaldari bezala esperientziaduna. ☎652 308846.

**BERA** edo **LESAKA** inguruan emakumea lan bila: adinekoak zaindu, etxeko lanak egin edo bulegoak garbitzeko. ☎948 630914 / 678 903294.

## MOTORRAK
### salgai

**Honda Accord** autoa salgai. Hagitz egoera onean. 115.000 km. Gasolina. ITV heldu den urteko apirila bitarte, 950 euro. Etorri eta probatu!! ☎680 343337.



**Mercedes Vito 110D furgoneta** salgai. 1998koa. 265.000km. Txoferra +7 eserleku. Fidagarria. Gogorra. Ona. Haurrak maite ditu. Etxean batek baino gehiagok negar eginen du 5.000 eurotan salduko dudala jakitean. ☎696 721575.

Traktore ttikientzako **gurdia** salgai. Gurpilak eta gurdia egoera onean, frenoarekin. Dokumentaziorik gabe. 500 euro. Prezio negoziagarria. ☎680 708259 / 948 635025.



## ANIMALIAK
### oparitzeko

**Pastor aleman arrazako zortzi urteko zakurra oparitzeko**, zaintzaile ona, pedigria. Ezin delakoz atenditu oparitu nahi da. ☎686 923350.



## ANIMALIAK
### salgai

**7 artantxu** salgai. ☎948 634118.

**Behi blondak** salgai, ernariak eta aratxeekin. ☎948 599164.

**Artzain txakur iletsuak** salgai. Urriaren 20an jaioak. ☎640 189839.

**Pointer ehiza zakurra** salgai, oilagorretarako. 7 urtekoa. ☎650 176597.

## DENETARIK
### salerosketak

**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,5 m luze, borobila. ☎948 585036.

**Burdinurtuzko tximeneta** salgai, bere altzari metaliko apaingarriarekin. Prezioa adostuko dugu. ☎699 116595.

**Bigarren eskuko bizikleta estatikoa nahi** nuke. ☎637 265587.

**2. eskuko trikitixa** erosiko nuke. ☎616 037637.

Scott Gambler dh 10 **jaitsieretako bizikleta** salgai. Egoera onean. Ikusi eta probatu. ☎669 916635.



**Lurreko sua** salgai, 80x68 neurrikoa. Aireztapenarekin, etxeko beste logelak berotzeko. Prezioa: 450€. ☎607 924379.



**Bi sofa** salgai. Egoera onean. Bat 3 plazakoa da eta bertzea 2koa. Urdin kolorekoak eta erosoak. Aukera ona. ☎659 767375.

**Logela** salgai. 2 ohatze 90 cm-koak (koltxoiak, somierrak eta arropa guztia barne), mesanotxea, ikasteko mahai eta liburuetarako apalategia, paretarako bi apalategi ttiki eta lanpara. ☎661 767398.



**ORONOZ**. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



ELKARRIZAN
Laguntza Emaile Taldea
PSIKOLOGIA
tituludun baten kontratazioa
Bortzirietan arreta integrala emateko zerbitzua
Informazio gehiagorako eta baldintzen berri izateko e-Posta honetara idatzi:
**elkarrizan@gmail.com**
Epemuga: azaroak 30




ttipi-ttapa
DISEINU GRAFIKOA
Komunikazio elementuak garatzen ditugu:
IRUDI KORPORATIBOAK
• logotipoak eta papergintza •
ARGITALPENAK
Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...
BERTZE EUSKARRIAK
Boletoak, pegatinak, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak ...
EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK
Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA Tel. 948 635 458 kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

# urtebetetzeak

Argazki soila: **5€**; bikoitza: **10€**

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



**Oihan Oiarzabal Larraldek** urteak bete ditu azaroaren 15ean. Zorionak pottoko zure 5. urtebetetzean!!!! Muxu pila bat familia guztiaren partetik.



Elgorriagako **Naroa Etxeberria Martinek** urtea beteko du abenduaren 25ean. Muxu bat atta, ama eta Elizondo eta Elgorriagako familien partetik.



Doneztebeko **Nahia Iriarte Mikelarenak** azaroaren 16an 6 urte bete ditu. Zorionak Sunbillako eta Arantzako familiaren partetik eta berexiki atta, ama eta Aimar zure anaiaren partetik. Muxu handi bat printzesa!!



Aunitz urtez **Joxemiel** zure 65. urtebetetzean. Ea behingoagatik Algezirasen jubilazioa eman eta etxerat igortzen zaituzten. Muxu eta besarkada haundi bat familia guziaren partetik. Maite zaituztegu. Euskal preso eta iheslariak etxerat!!!



Urte askoz **Joanes**! Egun ederra pasatuko dugu zure bigarren urtebetetzea ospatzeko. Muxu haundi bat attatto, amatxo eta Kattalinen partetik.



Sunbillako **Xabi Armendariz Aizkorbeek** 7 urte beteko ditu azaroaren 30ean. Zorionak familia osoa eta berexiki Uxue eta Ainhoa arreben partetik.



Berako **Nahia Endarak** 7 urte beteko ditu azaroaren 28an. Zorionak atta, ama, Alain eta Berako familia guztiaren partetik.



Arizkungo **June Soule Maritorenak** urtea bete du azaroaren 15ean. Zorionak etxekoen partetik. Muxu pottolo haundi bat.



Zubietako **Maddik** urtea bete du azaroaren 8an. Zorionak Zubieta eta Legasako familia eta berexiki Nahia, Enaitz, Maren eta Naroaren partetik.



Elgorriagako **Aimar Bertiz Etxeberriak** abenduaren 14an 5 urte beteko ditu. Zorionak familia guzia eta berexiki Aiala arrebaren partetik.



**Intza Ugalde Pikabea** aranztarrak 4 urte beteko ditu abenduaren 5ean. Aunitz urtez monona eta lau muxu potolo zuretzat, polita!



**Oinatz Sein Etxebestek** 3 urte beteko ditu abenduaren 3an. Zorionak familia guziaren partetik. Zorionak pottottoooo!!



Oronozko **Unai Torres Alemanek** 12 urte bete ditu azaroaren 23an. Muxu handi bat eta uanitz urtez etxekoen partetik.



Anizko **Aiert** eta **Eñautek** 5 eta 3 urte bete dituzte urriaren 27an eta azaroaren 29an. Zorionak eta besarkada haundi bat familia guztiaren partetik.



Zorionak **Naroa**!!! Azaroaren 20an 4 urte bete dituzulako. Asko maite zaitugu! Muxu asko, zure familia.






berako agenda .eus

✱Abendua✱

berako agenda

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus

BERAKO UDALA
berako kultur batzordea

**03 LARUNBATA**
KONTZERTUA
NAFARROAKO EGUNAREN KONTZERTUA.
Iruntzungo Abesbatza
11:30
San Antonio Eliza (Altzate)
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua



**07 ASTEAZKENA**
KONTZERTUA
GOSPEL KONTZERTUA: ABATAANO
18:00
San Esteban Eliza
Sarrera: Borondatea



**10 LARUNBATA**
AURKEZPENA
"SU GALDUAREN BILA"
Ipuinaren aurkezpena (Aitziber Almandoz)
12:00
Beralandetan

**24 LARUNBATA**
EKITALDIA
OLENTZERO
17:30
Herriko Etxea Plazan



**31 LARUNBATA**
EKITALDIA
GLIN-GLAN
ETA DIOSTESALBEA
Herriko karriketan barna



ISIDORO FAGOAGA
Musika Eskolako Emanaldiak

**13 ASTEARTEA**
BIOLIN ENTZUNALDIA
18:00
Musika eskolan



**16 ORTZIRALEA**
TRIKITIXA ETA AKORDEOI ENTZUNALDIA
18:00
Musika eskolan

**20 ASTEARTEA**
PIANO ENTZUNALDIA
18:00
Musika eskolan

**21 ASTEAZKENA**
EGUBERRIETAKO KONTZERTUA
18:00
San Esteban Elizan



Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

**Liderrak gure eskualdean**
eta baita azterketa egiterakoan
**CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean**
**hartu duen 111 udalerrien eremuan ere**






**Ttipi-Ttapa**
**28.000 irakurle**

| | |
|---|---|
| DIARIO DE NAVARRA | 14.000 irakurle |
| DIARIO DE NOTICIAS | 12.000 irakurle |
| GARA | 3.000 irakurle |
| EL PAÍS | 3.000 irakurle |
| MARCA | 2.000 irakurle |
| EL MUNDO | 2.000 irakurle |
| BERRIA | 1.000 irakurle |
| BESTE BATZUK | 8.000 irakurle |



**SEXUAREN ARABERA**

| | |
|---|---|
| GIZONAK | %55,00 |
| EMAKUMEAK | %45,00 |

**ADINAREN ARABERA**

| | |
|---|---|
| 14-24 URTE | %13,40 |
| 25-34 URTE | %10,40 |
| 35-44 URTE | %27,60 |
| 45-54 URTE | %12,70 |
| 55-64 URTE | %17,80 |
| +64 URTE | %18,20 |

**IKASKETA MAILAREN ARABERA**

| | |
|---|---|
| IKASKETARIK GABE | %27,60 |
| OINARRIZKO BATXILERGOA | %17,80 |
| GOI MAILAKO BATXILERGOA | %26,40 |
| UNIBERTSITATEA | %28,30 |

Datu iturria: CIES, 2016ko lehenengo neurketa

## ttipi txartelarekin beti irabazten da!




DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN

**Eskatu zurea: 948 63 54 58**

Informazio gehiago:
**TTIPI-TTAPA**
Koskontako bidea, 7 **LESAKA**
T **948 63 54 58** | F. 948 63 54 57
**info@ttipi.eus | erran.eus**

# ZOZKETAK

## 674. aleko irabazleak

**Martiko - Lote bat**
Teodora Zugarramurdi Iriberri | IRURITA

**Arkupe Gozotegia - Txokolate lote bat**
Juana Estanga Elizalde | DONEZTEBE

**BKZ Abentura - 2 tiket arroil aquapark**
Jose Martin Aioroa Ariztegi | ITUREN

**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**
Maribi Sagaseta Irigoien | NARBARTE

**Buatxabal | Kamiseta bat**
Mª Josefa Elizalde Mariezkurrena | EZKURRA

**Donostiako Aquariuma - 2 sarrera**
Margarita Elizondo Mitxelena | SUNBILLA

**Elkar argitaletxea - Liburu bat**
Elvira Nemours Ezponda | ELIZONDO

**Elkar argitaletxea - Liburu bat**
Judith Mariezkurrena Balda | LEITZA




LOTE BAT
**MARTIKO**
www.martiko.com




SARRERAK
**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**
www.turismozugarramurdi.com




2 SARRERA
**LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA**
www.lesakakoudalkiroldegia.com

GONBIDAPENAK
**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**
www.eurekamuseoa.es




KAMISETA BAT
**ONDDO TA PUNTO**
www.onddotapunto.com




2 SARRERA
**DONOSTIAKO AQUARIUMA**
www.aquariumss.com




# BERTSOAK




**- Bertsoak 2011**
3 DVD

Lanku
www.lanku.eus

# DESKONTUAK %

intzuri OPTIKA
**LESAKA** | %5, produktu guztietan

ZORTZIKO
**LEITZA** | %5, gozotegian 30€tik gora

CASA OSTIZ
**DONEZTEBE** | %10, oinetakoetan

Urdi Bera — SERVICIOS DEPORTIVOS / KIROL ZERBITZUAK
**BERA** | %20, urteko abonuaren matrikulan

ttipi-ttapa
**LESAKA** | %10, eskeletan

KAPRITXO
**LEITZA** | %10, 30€tik gora